

Salbador Zapiroain

«Ataño»

MAITE ITZAZUTE ETSIAK

Erri-literatura
Auspoa Liburutegia

Nobela



ETOR

00-512

9251

MAITE ITZAZUTE ETSIAIAK

Auspoa Liburutegia
201

Salbador Zapiain
«Ataño»

MAITE ITZAZUTE ETSIAK
(Nobela)

(Saillaren zuzendari: Antonio Zavala)



EDITORIAL

ETOR

ARGITALETXEA

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR S.A.
Euskal Herria, 2-2^o 20003 DONOSTIA.

I.S.B.N: 85527-58-5

D.L.:NA. 1403-1989

Irar-lanak: GRAFICAS LIZARRA, S.L. - Lizarra

SARRERA

Eleberri au egiteko asmoak bein baiño geiagotan artu nituen. Baiña beti gerorako utzi. Alare, neguan sartu giñanean, ekin nion lanari. Beta geiago ta egokiera ohea neretzat, ia lautatik iru illun egiten duen egun oietan.

Nere larrien asiera izango zan tabernatxoa, askotan bere barruan ibillia izan arren, urteak ziran andik aldegiña. Orregatik, lan au asi aurretik, bere lekuan ikusi ta ikasi nai nuen. Baiña nere txangoa alperrikakoa izan zan.

Len taberna zegoen lekuan, ez nituen bere ondakiñak besterik arkitu. Kixkali ta eroria, goi-beak elkar jota, arresirik ere etzizaion txutik gelditu, aspaldian egin ta ustelduak zeuden-ta. Berdin-berdin utzia zegoen guzia, beltz-beltza, ikatz biurtua. Tellak, aietxek gorriak. Baiña txetuak bero geiegiarekin eta erorikoan azpia jota. An zeuden bertako pitxar guziak ere, txiki milla puska egiñak. Ondamen ikaragarria. Ez omen zala ezer ere salbatu.

Txikizio ura ikusita, naigabe artu nuen, kondairez betetako ardangelatxoa zan-ta, neretzat beiñepein. Oroitz goxo ta mikatzak zeuzkana.

Mendi-gallur artan, guda-gaztelua jasotzerakoan

egiña. An lanean aritu ziranean, etxeko seme sobran-teen irabaziak txurupatu zituena. Gaur ere, ortara dabillen jendeak ez du aurreratzeko asmorik. Ordukoak ere berdintsuak izango ziran. Izen aundiko parranderoak ere bai tartean. Bidaso'z arunzkoak batzuk.

Ernani'ko Eltzekondo burrukari ta pultsulariak ere an egin zuen lana. Txirrita zanak ere bai. Iaio izeneko batek emandako labainkada batekin il-etsia, an igaro zituen egun luzeak.

Franco'ren garaietan, berriz, bertso-saioska batzuk egiteko, igande-arratsaldeetan, erdi ezkutu ta ixillean, emen biltzen ziran inguruko bertsolari gazteak batez ere, zaar batzuekin.

Guda-gazteluan soldaduak zuden arte, ta aldame-neko armal-arrobia lanean, bizia bazeukan tabernak. Oiek itxi ziranean, bereala eziñean geratu zan. Eta orduan zeuden tabernariak, au utzi ta Antxo'ko etorrera obeagoko batean jarri ziran.

Baiña guda bukatu ondoren, bi auzoak, norentzat izan, auzi txiki bat egin zuten. San Markos atze aldeko batek irabazita, bere gain artu zuen, gero bere arreba batek laguntzen ziola. Au kanpora ezkondu zitzaionean, bakarrik geratu zan. Taberna utsetik ezin zitekean bizi. Ortarako, auntz, bei, ardi ta zerri batzuk jarri zituen, mendi-egal aietan mantentzen zirala.

Nere aita zanak eta bere bi lagunek, Gaxtelu ta Kataliñene'ko Manuelek, maitea zuten, batez ere Franco'ren garaietan. Altza-alde ori dena erdaldunez bete zan. Aiek izkuntz arrotz ortan baraurik zeuden. Orregatik joaten ziran mendi aldera, an geienak beren antzeakoak baizituzten.

Buelta txikia, ardangela ontara joan ta etortzea zan; ta oni *vuelta a Guipúzcoa* deitzen zioten. Aundia, berriz, gutxieneko lau taberna-txuloetako txan-

goa zuten. Emendik asi, Zamalbide, Astigarraga'ko Bentak, Otsazulueta. Gero, etxerakoan, lengoetan berriro sarreratxo bana egiñez etorriko ziran etxera. Oni, *vuelta al País Vasco* deitzen zioten. Gure aitona konten urrengo igandera arte. Etzebilkiten kutixi geiegirik.

Eguraldi txarra zegoenean, kantina ontara etorri, baso erdi batzuk edan ta bertso-saioska bat egin, ortarako lagunik bazuten beiñepein, ta illuntzerako etxera.

Beste oitura bat ere bazuten. Lenbizi eldutako tomateak an jango zituzten; eta arrapazka ibiltzen ziran, aurrenekoak nork eraman.

Aiek joan ziran. Etzuten, nik bezela, kixkalia ikusi.

Guretzat ere oroitza asko zeuzkan taberna txiki arek. Orain, zerbait artu nai ta ere, gain ta azpi dena alkar joa.

Eun da geiago urteko kondaira emen bukatzen da. Berdindua dago. Arresiak ere erorita, ez da arria arriaren gaiñean besterik geratu.

Inguru xamarrean dago sortu nintzan baserria, ta nere anaiari galdetu nion, ea an zer gertatu zan.

– Ikaragarria, motell. Ijitoen artean etzegok gauz onik.

– Tabernari zeudenak ijitoak al itun, bada?

– Alatsukoak. Aien lan gaiztoari izen bat ematezkeroz, ala esan bear.

– Ni ere arrituta geratu nauk.

– Ik ezagutzen uan Joxe Jiraldok, bertako tabernaria?

– Beatz erantsi ura? Kinta batekoak giñuan biok. Geroztik ere arekin artu-emanak izan dizkit nik. Emendik aldegiterrako ere, ura zegoken nagusi. Zakar xamarra, baiña emateko kontuan biotz onekoa; oparoa.

– Bein guda-gaztelu ori bukatu zanean, eun soldadu egotez or bizi itun. Aiek joan ziranean, ardangela kaxkar orrek etzeukaken bizirik. Igande ta jaientan zerbait. Baiña aste-egunetan ezer ez. Ez uan noski iñor ere azalduko. Lenengo, anai-arrebak jarri itun. Au ezkondu zanean, bakarrik geratu uan. Martxa jartzeko alegiñak egin zizkin. Emakume bat ekarri ere bai, bera mollera lanera joaten zan bitartean, etxea zaintzeko. Baiña arek lengo lepotik zeukaken burua, bi aur sasikoekin etorri zanak. Bein, asarretu ta aurrean biali zin. Beste Ondarrabi'ko batzuekin ere egin zin tratua. Aita-alabak ekarri zizkin, bi gizonak lanean ari ziran bitartean etxea zaintzeko, tabernaria alabarekin ezkontzeko asmoz, alegia. Baiña auekin ere ez uan konpondu. Edan gaiztoa zeukaken berak, eta goiz batean asarretu ta bi gizonak labainka ibilliak itun. Aita-alabak aldegin ziteken andik, eta il zan arte bakarrik geratu uan gure tabernaria. Eta denentzat obe, aren ondoan luzaroan iraungo zuen kristaurik ez uan sortu-ta. Andik aurrera etzin iñongo aterik jo, alperrik saiaturko uan-ta. Berri oiek denak zabaldu ziranean, aren ondora urbilduko zan emakumerik etzin billaturko. Urte asko gaiñean ta bakarrik. Ainbesteazienda mantentzen lan asko, berri. Ardangela, iru bei, bi txala ta iru txerri bazeuzkaken. Bera benetan baldartua. Ibiltzeko ere ez uan asko gauza. Baiña erretirotik eguneroko pollita artzen zuela. Baserrian bizi zuen beste anaiak, diruz zerbait laguntzen omen zioken. Berak ezer ezin zuen ezkerro, Antxo'ko kaiatar bat etortzen zitzaiokeen laguntzera. Ukulloko lanak, beiñepein, arek egiten zizkioken. Ote, txillar ta elmitza besterik ez dan mendi-egal artan, zugaitzik gabea dala badakik, polliki-polliki soro jartzen ari uan. Ez bazan orduan tabernako mutilzaarra il, sekulako bei-taldea jarriko zin kaiatarrak ardantegian. Ura il zanean, kantinarene

jabe ez bazan ere, angoazienda guziak bereak zituela zalantzik etzegok. Orduan azaldu uan illaren anaia, denaren jabe egin nairik. Arek, ainbeste diru aurreratu ziola. Beraz, angoazienda ta puskak bereak zituela. Besteak, berriz, etzekiela ori egia zan, eta agiriak eskatzen zizkioken. Alare, ango aurrerapenak berak egin zituela. Baiña aitortzen zuena egia bazan, ekartzeko paperak eta batere asarrerik gabe konponduko zirala. Elkar-izketaren orde, asi itun bat batera ta bestea bestera istingan edo tiran. Inola ere ezin konpondu. Ezta nai ere. Il zanaren anaiarekin eziña noski. «Iretzat utzi baiño len, dagoen bezela su eman ta kixkaliko dit» esan omen zioen anaiak besteari. Esan ta egin gaiñera. Nork? Etekiagu. Iru-garren bat ere sartu baiziteken or tartean. Bi aurrekin etorri ta aurrean biali zuen emakume ura alegia. Arek ere an bere lanak egin baizituen. Kobratu ez noski. Arrats batean, bada, norbaitek su eman zio-ken. Zegoen bezela, ezer ere atera gabe, azienda guziak barruan zeudela, bertan kixkali uan dena: iru txerriak –ai zer kurrixkak aterako zituzten auek!–, bi txalak eta iru beiak ere bai. Auek ez noski bertan. Bik, amarrak autsi ta iges egin omen ziteken. Baiña ordurako erre ta ondatuak, mendi-egal artan il ta usteldu itun. Orain etzekit auzitara ez ote dijoazen. Gauza garbirik aterako ote da gero? Orixen izan uan aspaldiko kantina txiki orren azkena. Ez dit uste, etorkizunik gabeko lekuan, taberna ura jasotzen asiko diranik.

– Nik portuarra ezagutzen dit. Bestea, zer esanik ez. Lenengoak ez dik olako azio txarrik egingo. Aziendak bereak zizkin gaiñera. Bestea gizatxar xamarra dek. Baiña baserritarra dan ezkeren, ez dit uste, aziendak barruan zeudela, su ematera joan zanik. Len esan degun irugarren arek, emakumeak alegia, baziteken. Baiña susmurra besterik ez.

APARIA

Martxoa izan bear zuen; asteartea. Jaia genduen beiñepein. San Jose eguna, nere iritzian. Ala-moduzko igande ta jai guzietan, galerazia ez bazegoen beiñepein, xoxo-birigarrotara joaten giñan arratsaldeetan. Ori genduen oitura. Parrandarako joera aundirik ez. Patrikak ere geienetan utsak. Nora joango giñan? Mendira.

Askotan zazpitaraiño biltzen giñan. Mendi-inguru aiek bai ederki astindu ere. Egun artan, ez dakit zergatik, lau bakarrak erten giñan, eztanda gaizto egiñak, illuntzerako esan degun taberna txiki ortara bilduz. An eseri baiño len, pote zaarren batzuei tiroren batzuk sutuz, utsegiten zuenak pitxar bat ardo aterako zuen. Ura edanez elkar-izketan ari giñala, urrengo txangoa nora egin ezin baturik, norbaiti ala oroitu zitzaion:

- Aizazute: asteartea jai diagu.
- Ori, ik esan gabe ere bagenekiken.
- Ez didazute ulertu. Gaizki al letorkigukek, egun ortan, xoxo-birigarro auekin, apari-lege bat egi-tea?
- Nortzuk? Kantina txiki ontan?

- Bai; ta eizean ibilli geran laurok.
- Tabernariak naiko al dik? Jende-pulamenturik etzegok emen.
- Galdezka-galdezka, Erroma'raino joan omen litekek.
- Berrogei ta amar xoxo-birigarro, lauren arte jango ote ditugu?
- Bazekit laurentzat geiegi dirala. Sobranteak saldu ta kito. Etzaidak inor deitzea ondo iruditzen. Aukera ziteken, nai bazuten, gurekin etorri. Bestela, kastua berak ordain dezatela.
- Ortan arrazoi dek. Lauren artean egingo diagu.
- Orduan -gerra aurreko kontuak baidira-, arratsaldeetan beinepein, jende asko biltzen zan kantina txiki artara. Aspaldian an bizi zan sendia zegoen ardangela aren buru. Aipatu genion zer nai genduen.
- Lan geiegia zala aientzat, erantzun ziguten, ainbeste xoxo-birigarro lumatu ta garbitu ta jartzea.
- Nai badezute, guk lana erreztuko dizuegu, oraintxe bertan denak lumatu ta garbitu ta prest jarritz.
- Ori egiten badezute, pozik.
- Bostna aukeratu genituen bakoitzarentzat. Ogei ta amar geratzen ziranak, an zegoen batek erosi zizkigun. Aiengatik eman zizkigunakin, kastu guziak ordainduak geneuzkan.
- Bereala, atarira atera ta lumatu genituen. Garbitu ta eskuetara eman. Edaria berex, zenbatean jarriko ziguten, kontuak egin ondoren.
- Zer garaitsutako nai zenduteke? -galdetu zigun.
- Gaur gu sartu geran ordurako.
- Ondo zegok.
- Edan genduena ordainduz, etxeko bidea artu genduen.

Ez genion iñori esan. Ezta etxekoei ere. Ordua iritxi zanean, an azaldu giñan, kazuelkada eder baten kontuak emateko asmoan.

Mai txiki baten ondoan eserita, lenengo lau baso ta pitxar bat jarri zizkiguten aurrean. Ondoren, ketan lurrun goxoa zeriola, kazuelkada maiaren gaiñean. Gure sabela asetzeko aiñako pertzakada bazan ura. Ez genduen azpilla bearrik. Denok ontzi batetik jaten oituak geunden orduan.

Ortarako, kantineak ar-leku txiki batzuk bazituen ardangelatik gordean. Alako batean geunden gu laurok bakarrik, jendea zegoen aldeko atea itxi ta aien begietatik izkutuan, maiaren inguruan jan da edanez lasai asko, guk oitu bezela, orduan ere eizeko gorabeerak kontatuz. Noiz ez giñan ala aritzen?

Iñor besterik sartuko etzitzaigulakoan pakean ari giñala, ez dakit nondik ikasi zuen, or sartu zaigu mutil gazte bat. Sailleko iruk ez genduen ezagutzen. Bai, ordea, laugarrenak. Apaizgaia zan au, egun batzuk pasatzera etorria.

– Au etortzea baiño, naiago nin katamotz bat aurrean ikusi. Nork esan ote dio gu emen aparitan ari gerala?

Sartzen zan lekuan etzuen okasioa besterik sortzen. Griña gaiztoko mutilla. Me, luxaxta, igar bat. Euskalduna, baiña euskeraren etsaia. Emengo jendeak, batez ere abertzaleak, begitan zeukatena.

Falanjea omen zala zion apaizgaiak. Guk oraindik ez genekien zer esan nai zuen orrek. Baiña arek esan zigunez, Euskadi'ren zanpatzaillea.

– Gudazale amorratuak dituk auek.

Atea zabaldu ta lotsa gutxirekin, iñork deitu gabe sartuta, «Gabon!» esan zigun.

– Baita iri ere.

– Etzerate gaizki bizi.

– Ez, motell, Jaunari eskerrak. Osasun bikaiña zeukagu, biotza pakean, ezer askoren irrikarik ez, berriz. Baiña guk egiñetik ari gaituk jaten. Geron nekeak kostatzen zaizkiguk au moldatzen.

Arek etzion orri erantzun. Bestek egiñetik bizi baizan bera. Lan-izpirik egin gabe, naiko dirua zebilkien. Beste bide batetik joan nai zuen.

– Emen, ezkutuan, Jainkoak zekik zuek zer itzegiten dezuten eta zer moldaketak ari zeraten egiten.

– Burura etortzen zaiguna, Jainkoaren aurrerako ez bada zikiña beñepein. Nai deguna itzezin, eskubide osoa zeukagu. Baiña ez ire atsegiñekoa.

– Bai, bai. Ez dizutet ezetzik esango.

– Goseak etorriko intzan noski ta Pernandorena esango diguk.

– Zer Pernandorena?

– Arek ere, ik orain bezela, lau gizon kazuelkada baten aurrean ikusi omen zizkin, itzegiteko ere betik artu gabe jaten, taberna txiki batean. Berak ere an parte artu nai ta serio-serio ala esan omen ziken: «Ez dakizute gure auzoan zer gertatu dan?». «Zuen auzoan edozer gauz». «Bei batek bost ume egin, ta ama gaixoak lau titi besterik eduki ez». «Orduan, bostgarrenak zer egiten dik?». «Nik orain egiten detana: begira egon».

– Gizon arrunt oien esanak etzidatek onik egiten. Ni, gainera, ez nauk jatera etorri.

– Arruntak, baiña jakintsu asko baiño azkarragoak.

– Erderazkoak olako milla bazeudek.

– Etxeko potajea ta pitarra onak dituk batzuentzat. Baiña iretzako ez.

– Goseak nabillela uste al dezute?

– Ez, motell, ez –zion apaizgaiak–. Bazekiagu gudaren zabalkundea egiteagatik ondo saritzen aute-

la. Ire antzeko geiago ere bazebiltzak. Nondik ateratzen ote dira diru oiek guziak?

– Saiatzen danak billatzen dizkik olako lantegiak.

– Bai. Arrazoi dek. Lantegi guzietan tongo egiten dutenak zebiltzak. Ortarako balio, ordea.

– Bakoitzak zekik bere bizimodua aukeratzen. Ik ere atxurrean aritutako itxura gutxi daukak. Esku txuriegia dituk oiek ortarako.

– Elkarrekin asi giñun. Gurasoen nekea frutua ematen ari dek neregan. Ik iruzur egin diek. Andik ez baizetorren iretzat saririk. Ni ere ez nauk atxurrean asko aritua. Ortan arrazoi dek. Baiña nere nekeak zeramazkit, artu detan bidean aurrera jarraitzeko. Gaiñera, ni pakearen billa nabillek. Ez niñuke bestela apaiz egingo. Okasio-jartzaille ugari bazebilllek gure inguruan.

– Nik bizimodua errex ateratzen detala, ezin eramana al daukazute?

– Ez, motell. Gaizki egiteagatik sari ona jaso ta besteren lanaren bizkar bizitze ori, ez dek legezkoa.

– Baiña ni saritzen nauten aiek jarriko dizkitek lege berriak, eta zuzen askoak. Gaiñera, aiek laxter moztuko dizkitek emengo iskanbillak.

– Nor dituk oiek?

– Laxter sutuko duten guda agian irabaziko dutenak.

– Ez dakik noiz erasoko diguten. Ekingo badigute ere ez. Nork irabaziko duen ain gutxi. Ik baiño pulamentu geiago ez badakarte, lekutan geratuko dituk. Alare, sube gorriak ixuri dik bere zitala.

– Nik egia ziot.

– Ik ez dakik ezertxo ere. Baiña ori dek ire eguneroko ogia. Ere-eretik ari aiz. Nork eraso bear ziotek nori, ik dioken guda zikin ortan?

– Militarrak, beste askorekin batera, zuei.

– Iri ez. I oietakoa aiz orduan? Obe litekek pake-rako bideak egingo balituzte.

– Arrunt aseak zeudek, onenbeste opor, noiznai ta nonai eriotzak. Ezin lezakek onek orrela luzaroan iraun, konbentuak ere erretzen ari dituk eta.

– Eta, i bezela, kolperik egin gabe sari-orde erria nasten ari diranak, besteren bizkar biziz, ontzat artzen al dizkitek? Ik ez diok, bada, erriari irabazi aundirik ematen. Ik dioken gizon-iltzaille ta konbentu-erretzaille oiek nor dituk? Ire antzekoak noski: gudaren zabalkundea egiten, nai ta nai-ezkoa dala, ez dagoela ortara bizitzerik, jende ezjakiña iruzurtuz, eraso ta dena txikitu dezaten, emen agintzen jartzeko. Lenengo, ik eta ire gisakoak joan bear litekek aurretik. Erri ontan pake ederra zeukagu. Ez ditek konbenturik erretzen. Oiengatik ajola gutxi iri, sinismenik ez dekan orri. Emen eziña, indar gutxi baidaukazute. Ez dik Euskadi'k gudarekin asko irabaziko. Gure bertsolariak laxter igerri ziotek:

Gerrik onena baiño obea
degu pakerik txarrena.

– Bertsolariak, ai zer nolako maisuak!

– Oiek erriaren mezulariak dituk. Emen bizi geranon naia, jendearen iritzia, kantatzen dutenak. Kioa besterik ez dagiten ego aldeko oiek al dituk gure maisu?

– Aiek jabetzean, emengo bertsolariak muturik gelditu bearko ditek. Oso mee ariltzen ditek militarak.

– Orduan, lenengo i eroriko aiz. Eultz batean ere, langilleak, bestek egiña jan ta bizi dan erlemandoa bota ta il egiten dutela ez al dakik?

– Beren aldekoa niotek ni! Beren aldekoa!

– Baiña alper galanta. Lanik egin gabe besteren bizkar bizi danik ez al ditek ontzat artuko!

Joakin -apaizgaiak izena ala zuen- asi zan pazientzia galtzen, eta amorruez ala esan zion:

- Motell, eseri adi ta jan zak gurekin batera, bostentzat aiña bazeukagu-ta. Baiña guda zikin ori etzaiguk aipatu ere, buruko miña egiten zidak eta.

- Orain buruko miña egiten badik, gero izango dituk kontuak. Nik etzeukat zer janaren paltik. Gaiñera, zuek bezelako abertzaleekin etzeukat zer ikusirik.

- Zertarako sartu aiz orduan onera: biotzean dabilkiken guda madarikatu ori sutzera?

Etzion galderari erantzun. Bazirudien zer ozpin ixuri ikasia zetorrela. Arek, asitako aritik jarraitu nai zuen. «*Ex abundantia cordis os loquitur*» ebanjelioak dion bezela.

- Ez dituzute olako apari asko egingo. Zuen ikurrin ta mendigoizale-galtza oiek gorde bearko dituzute betiko.

- Orduan, zuek ondo bizitzeko, gu larru gorrian uzteko asmoan zerate?

- Ez. Baiña abertzale-kutsua daraman guzia moztu. Ori bai. «Agur» ori ere betiko utzi bearko dezute.

- Eta euskera ere bai?

- Jakiña. Ori lenengo. Ekitera dijoazenak gorroto ikaragarria ziotek orri. España bat egitezkeroz, nai ta nai-ezkoa dek denak izkuntz batean mintzatzea. Erakustea zearo galeraziko ditek.

- Len ere ederki galerazia zeukatek.

- Oraingoan, idatzitako liburuak ere kixkaliko dizkitek.

- Satanas al zetorrek, bada, bere deabruekin? Ire gurasoak ere latinez ikasi bearko ditek, beste izkuntzik etzekitek eta.

- Aiek bizi diran arte iraungo dik noski, baiña gutxi geiago.

- Onuzkero erderaz mintzatuko aiz aiekin?
- Astoa aleena! –erantzun zion–. Baiña polliki-polliki ikasiko ditek. Ez dituk orren ezjakiñak eta tontoak.
- Etziotek, bada, semeari izugarrizko talenturik erantsi.
- Egi auek ez dituzute entzun nai, baiña laxter beteko diranak.
- Garai bateko igerleak bezela aiz orduan i, Jainkoak bere naia gure artean zabaltzera bialia.
- Ori esanta, bat-batean zutitu zan apaizgaia.
- Gure pazientziak ere badik neurria. Aldegin zak emendik. Bestela, arrastaka aterako aut. Ire adar-jotze ta lerre zikiña ixuritze orrek etziguk bate-re onik egiten, gure gutunik maiteenak galdu nairik dabillen oietakoa augu-ta.
- Ni, nai detan lekuan egongo nauk.
- Ortan arrazoi dek. Baiña ez biraoka ta pake-pakean ari geranoi isekaz.
- Nik zer itzegin bear detan ere, ik agindu bear al didak?
- Emen ez dik iñork ire birao-zerrenda ori entzun nai, eta eseri adi gurekin jatera edo oa ire sube gorrien kabira.
- Ik ez didak aginduko nik non ibilli bear detan.
- Apaizgaiak etzion itzik trukatu. Bat-batean zutituz, bi beso-ondoetatik atzera artuz, arrastaka atera zuen gela txiki aren barrendik.
- Tabernaria ere sumindua zegoen. Kanpotik entzuten baizituen aien elkar-izketak. Igandero bere okasioa jarri arte etzan ixiltzen, gaiñera.
- Zital arek pistola txiki bat eduki berekin. Ura ateratzen ari zala, oartu zan tabernaria. Eskutik kendu zion eta berak gorde.

– Ekatzu neri ori –eskatu zion gudazaleak–, tiro bat eman bear diot nik orri-ta.

Ori entzun zutenean, beste irurak laxterka atera ziran kanpora. Eskerrak apaizgaiari. Biotz onekoa izaki. Arek galerazi zien. Bestela txikituko zuten.

– Utziozute pakean. Ez eskuak orrekin zikindu.

– Biar joan adi Altza'ko auzitegira, ta an emango ditek pistola au –esan zion tabernariak.

– Au ez dek ortan geratuko.

– Ortan atera aizenean, baagoke kontentu.

Isatsa zapal dutako sube gorria bezela aldegin zuen andik. Txiki milla puska egin etzutenean, kontentu zeuden apaldarrak ere.

– Urde orrek gure aparria ozpindu ziguk.

Sartzen zan lekuan, non edo andik okasioa zerman arek.

Guda aurretik olako batzuk ezagutu nituen. Ez denak au bezin erretxiñak. Etsaiak sartu ziranean, etzuten kalte txikia egin.

ANTTON ETA JOAKIN

Antton zuen izena, falanjea zala-ta gudazalea. Besteak, berriz, Joakin. Biak apaizgaiak joan zan urtera arte. Auzoak eta lagun maiteak. Baiña gudazalea biali egin zuten, apaiztegian falanjetarren eta gudazaleen zabalkundea egiten asi zalako. Aldez aurretik aolku on bat eman zion Joakin bere lagunak:

– Utziok, motell, lan orri, emen ez dek zillegi-ta. Biali egingo aute.

– Nik iñori kalterik egiten al ziot?

– Deabruak ez likek besterik erantzungo, egiten duen lanagatik. Kalte? Mesede baiño geiago, motell. Orain arte etxe ontan pakean bizi gaituk. Baiña ire iritzira batzuk makurtzen badira ta besteak ez, bada-ki nolako gerra sortuko duten gure artean.

– Ori nai dit, bada, nik. Arrazoa non dagoen ikasi dezatela.

– Guk artu degun bizibiderako gaizki zegok ori. Denentzako egingo baigera apaiz. Alderdikeritan asten bagera, berriz, ez al dek pentsatu nai zer gertatuko litzaken? Eliza bera ere ondatuko genikek.

– I ez al aiz abertzale?

– Bai. Nere iritzia ori dek. Biotzak ori eskatzen

zidak, euskaltzalea naizelako, erria euskalduna dek-eta, baiña neretzako. Alare, ni ez nauk, egokiera detanean eta ez danean, zabalkunde ori egiten somatuko. Pakea dek nik nai detana. Iri ere ez dik iñork galeraiziko falanjeen iritzia edukitzen. Baiña gorde zak ixilik. Bestela, biali egingo aute.

– I ere praketan sartu adi, bai, ta nik aukeratua zeukat nere bidea. Geroak erakutsiko ziguk nor zebillen egiaren atzetik.

– Or konpon ire iritzi berri oiekin!

Eta autsi zuten biak.

Udarako jaiak igaro ta apaizgaitegira joaterakotan, ukatu egin zioten sarrera: etzala apaiztzarako ona –talentu motxekoa zan gaiñera–, ta itxi zizkioten atekak. Joakiñi eraso zion, onek salatua izango zala-ta.

– Nik bein irekin autsi nuen ezkerero, ez nauk ire arazoetan naasi. Zer uste dek: gaiñetik dauzkagun begiratzailleak itxuak dirala?

Beraz, bat barruan ta bestea kanpoan geratu ziran.

Ordurako gudazale oiek beren sarean zeukaten, ondo saritua noski. Oien iritzien zabaltzaille, Euskadi, euskera ta beste gure oitura maitagarriak ukatu zituen betiko. Billaukeria alegia. Ogei urteko gazte bat, euskaldun garbia. Bere guraso ta anai-arrebak ezbekiten euskera baizik. Denak abertzale ziran. Bera bakarrik benetako etsaia. Gorputz egokia zeukan, baiña aul xamarra.

Joakin ere, bitarteko gizona, baiña bestea baiño ondotoz sendoagoa, ta zaulia ta zintzoa. Onek apaizgai jarraitu zuen. Au udarako jaietan etortzen zanean, bere ikertxoa egiten zion gudazale oni. Onek, berriz, betiko leloa. Alare ondo artzen zuen.

– Motell, motell! Bazterrak txikitze, gudaren

zabalkundea egiteko baiño bide oberik ez al dek arkitzen ire bizimodua ateratzeko? Deabruen lana dek ori.

– Lantegietan beti norbait badek gaiñean, arnasa artzen ere uzten ez dikena. Emen, berriz, illero-illero txeke txiki bat bialiko zidatek, nondik ez dakidala. Ura kobratu ta kito.

– Eta kontzientziak ez al dik alako zimikorik egi-ten?

– Ori ixildu erazi nin. Mezetara, bai, joaten nauk. Ori ez dit utsegingo.

– Aizun ta itxurati ederra aiz orduan. Zer balio-ko dik ire mezak, lagun urkorik ez badek maite? Ori dek bearrezkoena. Kontzientziari ere lo arrarazi diokela? Ori zailla dek, motell. Egunen batean esnatuko zaik.

– Urkoak maite? Ostiko besterik eman al zidatek orain arte?

Orrelaxe berexiko ziran. Baiña Kantinako aparria ezkerro, etzan Joakiñekin itzegitera ausartzen. Autsi zuten, bada, betiko. Bakoitzak bere bidetik jarraitu zuen.

Falanjea zer zan oraindik erriak ez bazekien ere, Joakiñek ondo ikasia zeukan. Lagunak erakutsi zion. Onekin topo ez egiteagatik, iges ibiltzen zan Antton.

Onek arazo batzuetarako buru argia zuen. Etzan kendutako armaren eske joatera ausartu. Baiña epai-llak deitu ta auzi egin zion. Illabete batzutarako zigorra eman ere bai.

Ura espetxean zegoela, gudak eman zuen asiera. Baiña nor nor zan galdezka ibilli gabe, atepak zabaldu ta denak aske biali zituzten, bein gorriak Donostia'ren jabe egin ziranean. Ikusi zuen Joakiñek etxera etortzen. Bereala galdu zan andik.

Gero, batzuek ziotenez, gudarozteak Loiola'tik Gobierno Militarra artu nairik eraso zionean, an

omen zegoela, aien ekin-aldiari laguntzen, Donosti'ko Ekitatiba'n. Andik ere, etsaiak oartu baiño len iges egin omen zuela. Ez, ordea, bakarren batek ezagutu gabe. Askok zuten ezaguna ta gorroto zioten. Bai arratsalde batean arrapatu ere ezker aldeko jende orrek. Etxera etorri ta bazeramaten, oitura zuten bezela, ezkutura eraman ta Jainkoa beste leku-ko gabe an iltzeko asmoan.

– Guda etorri dek, baiña iretzat kalterako. Donostia'n ere, erriaren kontra tiroka aritu intzan –esan zioten baitzailleak.

Besteak oraindik sartuko ziran itxaropena bazeukan. Baiña beretzat alperrik izango zan. Ezkutuan ez egotea ez du ondo egin.

Bere anaiak oartu ziran. Aietako bat, laxterka etorri ta gertatzen zana esanez, Joakiñen etxera joan zan laguntza eske. Auek, apaizgaia ta bere anaia gazteagoa, eskupetak artuz, bazekiten agian Subegorria beren kalterako salbatuko zutela, baiña joan ziran, etxeakoak eta guzi, seitaraiño; ta aurea artu zieten iltzailleei, gogor egiteko prest.

– Nora daramazute ori? –eraso zieten.

– Orixe galdera! Iltzera. Guk ez diagu subegorri-rik bizirik uzten. Onek ere ez dik merezi. Beti guda-kontuan jardun zaiguk. Orain, Donosti'ko erasoan, militarrek babesten an izan dek, neronek ikusia. Ika-si dezala bere larruan, zabalkundea egin duen guda ori nolakoa dan.

– Baiña norbait il al dik-edo?

– Ori etzekiagu ziur. Baiña naiaren paltan ez uan geratuko.

– Utziazute pakean. Gure anaia dek eta gixaixo bat besterik ez.

– Bai. Gixaixo ona zegok au. Olako ero gaiz-toekin, aldez aurretik zeudek neurriak artu bearrak.

Batzuek il nai, besteak ezetz. Gipuzkoa'n ez-

tabaida ori maiz izan zan. Bi aldeetan baziran armak. Baiña sei beren eskupetakin aurrean ikusirik, iltzailleak atzera egin zuten. Arengatik etzuten besteren odolik ixuri nai.

– Eraman zazute, eramán! Etsaiak salbatzen ari bazerate, oraindik ederki damutu bear zaizute, inguratuak gauzkaten auek sartzen badira.

– Zuek ere obe zenduteke, arma oiekin emen ibilli baiño, aurrera joango baziñate.

– Bai zuek ere, auek salbatzen ibilli baiño. An denentzat zegok lekua.

– Emaizkiguzute zuen pusillak eta oraintxe joango gaituk.

Antton, beiñepein, bere biziaz etsi ta gero, aske geratu zan. Baiña etzion iñori eskerrik eman. Bereala ezkutatu zan andik. Etsaiak Gipuzkoa'n sartu ziran arte, etzuen iñork ikusi.

Il nai zutenak erdiz-erdi asmatu zuten:

– Oraindik damutu bear zaizute ori salbatua.

Subegorria etsaiakin batera sartu zan, ozka egiteko asmoan gaiñera.

Joakin, apaizgai ta biotz zuzenekoa izaki ta etzan ezertan naastu. Etzegoen arentzat garbi batzuen ta besteen joera. Bi aldeetan zebiltzan gaiztoak eta onak. Etsaiak sartu ziranean, bada, etzuen aurrera joateko ausardirik izan. Etxean arrapatu zuten.

ERASOA

Zoritzarrez, sartu ziran egundo etorri bear etzutenak; eta aiekin batean, garaille ta arro, Antton, Subegorria, on egin ziotenei esker eman ta babestu bearrez, zigortzeko asmoan. Etxera egin zuen lenengo sarrera. Bere gurasoetara, alegia. Sortu ere bai aitarekin lenengo eztabaida. Bere senide-partea eskatu zion, etzala geiago etxe artan biziko-ta.

– Motell, ik egin dekan lanagatik ez dik baserri onek gorako aundirik egin. Apaizgaitegian ere gure bizkar. Guk uste baiño diru geiago zurrupatua aiz. Nere emazte ta seme-alaben berririk gabe ez niek iri zentimorik ematera. Gure aurreratutako pixarrak zabaltzen asten bagera, etzaizute bakoitzari amarna duro geratuko. Sartu diran berri auek ere ire antzekoak badira beñepein, beldur nauk ez ote gaituzten larru gorririk utziko.

– Oiek ez dira aitzakiak besterik.

– Nondik ateratako semea augu, aitari erantzun oiek emateko? Etxea ez dek gurea. Errenta ere ordaindu bearra zegok. Dirutan ez nauk bosteun pezetaren jabe. Aziendak saltzen ezin asiko gaituk, bada...

– Oiek danak kenduko dizkizute.

- Orren goseak sartu al zerate?
- Guda irabazteko bear degu.
- Orduan zuek bakarrak daukazute bizitzeko eskubidea.

Aita bakarrik zegoen etxean. Alare, asarre aurrean jarri zitzaion, bere eskariari uko egin ta txarrean asten bazitzaion ere, aurpegi emateko prest.

- Zer uste dek: ni bakarrik nagoela ta beldurtuko naukela? Oraindik ere aitaren ankapean geratuko intzake i.

Orduan semeak ixil-ixilik aldegin zuen, esanez:

- Arazo au obeto pentsatuko det.
- Nai dekan bezela pentsa zak. Baiña ez dek emendik nik emandako zentimorik eramango. Guk ere bizi bear diagu.

Bazkaltzera bildu ziranean, aita urduri ta asarre xamar arkitu zuten. Zer gertatzen zitzaion galdetu ziotenean, seme biurriak zer eskatu zion kontatu zien. Sumindu ziran.

- Zer egin du orrek emen? Irabazia berak jasotzen du. Apaizgai-etxean, berriz, ezer egin ez eta kastatu. Berak kolperik jo gabe, gure bizkar bizi da. Orain ondarearen eske asi?

- Emen etzegok ezer ere, azienda ta lanerako tresnak besterik. Orri dena eman ta larru gorrian geratuko ote gera, bada?

- Entzun det -zion semerik zaarrenak- aberztale-otsa daukaten baserritarrei munta kentzeko asmoan datozela.

- Izugarriren bat ez bada, ortatik burua jasoko diagu. Aziendak ere kenduko dizkigula esan etzidak, bada, seme txatxu orrek, arek neri eraso didan gisan, indarrean gure gauzak eraman nai balitu bezela? Obe dik atzera egin duen. Bestela, laxter ikasiko zin, txarrean asi balitz, oraindik ere aitaren mendean geratu bearko zuela. Etziguk pakean utziko.

Etxeko guziak bat egin zuten. Baiña urduri geratu ziran, salaketa gaiztoaren bat egingo zien beldurrak.

Joakiñekin ere topo egin zuen Anttonek. Subegorri baten gisa eraso zion:

– I ere emen?

– Zergatik ez? Ez al gaituk, bada, emengoak? Edo euskaldunak bota ta beste urrutiko oiek ekarri nai dituk?

– Euskadi? Sekulako utzi bearko dezute izen ori.

– Orain artekoak arkaitz onen aurrean lertu dituk. Ondorengoak ere beren arraixkua izango ditek. Ire arrokeriak lenago joango dituk, bai, mundu ontatik, Euskadi baiño. Gixaixo petrala aleena! Jainkoa ote augu?

– Oraindik ere arro mintzatzen al aiz?

– Ez. Jainkoaren aurrean bezela, txapela erantzi ta belauniko jarriko gaituk barkazio-eske.

– Etzenduten ni berriz etorko nintzanik uste, ez. Baiña ni garaille sartu.

– Motell, guri zor diguk. Guk ez ikusia egin bagenduen, ireak egin zin. Bada ez bada ere, esker onez ire salbatzailleak babestera ez aiz etorri. Esker gaiztokoak munduan badituk; baiña i aiñakorik ez.

– Babestu? Tabernatik arrastaka atera erazitako lotsa ondo gogoan zeukat. Ordaindu bearko didak, interes ta guzi gaiñera.

– Interes ta guzi diok? –Joakiñek lepa-zamarretik atxitu zion–. Motell, oraintxe baiño aukera oberik... Txarra bakarra oroitzen al zaik? On egiñak ez al dik iretzat meriturik? Esan ziguteken, bai, i il nai iñutenak: «Subegorria bizirik uztea oraindik ederki damutu bear zaizute». Erdiz-erdi asmatu ziteken. I ator noski denen nagusi, lagundu bearrean, galtzeko asmoan.

– Ni, beiñepein, arraixku guzien artetik garaille natorrek, eta azkena irri egiten duenak, bi aldiz egiten duela ziotek.

– Aixa diok ori. Amaika gora-beera ta larri estuak igaro bearko dituk oraindik. Dena bukatua da-goela uste al dek? Iñork ez dik azken irrik egiten Jainkoak baizik, ala esan baliteke, denok azkenean aren eskuetatik pasa bear diagu ta. Agur, motell. Ez dit txarrik opa.

– Gorde zak «agur» zikin ori sakelean.

– Itz orrek sumintzen baau, amaika tripa-jate eraman bearko dituk. Makiña bat aldiz entzun bearko dek. Nik, beiñepein, iri ta beste edozeiñi esango ziot «agur». Asmo gaiztoakin ator. Neron enperadorearen iritzikoa izango aiz noski i ere.

– Nolakoa uan aren iritzia?

– Ez al uan apaizgaitegian ikasi? Izan ere, politika besterik bai al uan orduan ire biotzean? «Ai, erromatar guziak lepo bat baluteke, ura moztu ta denak batera iltzeko!» omen zioken arek. Uste baiño aurrerago sartu gabe, bukatuko dituk ire petralke-riak ere, eta iretarren iguingarri. Agur, motell, ta ondo izan!

Eta txuxenean kantina txikira joan zan, tabernariaren berri jakitera, subegorriak ozkarik egin ote zion-edo.

LARRI

Damutu zitzaion ara urbildua. Bertara baiño len buelta eman ta iges egingo zuen edo ez zalantzan ibilli zan, baiña beranduegi. Oartu ziran. Ordurako ikusia baizuten. Eta iges abiatzea okerrago izango zan beretzat.

Kantina Txikia soldadu, txapel gorri ta beltzez betea zegoen. Orduantxe zijoazen Donosti alderako martxan. Tartean baziran guardiazibillak eta kargu artu zioten:

– Zer abil i emen?

– Emengo nagusiaren laguna naiz eta ikertxo bat egitera nator.

Orduan tabernaria sartu zan. Arek esanta ikasi zuten apaizgaia zala, ta ziur bazekiela etzala ezertan ere naastu. Udara aldean, ardangelan lan asko zeukatenean, berari laguntzera etortzen zitzaiola. Au gezurra zan, baiña eldu-leku ona.

Ori jakin zutenean, pakean utzi zioten. Baiña baziran an ere Anttonen antzeko batzuk, zirika asi zitzaizkionak:

– Zergatik ez aiz boluntario sartzan?

– Etzeukat zertan joanik. Nere kinta deitzean, billatuko nauzute.

– España askatzeko gogo gutxi daukazute. Zuen Euskadi ori dek nai dezutena.

Etzegoen ortan asterik, goxoak zetozen eta. Ala erantzun zien:

– Bestela ez nintzan emen geratuko, berdin badakit nere kinta deitua dagola ta.

Damutu zitzaion milla aldiz aiek an zeudela sartua. San Pedro Sanedriñean bezela artu zuten, etsaiak beren erdian. Alare, eskerrak beren martxan joan ziran eta pakean utzi zuten.

– Motell, beldurtu nauk zerbait egingo ote ditek. Suminduak zetozek, jende asko galdu dutela ta, beretako batzuek esan didatenez. Or ere ez ditek denak berdin pentsatzen. Txakurra baiño ajola gutxiagorekin gizonak iltzen oituak bazeudek batzuk. Odolak ere mozkortu egiten.

– Eskerrak asko ziran. Bata bestearen errespetoz, ez naute galderaka estu artu. Iru edo lau bakarrik izan balira, gorriak ikusi bearko nituen.

– Bai. Benetan gaiztoak zetozek, len ere esan dit, Oiartzun alde ortan sekulako jipoiak artu dituztela ta.

– Eta zuri pakean utzi al dizute?

– Auek bai oraingoz. Salaketa gaiztoren bat ez badigute egiten, ez dituk gurekin sartuko. Baiña beste ori ere izan dek.

– Zein: Subgorria? Salatu zaituzte orduan?

– Bai, ta Anttonek. Bere lau borrororekin, urdin edo beltz-urdiñez jantziak, txapel txiki bat borla gorriarekin, Jainkoak zekit nongoak izango ziran, nere billa etorri itun illunbistan. Igerriko diok noski zertarako asmoan.

– Gudate batean, eta auek bezela minduak dau-denak, musu ematera ez beiñepein.

– Nere billa zetozeela esan zidateken. Nerekin asiko zirala. Baiña urteetan goiko guda-gazteluan bizitako kapitana, nere ezaguna, beste militar batzuekin emen zegoken, Jaunari eskerrak. Arek laxter igerri ziozen zertara zetozen, eta ala galdetu zieten: «Zer dezute onen aurka?». Guda aurretik, emen zebillen falanje gazte bati pistola kendu omen ziola, sortu zuten okasio batean, eta Udaletxera eramanez. Orrengatik, bi illebetek luze espetxean igaro zituen arek. Nik kontatu nieken gertatu zan guzia, eta kapitanak ala erantzun zidaken: «Nik ere, zure lekuan egon banintz, beste orrenbeste egingo nion. Nork eman zion ari armarekin ibiltzeko eskubidea?». Orduan pakean utzi zidateken. Baiña oraindik ez nauk lasaitu. Egunez ez dituk sartuko. Baiña arratsean ez dit etxean lorik egingo. Ta i nola geratu aiz, aurrera joan gabe?

– Ez det bi aldeetan oraindik ezer garbirik ikusten. Alare, pakean sartu dira. Gero ondorenak ikusi bear. Gizona illagatik ez dute soñekorik urratuko.

– Eta kintetan deitzen baaute?

– Ori ziur badakit, eta laxter. Bitartean, auen berri ikasiko det. Aldegin nezake orduan beste alde-ra.

– Eta etorri dan Subegorriak, pakean utzi al dik?

– Zurekin ezertan sartu ote dan, orixe jakitera etorri naiz.

– Bera ez dek agertu, baiña bere antzekoak biali zizkidak.

– Nik ere, bada, arekin itzegin ta txuxenean onera azaltzea egin det, zure berri jakitera. Nik emen eman nion lotsa ez daukala aztuta; laxter ordaiñak artuko ditudala. Lepa-zamarretik elduta, ala esan diot: «Orain baiño aukera oberik...» Eta marmarrean joan da.

– Orduan erne baabilke.

– Gaurtik aurrera ez det nik ere etxean lorik egingo. Bere aitarekin ere benetan asarretua izan bear du. Senipartea eskatu omen dio.

– Petrala aleena! Nor dala uste ote du orrek?

– Ori ez dabil lengo lagun xaarrak salbatzeko asmoan.

– Orduan zemai eginta joan dek?

– Bai. Ala egin dit. Bere etxekoei ere bai. Urduri geratuak dira.

– Ori ero gaizto oietakoa dek, garaille ta arro azaldu dana. Armatua gaiñera. Ikusiko diagu zertaraiño irixten dan. Ez dek atsegin izango orrekin.

– Orain jakiñaren gaiñean nago ta eskerrik asko. Agur, tabernari. Denok orren beldurrak, ala zankoa! Ez nabil ni emen seguru.

– Ez, motell, Ez i ta ez ni.

– Nai nuana ikasi det, zer erabaki artu jakiteko.

– Orixe bera egingo dit nik ere. Boluntario auekin erne ibilli bearra zeukagu.

– Subegorria, beraz, ez dago lotan.

Eta bide txigor batean beera sartu zan bere etxe aldera.

JOAKIÑEN IGESA

Tabernariaren aolkua etzeukan aztuta:

– Erne ibilli adi, Subegorria etzegok lotan ta. Iri ere ikertxo bat egin naiko dik.

Andik txuxenean errira jetxi zan –eskubitarra izan arren salkeririk egingo etzion lagun maite bat bazuen an–, arekin itzegiteko asmoan. Berez lege-gizona, benetan gutxi bezelako zuzena. Itz-biderik ez emategatik, bere etxean artu zuen.

– Emen geratu al aiz, Joakin? –galdetu zion.

– Bai. Joan diranen martxak ere ez dit, bada, biotzik asetzen.

– Ez, Joakin. Baiña sartu zaizkigunak ere ez. Iru egun dituk etorri dirala. Alare, lau erritar badizkitek ixilik eramanak. Zuek Subegorria deitzen diozuten ori, Antton alegia, deabru guziak berekin dituen oietakoa dek. Etzebillek bera, baiña orrek esaten ziek nor nor diran, arratsean artu ta garbitzeko. Erne abil, batez ere beren sarrerako jai auek ospatu ta aurrera aldegin bitarte.

– Orduan bazterrak naasten dabil gure auzo ori?

– Bai; baiña ez dek bakarria. Geiago ere salaketan somatu dizkit. Iri ere sartu ditek ikaragarria.

- Jakiña, Subegorriak.
- Bai; badakik erri ontan bost erreketek arrapatuta il zituztela.
- Bai. Ikasia naiz.
- Oiek iltzen ik parte artu uala.
- Urdea aleena! Ori salbatzeko bestetarako ez det artu nik armik eskuan.
- Bai. Bein eskuetara ezkerok, Justiziak epaitu bear dik. Baiña baabilke erne. Salaketa ikaragarria dek ori.
- Orduan etzenduen uste auk orrelakoak ziranik?
- Gutxi gora-beera bai. Politikak sortzen dituen gudak, gorrotoak ekartzen dizkik. Emen ere ori zebiliek; eta militarrek sartu ezkerok, sarraskia seguru.
- Orduan nere lekua ez dago emen.
- Bizia maite badek, ez. Baiña bi aldeak zebiltzak berdin. Auk ikaragarriak egiten badituzte, besteak ez dituk atzetik gelditzen.
- Ori dena jakin banu, ez nintzan emen geratuko.
- Len ere esan dit: obe dek aldegin edo ezkutuan egon.
- Eskerrik asko. Etzaude zu politikak itxutua. Badakizu bakoitzari berea ematen.
- Neretzat, txuria il edo gorria, Jaunaren aurretarako pekatu berdiña dek.
- Arek gordean egoteko esan zion. Andik txuxenean etxera etorri zan. An ere bere kontuak artu bearrak zeuzkan.
- Egun guzian, txakurren zaunkara belarriak txutik jartzen zitzaizkion, eta segurutik begiratu, inguru artan iñor estrañurik ikusten ote zuen. Bera non zebillen zeleta egitera etorria ere izan zitekela norbait. Bazkaltzeko garaian ere, alakorik balitz, leiotik jauzi

egiteko errextasunak jarriak zeuzkan. Aita oso gaixo zegoen arreba baten etxera joana zan. Apal ondoan, –goiz xamar egiten dute baserri askotan aparti-merienda deitzen zaiona–, ala esan zion Joakiñek amari:

– Mendiko txabolara noa lotara.

– Beldurrak al abil?

– Bada ez bada ere, ez det ustegabekorik nai. Tabernaria larri-larri ibillia da. Lendik ezagunak zituen eta Kantina Txikian zeuden militar batzuek salbatu dute, auzoko Antton petral orrek salatuta. Ni ere zearo begitan artua nauka; eta, bera gordean dala, bizien artetik eraman naiko nau.

– Iltzera zeramatela etzenuten bada salbatu?

– Bai. Baiña on egiñaren eskerrik ez du orrek. Aitari ere eraso omen zion atzo, azienda guziak jango zizkiotela zemai egiñaz. Arek ortzak erakutsi, berriz. «Zerbait aizela uste badek ere, oraindik aitak bilduko au. Aldegin zak nere begien aurretik!» –esanta biali zuen. Kantinan gaizki atera zitzaion. Aitak umildua utzi du. Orain neri erasoko dit, ea bat bederenik asmatzen duen. Gorroto bizia baidit.

– Etzekit zergatik.

– Ez bainau bere iritzietara makurtu. Ez bagera geiago etortzen ere...

Aundiak eta txikiak besarkatu zituen.

– Baldin oiek emen azaltzen badira, Bidaso'z aruntz egin bearko det iges, al badet beiñepein.

Ama ta anai-arrebak goibel ta negarrez utzita, mendiko txabolara joan zan, andik etxea gainbeera artzen zuela. Ondo pentsatu ta gero, an ere etzegoela seguru barruan beiñepein, bazitekela Subegorria zeltan egotea, ta etzan txabolara sartu.

Illundu ta bereala, bide zabaletik bere etxe aldera artzen zuen bide-gurutze batean somatu zituen bost gizon. Zalantzik gabe, bat Subegorria zala.

– Ire burua gordeta ari aiz ere jokoan, baiña alperrik. Ez niotek etxean, ta txabolan ere, arkituko.

Andik noizbait, bera goitik begira zegoela, txabola inguratu zioten. Subegorriak zeleta egin zion. Ez, ordea, barruan edo kanpoan zegoen jakinki, eta aoa bete ortzekin utzi zituen: utsa arkitu zuten txabola.

– Eskapada ederra egin dit –zion berekiko–. Ez banu buruz jokatu, ez niñun oien sarean gaizki eroriko.

Laurak txabola aztertzen utzita, igesari eman zion. Bere larria bazeraman: ez ote zuten bere ordeztzekin astakeriren bat egingo. Gurasoak beñepein errespetatuko al zituzten!

Biderik motxena Subegorriaren etxe-ataritik zeukan. Antton atarian erne zegoen. Nabaitu zuen Joakin iges zetorrela. Bere ataritik igarotzerakoan, bertatik bertara pistola txar batekin sutu zion. Baiña, Joakiñen zorionerako, illunpean, arma kaxkarra, sutzaillea berdin, beldurrak, Joakin, berriz, laxterka bizian, etzuen ukuitu. Auzoan zer gertatuko zan zai zegoen atarian, baiña bada ez bada bera ere prest. Tiro-otsik etzuten entzun horreroak. Baiña bai Subegorriaren etxean.

Bigarrena sutu baiño len, jauzi batean lotu zitzaion, arma eskutik kenduz; eta bere arekin sekulakoak eman zizkion. Aste baterako ondatua utzi noski.

Tiro-ots ta atariko iskanbillara, aita-semeak jeiki ziran eta bereala ezagutu zituzten burrukariak.

– Il egin bear al dek? –esan zioten.

– Ez orrenbestekorik. Baiña ez genikek zuek eta nik asko galduko. Obe genin, salbatu ordeztzekin, iltzen utzi bagenie. Lau borrhero ekarri zizkiguk etxera, bera gidari dutela. Ni goiko txabol-atarian nengoken, etxeko gertakariak ikasi-zai, eta ixilka ara biali ziz-

kidak. Goiko tabernariaren aolkuz, ni erne nengoken, ta iges egin ziet. Etxe-atari ontatik igarotzerakoan, somatu niok eta sutu zidak zuek entzun dezuten tiro ori. Baiña ez niok ukuitu.

– Urdea aleena! –zioten bere anai ta gurasoak–. Ez gaudek etxean seguru. Nora oa?

– Nora joango nauk? Iges beste aldera.

– Obe nitek nik ere, irekin batean joango baintz. Non dituk orain borreroak?

– Ni an arrapatu ez nautenean, etxera etorriak noski. Iskanbil onean sartu gaitzik petral onek.

– Eta orrela ibiltzeko nik zer kulpa zeukat?

– Bai. Ori ere ala dek.

– Agur, agur, ez badegu berriz elkar ikusten ere. Amaikak nere bidea artu bear ditek.

Eta illunpean galdu zan.

MANUELTXO

Goiko txabolan, Subegorriak esan bezela, Joakin arkitu etzutenean, asarre xamar etxera etorri ziran. Atarira sartu orduko, txakurrak iskanbillaka eraso zien zaunkaka. Barrukoak ere, gizarajoak, txarrena pentsatu zuten. Aita bere arreba gaixoa zaintzera joana zan, eta uste det orrek salbatu zuela. Begirune aundi gabe, iru edo lau danbetako eman zituzten atean. Amak esan zion alabari:

– Maria, ik itzegin bearko dien. Nik etzekiñat izkuntz ori. Jainko maitea, nola bukatuko ote da au?

Pusilla banarekin, gerrian ere bazekarten pistola. Urdin beltz irudiko jantzia. Txapela berdin. Lotan zeuden aundi-txikiak aizkatu ziran. Alako batean, berriro, *danba, danba, danba!*, iru kolpe izugarriak atean.

– Maria, atean zeuzkanagu, Joakiñek esandako lau deabru aiek.

Mariak, leiora atera ta daldaraka:

– *¿Qué desean ustedes?*

– *Abrenos la puerta, moza, que venimos a por tu hermano Joaquín.*

– Ez dago etxean.

– Guri, berriz, emen dagoela esan digute.

Gezurretan ari ziran. Etxera sartzeko aitzaki billa zebiltzan.

– Ez da aurrera joana, baiña ez du emen lo egin ten.

– Ori ikusiko degu. Ereki zaiguzu atea.

Larria zan uraxe. Ez dagoela etxean ikusi ta joango balira...

– Umeak, zoazte oiera!

Ama-alabak atea zabaltzera jeiki ziran. Orixe zan beren etxean ezin agindua. Bi atean geratu ta beste biak aurrera egin zuten.

– Non da Joakin?

– Ez dago etxean.

– Egitan ari al zerate? –galdetu zieten asarre.

– Bai, bai. Emen bazkari-apariak egiten ditu. Baiña lotarako ez dakit nora joaten dan.

Kanpoko biak ere sartu ziran eta elkar-izketan asi.

– Arek reketeak il bazituen, ez gera gu emendik esku utsik joango -zian agintariak.

– Baiña zer erru zeukatek emen geratu diran auek? –zian batek. Ura zearo ezezkoan zegoen.

– Joakiñek zenbat urte ditu?

– Ogei ta iru beteak.

– Orduan besteak etzeukatek errurik. Bera arrapatzen badegu, ni izango nauk lenengo.

– Eta senarra non dezu? –galdetu zioten emazteari.

– Il-zori daukan arreba bat zaitzera joana da.

Ontan, eskallerak beera somatu zuten borreroak Manueltxo, amazapi urteko mutilla, sukaldean zer gertatzen zan ikusi nairik. Iru borrorok batera ala oi u egin zuten:

– Auxe eramango degu!

Manueltxo, bigarren semea, alaia, ona, praile joatea ere nai zuen, baiña etxean norbait bear zutela-ta geratua zan.

Ama-arreben ondora joateko agindu zioten. Beren deabruzko asmoa aurrera zeramaten borreroak: nai zutenak iges egin bazien, etzerala utsik joango. Baiña etxeoak iruzurtzeko, goxo-goxo itzezin zieten.

– Ez beldurtu, biar arratserako emen izango dezute ta.

Ta gero berari:

– *Ven aquí, chaval.*

Eta bi eskuak atzera lotu zizkioten. Ama-alabak negarrari eman zioten. Etzuten aien esanik sinisten noski. Bere arekin joan ziran etxetik.

Aiek joan ta ordu erdi inguru etorri zan aita, eta bi emakumeak negarrez arkitu zituen. Txunditua geratu zan.

– Zer dezute orrela negarrez aritzeko? Joakin arrapatu egin al dute?

– Ez. Arek iges egin du, baiña Manueltxo eraman dute berekin.

– Manueltxo, amazpi urte bete gabeko mutilla? Nik ori etxera ekarriko det.

– Biar illuntzerako emen izango dala esan digute.

– Nik ez det sinisten ori.

– Ez al zaizkigu, bada, orren errex mutil gazteak iltzen asiko!

– Naiago nuen emen egon banintz!

– Orduan, aita, zu eramango ziñuzten –esan zion alabak.

Ezer egiterik etzeukatela-ta, artan geratu zan orduan. Baiña benetan usai txarra artzen zion aitak orri. Goizean goiz errian zan. Bai lege-gizon adiskide

ura, elizatik ateratzerakoan, ikusi ere. Laxter antz eman zion onek zerbaiten ezbearra bazuela gizon arek. Beraizik topo egitera joan zitzaion.

– Egun on. Goiz zabilta.

– Baita zuri ere. Semearen billa nabil.

– Iges egin al dizu, bada?

– Batek bai. Ura ondo dago. Baiña gaztea, ni kanpoan nintzala, bart etxetik eramán didate. Susmur txarra artzen diot nik orri. Arek ez du oraindik soldaduzkako adiñik.

Gertakari orren garraztasuna laxter irentsi zuen lege-gizonak.

– Atoz nere etxera. An seguruago itzegingo degu.

Bein etxera sartu ondoren:

– Nora abiatu bear dezu orain aren billa?

– Arkitu arte ez naiz, bada, ni aspertuko.

– Berri beldurgarria da ori ta aolku bat emango dizut. Etzoazela udaletxera. Ez dizute garbitasunik emango. Keja orrekin guardizibilletara ere etzaite urbildu, bizia maite badezu. Baiña jantzi beltzarekin dabiltzan oietara gutxiago. Semea bezelaxe galduko ziñake.

– Zer esaten ari zera zu? Orduan nere semea il egin dute?

– Barkatu nere izketa gordiña. Baiña garai ortan daramazkiten guziekin orixe egiten dute.

– Ori ala bada, lenen arrapatzen detan oietakoari bi tiro emango dizkiot eta kito. Oiek zillegi badute, zergatik ez guk?

– Mundu ontan iñork ez dauka bere antzeko bat iltzeko eskubiderik. Askoz obe dezu ixil-ixilik zure sendira bildu. Ezer ez irixteko, zere burua arraixku gorrian jarriko zenduke.

– Orduan illa izango dala uste dezu?

– Bai, zalantzarik gabe. Eta obe dezu nere aolkuari jarraitu. Etxean bear zaituzte. Guda au bukatzerako, amaika olako gertatuko da.

Sumindua atera zan andik aita, edozer astakeri egiteko prest. Baiña etxera baiño len ondo pentsatu zuen lege-gizonak arrazoi zuela. Zergatik bere bizia galdu, ezer onik ez ateratzeko?

Etxera iritxi zanean, lege-gizonak esandako berri triste ori eman zien. Denak negar egin zuten, eta etxeko nekeari itsatsi zitzaizkion polliki-polliki, aztu zan arte. Amaiak Euskadi'n lagunduko zieten nairgabe ortan.

JOAKIN

Antton Subegorria ebaki-ebaki egin ta bere etxean inpernua utzirik, ari kendu zion pistola berekin zuela, bi ordu baiño len Bidaso'z aruntz igaroa zan Joakin. Etzuen bidean iñor, ez lagun, ez etsai, topatu. Bere sukaldeko berri bezela zekien mendi oietakoa ere.

Orma-bazter batean igaro zuen arratsa, ta goizean aldameneko errira joan zan. Baiña lenengo, bertako bikarioarengana, alde artan geratzeko zer egin bear zuen jakitera. Erreztasunik ez bazegoen, pentsatuko zuen beste zer joera artu. Apaizak, beren aolkua eman ta aske uzten dute. Beste oietara bazijonan, berriz, bazekien aolku on bat eman bearrean lotu egingo zutela. Agian, atera zan lekura biali. Bai-baizekien ura ere euskaldun garbia izango zala. On-do artuko zuela ere bai.

Aren meza entzun ondoren, sakristira joan zitziaion. Ikusi orduko, onek antz eman zion arrotza zala ura.

- I ez aiz erri ontakoa. Ez ingurukoa ere.
- Ez, bikario jauna. Inpernutik iges natorren bat naiz.

– Orduan araoketak egin bearko dizkiagu. Alare, andik ez dik oraindik inork igesirik egin.

– Nik egin det, bada, ta ez nuke berriz ara biurtu nai. Orregatik nator zuregana, andik datozenakin zer egiten duten emen eta zer egin bear detan bertan geratzeko zure aolkuaren zai.

– Iges etorri aiz orduan?

– Bai, jauna. Oraindik maite det bizia.

– Zer moduz sartu berri auek? Onak al dituk?

– Onak izan balira, ez nintzan etorriko. Joan ziranak gaiztoak zirala genion. Baiña sartu berri auek deabruak dirala esateko naiko arrazoia badetala uste det.

Kontatu zion gertatu zitzaion guzia, eta bere igesa beste norbaitek ordaindu bearko zuen beldurrak zegoela. Goibel-goibel jarri zan bikario jauna:

– Burua galdu dezute zearo. Sinismen aundia omen zegoken España'n. Orren errex gizonak iltze ori ez dek itxura ederra. Oraindik okerragoa, bakoitzak gorroto dionari bere buruz justizia egitekoa. Napar alde ortan ikaragarriak egin dizkitek. Orain zuenean ere amaikak joan bearko dik anka aurrera. Bi aldeak ari dituk jo ta txikitzen. Baiña baten orde bestea bat iltzea, ortaraiño ez dituk iritxiko.

– Berri ori etorriko zaidan beldurrak aidean nago ni.

– Esker txarreko umea dek orduan zuek salbatu zendutena.

– Bai, bai. Len esan dizudan petral ori, sei lagun artean, gure buruak arraixkatuz, salbatu genduen, iltzera zeramatela, etsaien eskuetatik.

– Orduan ero gaizto oietakoa dek. Tarteka-tarteka sortzen dituk, bai, mundu ontara orrelakoak.

– Emengo agintariak, emen nagoela jakiten badute, beste aldera bialiko ote niñuteke? Ori da jakin nai detana.

– Ara eraman ta iltzeko arraixkurik badaukazute, ez.

– Orduan zer egin bear det nik bertan geratzeko?

– I bakarrik baintzake... Millakak dituk onera iges etorriak. Fameli osoak. Ire erri alde ortatik ez gutxienak. Biar eramango aut agintari oiengana. Geienak leku batera biltzen dizkitek. Etzekit gero zer egingo duten oiekin. Etsaien eskuetara eraman, ori ez beñepein. Edo bai al dek emen ire fameli artekorik?

– Bai. Erri ontan bizi da nere lengusu bat, edo senide artekoa beñepein. Gure sendiaren adiskide aundia gaiñera. Emen oskigille dagoena.

– Joan Joxe orduan?

– Bai. Orixe bera noski. Aren izena ala da.

– Gizon zintzo ta elizkoaia dek ori. Bai, bai; oraintxe bertan joango gaituk. Atzo itzegin nin berarekin. Zuen lurrean sartu zirala jakin zuenean, urduri zegoken. An zeuzkan bere adiskide ta lagunik onenak abertzaleak zirala ta sartu berri auk gorroto bizia ziotela orri. Apaizgaia aizen ezkeru, obe dek olakoren baten etxean geratu. Baiña emen geratzeko asmoan al ator edo aurrera sutara joan nai dek?

– Oraindik ez det ondo pentsatu. Gorrien emengo joera ere negargarria izan da. Ikusiko degu auk zer martxa artzen duten.

– Orren zai al ago? Agirian zegok. Auk Naparroa'n egin duten odol ixurtzearen berri jakitea aski dek, ez dutela zuenean gutxiago egingo ziur egoteko, gorrotoa dizuete ta.

– Orduan bestera joango naiz, ez nuke emen iñoren bizkar bizi nai ta.

– Zer daramak patrika ortan?

– Pistola. Nere borreroari kendu diodana.

– Kontuz, gazte. Emen ez dek zillegi gero... Orrekin arrapatuko baiñute, illebeteren batzuen itzala emango litekek. Ez oala armarekin oien aurre-ra. Obe dek ibaira bota.

– Ez al dezu zedorrek nai?

– Zertarako dit nik ori? Ekatzak, ekatzak. Billa-tu detan aitzakitan, emengo agintariei emango ziet.

Lengusu edo adiskideak pozik artu zuen. Bera oskigillea bazan ere, bazeukan baratza koxkor bat, ta ango martxa ederki eramango ziola. Erriko agintariekin konponketa bat eginta, andik-emendik zetozenen bilkuretara sartu gabe, aske geratu zan.

Egunak bazijoazen, eta gero ta jende ugariago zetorren. Ikaragarriak entzuten zituen. Alare, bereen berririk ezin ikasi. Alako batean, Joxe Subegorriaren anaiarekin topo egin zuen. Arek ere azkenean iges egin bearra. Biak besarkatu ondoren, galdetu zion Joakiñek:

– I ere emen? Anai Subegorriaren iges agian?

– Ori ere bai. Aren inguruan iñor etzegok seguru, ta ez niotek batere aren arrokeriak arritzen, agintariak berak orixe egiten ditek eta. Gu xoxotan bezela, arrapazka zebiltzak gizon iltzen. Gure antzera zerbaitetan naastu dan guzia, espetxera zeramatek. Gure lagun asko, non ez dakigula galdu dituk. Ni ere, bada ez bada, beranduegi damutu ez nadin, iges natorrek. Ez dakik nolako larritasuna dagoen gure erri maitean.

– Orduan gure lekua bestean zegok.

– Orixe esan nai nin.

– Eta gure etxean zer moduz?

– Joakin, lenengo etzekit nola erantzun. Naigabea laguntzen ditela...

– Norbait il al ditek gure etxean? Aita agian?

– Ez. Baiña etzekit nola kontatu ta nere amorrua itz egokiakin agertu. Arrats artan, i arrapatu ez iñutenean, Manueltxo ire anaia eraman ta il ziteken. Ari ere etzioteken barkatu.

Gertatua kontatu zionean, malkoak asi zitzaizkion Joakiñi. Joxeri ere bai.

– Manueltxo il? Arek, gaixoak, zer erru zeukaken, politika zer zanik etzekiken ta?

– Eta ik zer erru daukak? Or erortzen ari diran oiek, zer txarrik egin ditek? Deabruak sartu dituk. Or etzegok besterik. Amaika eraman bear dizkitek ankaz aurrera. Alare, aitari utzi zioteken. Ez baizuten etxean arrapatu. Ura il balute, orduan bai gaizki geratuko zirala.

– Bai. Ori ala dek. Baiña barren guztiak naastu zaizkidak, oraindik gaztetxo bat besterik ez uan ta. Auxe dek eziñaren aurrean negar egin bearra!

– Oraindik etzekitek bizi aizenik. Nola edo ala ire berri eman bearko diek.

– Bai. Ortan arrazoi dek. Etorri orduko, pentsatu nin nik ori. Emen ondo negoken ni, baiña sutarra joango nauk, il edo bizi. Emen orrela nazkatua nabillek. Gure lekua an zegok.

– Len ere esan dit. Ez dudarik jarri ortan. Ara joateko moldaketak egiten ari diran edo ez ikasten badet, abisatuko dit.

– Adiskide edo lengusu artekorik badek, bildu adi arengana. Bestela, pillara eramango aute.

Ura agurtu zuenean, ala zion berekiko Joakiñek, naigabetua:

– Eta nik orri barkatu egin bear al diot? Ez ori bakarra: maite. Orren alde otoitz egin. Orain esku artean baneuka, itoko nitek; eta ez dek, motell, erreza kristau izatea. Egin diguna eginta, ori maite? Manueltxo gizarajoa neregatik il dutela esango ditek askok orain.

GUDARA

Gero ta jende geiago zetorren iges. Gero ta berri kaxkarragoak entzuten ziran andik. Izu laborreak artuta zegoen euskalduna. Talde bat bazebillela arratsetan, etxetik artu ta mendi-zuloetan gizonak iltzen.

«Galdera batzuk egin ta laxter etorriko da» esanta eramanak. Beren maiteak utzi erazi urduri ta orain arte. Aztarrenik gabe galdu ziranak.

Azaltzen ez ta beren etxekoak, eroak bezela, ate bat jo, bestea jo, denetan ondo itzegin, itxaropena eman leku askotan, baiña dena gezurra, zer erantzun bear zuten etzekiten ta. Aien gordean egindako lana baizan. Gertatuaren berri jakin nai zuenari, gezurra esan bear.

Guardiak egiten edo zerbaitetan naastu ziranak, batez ere gazte jendeak, etzuten etxean lorik egiten. Errira joateko beldurrak zebiltzala; txakurra baiño ajola gutxiagorekin iltzen zituztela; besteak, berriz, Ondarreta'ra zeramazkitela; ta epaitu ere gabe, agintarien baimenarekin edo berenarekin, atera ta Ernani alde ortan iltzen ari zirala... Apaizei berei ere etzietela begirunik. Ordurako bazituztela bakarren batzuk illak. Euskeraz itzegitea ere galerazia zegoe-

la. Ikaragarriak entzuten ziran; eta, zoritxarrez, gertatzen ari zana baiño gutxiago.

Suminduak zeuden Bidaso'z aruntz igarotako abertzaleak. Etzerala guda irabazi ta agintzea bakar-ragatik atera. Erria beraren izaera ere galdu nai zutela. Bereala asi ziran auetako batzuk, ixilka-ixilka, Bilbao aldera joan nai bazuenik bazan, izenak artzeko lanean.

Etortzen ziran berri kaxkar aiekin, larritua zegoen iges egindako jendea. Lanik etzeukaten; bizilekuri ezin billatu; denak pilla batean sartzen zituzten; besteren bizkar jan... Ezin zezaketen artara iraun. Len beren errian, ikurriñez estaliak, arro-arro ainsteste agermen egin ondoren, segurutik, ezereen ajolik gabe, beren erriaren odolezko opari ura ikusten egon bear al zuten? Ez al zan benetako billaukeria ori? Lotsagarria gaiñera.

Ori aski etzala, etzeuden gaiñera oso toki seguruan. Prantzi alde ortan ere asarre baizeuden batzuk. Iges egindako guziak beren errietara biali bear zituzten otsa zebillen. Ibarnegaray, euskalduna berez, ortarako lan egiten ari zan gaiztoena, eskubitar amorratua, indarkeri zalea, Franco'ren politika bere erri-rako nai zuena, *Cruces de Fuego* zeritzaion taldeko buru zegoen. Ordukoz asia zan au bere lanean. Baiña etzan oraindik Europa'ko guda gaizto ura sutu, ta garai artan Prantzia'n zegoen jaurbatzarekin etzeukan zer ikusirik. Gero, alemanak sartu ziranean, gogor eraso zion.

Prantzi erdiaren lendakari zegoen gudalburu Petaïn jaunak, ala erantzun ere:

– Arategira ezin bialiko ditugu. Berdin bein an oiña jarri orduko ilko dituzte.

– Il edo bizi, gure lekua an zegok –zioten iges egiñak.

Ikasi zuen Joxek –ezin biziak zapaldua zeukan–,

itxasontzi bat laxter ateratzekoa zala; ta, nai zuenak joan, izenak biltzen ari zirala. Arratsalde batean, joan zan bere lagun Joakiñi ikertxo bat egitera. Nagusiaren enkargu batzuk egiten arkitu zuen.

– Kaixo, Joakin! Bapo bizi aiz i.

– Ongi etorria. Aspaldian ikertxo onen zai nengoken. Baiña ik uste bezin ondo ez nauk bizi. Nere biotz barru ontan zebilkit iskanbilla, gure lurrean dabillen guda bera baiño ere gaiztoagoa. Nere igesagatik il zuten anai gaixoa. Ezin azturik nabillek nere gurasoak nola ibilliko ote diran eta Gipuzkoa'ko negarra. Beste gaiñerakoan, ez dit gaizki nagoenik esango. Lana bazeukak. Bestela, aspertuko niñukek. Irabazi pixar bat ere bai, eta bizilekua berdin.

– Etzeukat nik olako Ameriketarik. Eskean, motell, atez-ate, arrazoirik gaiztoenak entzunez zenbait-suen aotik, zer jana billatuko badet. Zearo lotsatua, ez baigaudek gu ortara oituak. Il edo bizi, laxter an nauk. Bizkaian Eusko Jaurlaritzā osatu ditek. Eusko gudaroztea ere bai. Baniek emendik beste gazte batzuekin, nere odola zapaldu diguten aberriaren alde eskeintzera.

– Martxa ori Gipuzkoa'n jarri izan bazan, ez giñun gu etxean geratuko. Eta nola zoazte: aidez?

– Ez. Itxasontzian.

– Eta neretzat lekurik bai al zegok?

– Bai, motell. Orregatik etorri nauk, ik ere joan naiko dekala ta.

– Ez didak bi aldiz esan bearrik. Ez iñori il ta kalte egiteagatik. Ezta Subegorriari ere. «Maite itzazute etsaiak» ebanjelioren aolku ori bizi-bizirik itsatsia zegok nere biotzean. Baiña aberriaren negarrak zapaltzen niotek. Noiz ta nondik erteten zerate?

– Gaur 4'ean gaudek; 10'ean aterako gaituk Burdeos'tik, eta gauaz. Bide luzean, auek agintzen duten itxasoan barrena joan bearko diagu. Gipuzkoa'ko

itxas-bazterra berena ditek. Urean ere berak gallen. Baiña etsaiak oartzera, Ondarroa'ko itxas-bazterrera urbilduko gaituk. Andik aurrera, oraindik beiñepein, etzeukatek sartzerik, gurea dek eta.

– Eskerrik asko. Nik ere izena eman bearko dit. Erortzen bagera, erori.

– Nik emana dit. Ik ere nai badek, ez dek ix-tillutan ibilli bearrik. Nerekin zekarrek papera.

Bere izena idatzi zuen.

– Eskerrik asko berriro. Ezeren okerrik ez badet, egun ortan Burdeos'en elkar ikusiko diagu, nik beze-la Jainkoak nai badu beiñepein. Emendik agur egite-rakoan, bazkari eder bat egin. Agian, bizi bagera, berriz onera biurtu bearko diagu. Baiña azkenekoa ere izan genezakek. Ni etsita nengoken, emen ez genduela gure odola aberriari eskeintzeko aukerik izango.

– Nerekin amar gaituk. Ez dek geiago komeni, ez gaitzikek eramango ta. Nik ezagutzen ditudanei ba-karrei galdetu ziet, eta denak baietza eman zidatek.

– Orduan agur, 10'era arte.

– An bilduko gaituk. Baiña zarata aundi gabe. Orregatik, gutxiri dei egin ziet. Ixpia ugari ibilliko dek inguru auetan gaurko egunean. Bizi bakarra dia-gu, baiña zertarako, aberriaren deia ez entzu-tezkeroz? Ortik urrun edo bertan atzerritarren men-de izateko?

Joakiñek kontatu zion bere nagusiari zer erabaki artu zuen. Naigabetu egin zan au.

– Ez engon, bada, i emen gaizki!

– Baiña odolaren bultzada nabaitu det. Naiago det, iges ibilli baiño, aberriaren alde alegiñak egin. Bizia galduta ere, nere ondakiñak bertan geratuko lirake. Alderai ara-onera ibiltzeko gogorik ez daukat, aberri gabeko baten gisa, nere urteak pasa ezi-ñik.

– Bai; egia. Naigabe pixar bat eman didak. Au ere ez al dek ire aberria? Ez al gaituk odol berekoak? Nere alaba ere iri begira zegoken noski.

– Bai. Au ere Euskalerriko zati bat dala ikusia dago. Gure mintzaira bat da. Baiña beste diozun ortaz, ez naiz oartu ere. Apaizgaia naiz ta, Jainkoak bizirik gordetzen banau, asitakoa bukatu nai nuke.

– Ez nekiken ori. Etzegok gaizki. Jarraiok orri.

– Orain arte erasoia besterik ez didate eman. Baiña nere biotza ere ortara dijoa.

– Bejondeikela gaiñera. Bidaso'z onuntz etzegok olako abertzaletasunik. Etzekiagu zer dan Euskadi, ta bere alde bizia eskeintzea pekatua uke emen euskaldun askorentzat. Oraindik, euskotar diranik ez dituk oartu. Oroigarri asko zeudek gure erri txiki auetan, illen zerrenda dakarkitela. Baiña denetan «Prantzia'gatik il ziran» jarriko ditek. Auentzat ez dek, bada, Prantzia besterik. Euskadi'k ez dik ezertxo ere esan nai gure artean. Zuek lenago esnatu zerate. Erotzat artzen ditek zuen abertzaletasuna. Baiña, ikasi detanez, ibaika ziek odola ta oraindik asi besterik ez dituk egin.

– Berari eskeintzen diot, bada, nik ere nereia.

– Askok al zerate?

– Ez. Oraindik, beiñepein, gutxi noski, ta ixilka. Ez da komeni geiegi. Emendik ara pasatzen ez dago errexa. Salatu ezkerok, gaizki ibilliko giñake.

– Eta noiz ateratzen zerate?

– Abisatzekotan geratu dira.

Gezur txiki bat esan zion, bada ez bada. Etzan egi osoa esatera ausartu. Nork zekien, eziñaren aurrean ez ote ziran atzeratuko ere?

Egun batzuk laxter igaro ziran. Garaia baiño lenago agurtu zuen nagusia.

– Berriz iges etortzen baaiz ere, emen gaudek. Nai dekanean, jo gure ateetan.

Esan bezela, 10'ean bildu ziran Burdeos'era. Egoarte guzian, ango bazter ta txoko guziak ikusi zituzten. An etzan aien fameli artekorik. Ixillean egin zuten lana. Joakiñek etzuen gaiñera Prantzi aldean iñor. Jakin balute, geiago ere joango ziran. Etziztziaren komeni, ordea. Ontziak anbat etzituan artuko. Beraz, ixilik egindako lana zan. Bestela, norbaitek salatu ta etsaien eskuetan erori zitezken. Bazkal-ordua etorri zanean, bazkari bat bikaiña egin zuten, Joakiñek bazeraman naiko dirua ta. Ordaintzerakoan, ala esan zion Joxek:

– Nik etzeukat zentimorik. Larrutuko aute ederki.

– Bai, nai badute. Neronek eskeiñi dit bazkaria. Zertarako diagu dirua, agian bidean urpera botako gaitzitek eta? Bizkai aldean, berriz, bertako txanpona sortu ditek. Ez diagu paltik izango.

– Itxasoan auek agintzen duten uretik igaro bearrak beldur ematen zidak –zion Joxek.

– Geieneko ere il egingo gaitzitek.

– Gureak nola ote daude? –galdetu zuen berriro Joxek.

Joakiñen aurpegia illundu egin zan.

– Gureak iñondik ere gaizki. Ni palta. Onuzkero bazekitek bizi naizela. Manueltxo, gazte maitagarri ura, aingeru batek baiño erru geiago gabea, illa. Jakin izan banu ori gertatuko zala, ez nin igesirik egingo. Kontzientziak, aren eriotzean kulpa pizarren bat bai ote detan salatzen zidak. Artaz pentsatzen detan guzietan, kozkaka ari zaidak. Sutan aztu nai nitek gertakari triste ori.

– Ala jainkia! Ire bizia ez al dek bada lenengo? Ik zer akiken anai gaztea iltzera ausartuko ziranik? Ez orren beldurrik eduki. Jainkoak ez dik ire anaia-
ren konturik eskatuko. Ik orregatik kezkek badauzkak, Subegorriak ez dizkik nolanaikoak edukiko.

– Ari, ondo egin duela irudituko zaiok. Etsai bat gutxiago arentzat. Naigaberik txarrena ni ez arrapatua izango dik. Oien kontzientziak ortara jarriak zeudek. Oien relijioa ez dek besterik: berekin ez dijoana garbitu ta berak agintzen jarri. Ebanjelioak garbi asko esaten ziguk: «Garaia etorriko da, zuek iltzea Jainkoari omen egitea dala usteko dutena». Ez al dituk, bada, kristau legea salbatzera atereak? Berak ala ziotek beiñepein.

– Nere anai Subegorri ori, berriz, arro-arro or ibilliko dek, onuzkero sendatua. Gurasoei ere naiko ixtilluak jarriko zizkiek orrek.

– Arritzekoa olako sendi on ta kristau batetik subegorri bat sortzea, bere etxeko ta ingurukoak ondatu nai dituena.

– Jesusen sailletik ere ez al uan Judas atera?

– Egia ori ere. Aizak, oraintxe gogoratu zaidak: nora goazen ez al ziegu gure etxekoei abisatu bear?

– Ederki pentsatua, bizi naizela bazekitek baiña.

– Aiek daramaten kalbarioa ez dek nolanaikoa. Etzaiegun gure zabarkeriz geiago sakondu.

Unetxo batean eskutitza idatzia zegoen. Biak izenpetu zuten. Baiña Joakiñen gurasoen izenean, Subegorriaren eskuetan erori etzedin.

BILBAO'RA

Esandako orduan kaian zeuden. Baiña joan bear zutenak bakarrak. Guzitara, amar. Ori zan ixilka bildutako taldea. Geiago izango ziran noski pozik joango ziranak. Baiña ontzia betea zijoan. Arraixku txarrekoa zan. Itxasoko txango orrek benetan beldurtzen zituan. Etsaiaren mende baizegoan, eta an baizebiltzan gudal-ontziak. Oartzen baziran, norbaitek Burdeos aldetik salatuta, kito; galduak zeuden. Etzuten, bada, ixkanbilla geiegirik sortu nai, ixpiak ibilliko zirala ta.

Argiak itzalita atera ziran. Prantzi'ko uretan zetzen arte, etzeukaten beldurrik. Baiña laxter abisatu zien kapitanak Franco'ren mendeko uretan sartu zirala; bada ez bada, ez zigarrorik pizteko; bide motxa zeukatela ta lasaitzeko.

Larritasuna zegoen ontzi txiki artan. Ez baizeukan babesik. Gure gazteak aita gure bana errezatu zuten. Gudara etzijoan jendea ere larri zan. An etsaiak ez baizuen errukirik izango. Etziran itxas-ertzetik geiegi urruntzen. Zabalera ezkerro, arraixku geiago zeukaten, bazterrean baiño. Ikusi zuten Ondarrabi'ko izargia. Arraixku bete-beteen zeuden, bada. Baiña etzan oraindik ezeren aztarrenik.

Alako batean, bi suzko mingain ikusi zituzten urrun. Andik bereala, bi zaplaztako, inpernuko orroa atereaz, berak zijoazen lekutik eunen bat metrorra, ur-putzuak aidatuaz. Urrungo sutunpen otsa gero. Ontziaren tirabidean zeuden, bada.

– Ikusi gaituzte –zion jendeak–. Galdu gera.

– Lasai oraindik! Ez etsi! –zieten batzuk.

– Ez bagera geratzen, urrengo erasoan ontzia erdiz-erdi arrapatuko dute.

Ori ziotenak etziran oso piatzekoak.

– Geratu? Ala zankoa! Laxter beldurtu zerate –geienen abotsa.

Baiña itxasoan oituak zeudenak ezetz zioten:

– Lasai zaitetze.

– Norbaitek egin du salaketa gu noiz atera geran, eta badakite gure itxasontzi onen abiadura zenbatekoa dan. Orregatik, bada ez bada sutu digute. Aldeztaju ari dira.

Baiña etzan egi osoa. Kapitanak ala agindu zion lemazaiñari:

– Baztertu oraindik geiago ontzi au legor aldera.

Andik bereala, beste bi suzko mingain ikusi zituzten lengoa baiño urrerrago, eta bi granadak berrogei ta amar bat metro atzerago sartu ziran urean. Etsaiak gutxi gora-beera bazekien non zetozen. Jauzi bat egin zuen itxasontziko jendeak.

– Urbildu geiago bazterrera ta eman indar guziak. Aidean ez bada etortzen, iges egingo diogu.

Beste bi suzko mingain azaldu ziran askoz urrerrago. Metro gutxiz etzuten ontzia arrapatu. Gudal-ontzia, bada, aurrera zetorren. Izutua, ixil-ixilik geratu zan jendea, urrengo erasoaren zai. Kapitanak itzegin zuen berriro:

– Erne, mutillak! Billatu gaituzte, baiña ez gera

geratuko. Bilbao'ko uretan sartu gera ta emendik aurrera gureak agintzen dute.

Beste bi suzko mingain ere ikusi zituzten. Orain-goan, jotzeko asmoan sutuak ziran noski. Metro batzuk ontziaren gaiñetik igaro ziran granadak eta beste aldean erori. Bere martxa guzian urbilduz zetorren. Mariñelak etsi zuten. Geratu edo ondora joan. Ango larria!

– Naiago nitek itxasoan ito, oien eskuetan erori baiño.

– Jarrai aurrera! Emaiozu indar ontziari!

– Eroarena egitea litzake. Urrengo erasoan, erdiz-erdi arrapatuko gaituzte.

– Urdea aleena! –zion jendeak–. Billaukeria egin diguk. Ere burua salbatuko dek eta besteak arategirako saldu.

Batzuek urera jauzi egin nai zuten, itotzea obe zutela ta. Beste batzuek, berriz, kapitana-ta urera bota ta aurrera jarraitu. Ia bertan ikusi zuten gudal-ontzia. *Cervera* omen zala. Denak beren buruak galdutzat jo zituztenean, tiro-ots aiek entzun da erten ziran Bilbao'ko uretatik bi ontzi kaxkar *Cervera*'rekin burruka egiteko, eta bertatik eraso zioten. Irurak tiroka lotu ziran, aiek armatuak baizeuden, eta gure ontziak orduantxe egin zuen iges.

Cervera'k ere bai. Askoz indartsuago ta zauliago izan arren, etzuen bere mende etzeuden uretara sartu nai izan, mendi-muturren batean zeuzkaten sutunpak etzezaten arrapatu.

– Lasaitu, mutillak, lasaitu! Salbo gaituk, eta eskerrak bi ontzi kaxkar oien laguntzari. Aulak bai, baiña gizon bulartsuen mende.

Larri-aldi aren ondoren, arnasak buelta eman zien, eta alako «Aupa, mutillak! Bizirako gaituk!» oi u egin zuen jendeak. Betiko lekutik etorri balira, zalantzik gabe aien eskuetan eroriko zirala. Polliki-

-polliki sartu ziran Bilbao'ko kaiara. Bazekiten etortzekoa zala ta *Cervera*'ri iges egin ziola.

Joakiñek, latinez ikasia, kaiako sarreran ala esan omen zuen, erasotzera zijoazen Erroma'ko gladiadoreak bezela:

– *Ave, Bilbao, morituri te salutant.* Gora, Bilbao! Zuregatik iltzera gatozenok agurtzen zaitugu.

GUDAN

Gazteen buru egiten zuenak esan zion Bilbao'n ortarako zegoenari:

– Amar zetozek Prantzi'tik onera, emengo jaurlaritzaren mende jartzera, gudara.

– Oien aberri-maitasuna ta ausardiak ez dik gutxi balio –esan zuen aien jabe egiten zanak–. Larri ziñaten noski?

– Etsaien eskuetan erori gaituk. Emendik atera diran bi ontzi txiki oiei esker iges egin diagu. Bide ori itxi zigutek. Zer ikusteko ote gaude gu emen?

– Gauz onik ez. Etsai asko ta lagun gutxi. Gure eskubideak alperrik dituk. Betiko leloa: indarra lege.

Berekin eraman zituen artarako zeukaten lekura. Urrengo egunean banaka-banaka berezi zituzten batallioietara. Len soldadu ibilliak aurrera bota zituzten. Besteak, berriz, armen berri zerbait ikasi arte, atzean geratu ziran. Orregatik, gure bi lagunak etziran batalloi batera joan, ta Bizkai'ko eraso guzian etzuten elkar ikusi ere.

Gure mutillak iritxi ziranean, Bilbao aidez ta urez zearo inguratua zeukaten. Legorrez bazeukan iges-

bidea. Esan zitekean erteera gabeko kaiola batean sartzen zirala.

Oraindik illebete batzutan lasai egon zan Bilbao alde ori. Baiña etzegoen igertzen zailla, lenengo eraso berari egingo ziotela etsaiak, Iparralde au garbitzeko asmoan.

Illabete oietan beren gudaroztea moldatu zuten. Auskalo zenbat milla inguruko soldadu, leporaiño armatuak, enda guzietakoak: euskaldun, erdaldun, moro, aleman, italiar eta Europa zear guzitik etorri ziranak, indarkeri-zaleak.

Egazkin ta aideko italiar ta alemanak. Auena, berriz, oso-osorik artilleria. Eusten ari ziranak alako lau bai noski. Armaz, berriz, zer esanik ez. Euskotarrak ia esku-utsik. Kañoi zaar aleren batzuk. Aidekorik, ia bat ere ez. Inguruko mendietan etsaiak, erasotzeko agindua artu zai, aspaldi artan ederki presatuak. Benetan ausardia ta aberri-maitasuna bear zuten beren bizia eskeintzera zijoazenak arma geiago gabe.

Ori guzia bazekiten gudariak. Alare, biotz on ta zoramena, erori arte beren aberria zaitzeko. An etzeukan iñork atzera egiteko asmorik. Lurrari itxasten zitzaion gudaria. Alare, bazekiten kanpoko laguntza geiago gabe dena alperrik zala. Sartu berriak laxter egin ziran orduko egoeraren jabe.

Joakiñek lenengo suzko bataioa, odolezkoa ere bai, Otxandio aldean artu zuen, ango erasoari eusteko joana, Lizaso txistularia bikaiñaren batalloian. Biak errederiarrak, lendik ezaguna zuen Joakiñek. Euskadi'n nork etzuen ezagutzen ura? Arek ere bai au.

Aurrera joan baiño len, ordea, bermeoarrak, euskotar sutsuak, jai txiki bat egin zuten –apaizgaia ere an zan–: Lizaso txistu jotzen ta ango neskatx bat dantzatan, bietan zein lenago aspertu. Ez dakit zenbat

denboran jardun zuten. Ez naiz orain oroitzen. Ordubeteren bat bai noski. Baiña azkenean txistulariak irabazi zuen. Dantzaria, ler eginta, eseri egin zan. Etzan, bada, uraxe ere motela.

Urrengo goizean atera ziran aurrera, ta illunabarrerako berri triste bat zabaldu zan Bermeo'ko errian: Otxandio'ko erasoan il zan aietako bat, Lizaso txistularia zala. Bermeoarrak dolumiñez negar egin zuten, ia bertako semetzat artua zeukaten ta. Erri guzia an zuen bere illetan. Ondoren, amaikari entzun zitzaion:

– Olakoak ez luteke aurrera joan bear. Atzean lan ohea egingo luteke oiek.

Joakiñek ere antxe artu zuen, suzkoa ezik, odollezko bataioa. Asko il ziran; bera ere zauritua geratu. Azal xamarrekoa noski, baiña iges egiteko moduan. Il ta erituak biltzeko betik gabe, atzeratu ziran. Zauri aundia ez bazuen ere, amabost eguneko atsedena eman zioten. Len berandu asi ta lanik egiterik ez.

Bitarte ortan, berri gaiztoak zetozen: etsaia beti aurrera; egazkiñak eten gabe gaiñean, bazter guziak txikitzen, erri ta mendiak bonbaz josirik; Bilbao'ko karridak berdin; Gernika ere sutu zuten ertz batetik besteraiño; Bilbao'raiño irixten ziran sutunpen balak; «burnizko gerrikoa» igaro ere, eskerrak billau baten lanari, olako estuasunean lagun askok atzera egiten baidute. Euskadi'ren azken egunak etziran urruti. Aundizkiak urduri zebiltzan. Gudariak, berriz, aulduak, ara-onera, atsedetik artzeko betik utzi gabe.

Gure gudari gazteak, berri oiek guziak entzunagatik, bein senda-agiria eman zioten ezkerro, txuxenean aurrera joan bear izan zuen. Etzeukan atsedetak lekurik. Bere eginkizuna aurrean zegoen: utzi zuen utsuna bete bearra.

Gure gudarientzat egunik goxoenak joan ziran.

Estuasun larriak zituzten Bilbao alde ortan orduan. Alegin guziak eginta, etsaia beti aurrera. Ezin eutsi. Benetako tristura, beldurra, ezin egona zegoen euskaldunen biotzetan. Egunero, zuten guzia emanta, dena alperrik. Aiek indartzen eta berak aultzen. Beren babeslekua estutzen, bukatzen ari zan, len txikia izaki ta. Bide askoan atzera egiterik ez, berriz, an ere etsaiak zeuzkaten ta. Bi ezpaten erdian zeuden. Urez ta aidez esituak, igesbiderik gabe.

Dena autsi ta txikituz zetozen arerioak. Baiña gure gudariak, beren biziari baiña geiago begiratzen zioten erriaren etorkizunari, eta biak zeuden arraixku txarrean. Aidetik indar ikaragarria zeukaten eta orrek zapaltzen zituen gure mutil ausarditsuak.

Bilbao'ko egoera ia azkenetan zegoela, joan zan, bada, Joakin, ondo atsedendua, zauritu ezkeru utsik zegoen bere txokoa betetzera. Joan zaneko, esan zion norbaitek erasorik gaiztoenetako bat izango zutela, ta bai erdiz-erdi asmatu ere. Oso-osorik bere batalloiari eraso zioten, eta sekulako jipoia eman ere bai.

Asko bertan erori ziran, aidez ta sutunpez txikituak. Beste asko, zauriturik, etsaien mende. Al zutenak iges egin zuten, berriz. Aien artean Joakinnek, bere lekura etsaiak sartu baiña len. Zer suturik etzeukala geratu zan, kartutxo-alerik gabe, ta etzeukan alperrik bere bizia galtzeko gogorik. Besteak suzko armaz ta bera baionetaz, eroarena egitea zan.

Bere igesan gudari bat arkitu zuen, anka autsi ta iñorako etzegoela, arrastaka-arrastaka. Bere bizkarreran eraman zuen lenengo baserrira. Ama-alabak—au oraindik neskatx gaztetxo bat besterik etzan—arkitu zituen etxean. Gizonezkoak, batzuk aurrean, besteak iges egiñak ziran andik. Bereala koltxoi bat jetxi zuten sukaldera, ta an etzan zauritua, garbitu ta lotzeko.

Baiña artan ari zirala, atarian bertan somatu zuten etsaia. Beraz, ondotxo aurrera sartu ziran; eta Joakin sukaldean, iñorako igesbiderik gabe.

– Zer egin bear det nik orain, nere burua babes-teko? Zer suturik ez daukat; eta auekin, berriz, ez naiz batere pio, bertan nola ez gaituzten ilko. Soldaduak balira ez; baiña beste oiekin...

Amak, galtzak jantzi bear lituken emakume oietakoa, etzuen itxuraz beiñepein bere lasaitasunik galdu.

– Ezkutatu zaite tximinipean. Beste igesbiderik ez daukazu.

– Billatzen banaute, nerea ezik, zuen bizia ere arraixkuan jarriko da.

– Zauritu au sendatzen arrapatzen bagaituzte, ez al gera ala geratzen?

– Ondo dago. Txotxean jokatu degu bizia.

Kanpai baten antzeko tximinia zan: azpitik zabal ta gora estutzen. Laratza zintzilik edukitzeko, alderik-alde bazeukan barruan burnia. Gure Joakin ara igo zan eta aren gaiñean al zuen bezela txutik. Sukalde-sarrerako aldera arrimatu ta beraizik aztertzen ez baziran asten, etzuten billatuko.

Zauritua sendatzen ari zirala sartu ziran.

– *Algo para beber* – eskatu zuten.

– Ekatzan, Anttoni, geratzen zaigun botilla ardo ura.

Ekarri zuenean:

– Au irurentzat gutxi da –eraso zion buru egiten zuenak. Kapitana izan bear zuen.

– Etxe ontan ez daukagu ori besterik. Ura nai badezute?

Ardoa ta ura, bietatik edan zuten.

Kapitana zan, bada, beste bi lagunekin. Amari

galdera batzuk egin zizkion onek. Bai txuxen asko erantzun ere.

– *¿Conque roja?* –oiu egin zuen onek.

– *No roja, sino cristiana* –erantzun zion.

Oraindik etzuten zauritua ikusi. Amak alegiñak egin zituen aiek sukaldera gabe etxetik bialtzen. Baiña etzuen iritxi. Lotsa aundi gabe, aurrera sartu zan, bada, bere bi lagunekin. Zaurituak, aurrez-aurre eriotza sartu balitzaio bezela, etsipena artu zuen bere biziaz. Tximinian zegoenak ere bazeukan bere larritasuna.

– Nor dezute ori? –galdetu zuen zakar.

– Ez dakigu. Anka autsia dauka ta, arrastaka-arrastaka ikusita, sendatzeko asmoan barrura ekarri degu.

– Ez al da gizonik etxean?

– Ez. Denak joanak dira.

– *¿Qué: tú eres rojo?* –galdetu zion.

Besteak etzuen itzik erantzun. Berdin bazekien zer egingo zioten.

– Bai al dakizute txakur auei laguntzea galerazia dagoela?

– Kristauak gera ta orain arte iñork ez digu agindu olakorik.

Amak itzegiten zuen. Alaba, oraindik gaztetxoa, onen atzean ezkututzen zan. Tximinipekoak, dena entzuten baizuen:

«Zertan bukatuko ote da? Kapitanak aldarte ona badauka, mutil ori salbatuko dek. Bestela, kito».

– Gaurtik aurrera badakizu, bada, auei laguntzea galerazia dagoela.

– Gu kristauak gera. Ez degu lege ori ontzat artzen. Baiña ala agintzen badezute... –erantzun zion amak apal-apal.

– Olakoei au egiten zaie –ta gerritik pistola artuz,

bi tiro sutu zizkion burura, ta gure gudari gizarajoa bat-batean illa geratu zan.

Karraxi egin zuten gure bi emakumeak, baiña etzuten itzik atera. Negar egin zuen noski tximinipekoak, eta ezer egiterik ez.

Beren lan gaiztoa eginta joan ziran. Joakin asi zan jexten, baiña amak keiñu egin zion:

– Kontuz! Zaude oraindik, or beste bi datoz ta!

Bereala etorri ziran aiek ere, ta ura eskatu zuten, sukaldera sartuta.

– Nor dezute au? –galdetu zuen buru egiten zuenak.

– Ez dakigu. Zauritua, arrastaka ikusi degu, ta guk ekarri ta sendatzen ari giñan.

– Nola, buruan bi balazo dauzka ta?

– Bai, bada. Gu sendatzen ari giñala, sartu dira iru ta agintzen zuenak, kapitana noski, «¿*Conque rojo?*» esan ta burura sutu dizkio bi tiro.

– Urdea aleena! –oiu egin zuen–. Baituak zaindu egin bear dute, ta ez il!

Ondoren, illa ondo aztertuaz, sumindua geratu zan:

– Mutil au nere anaia da.

– Nola zebillen, bada, emen gorriakin?

– Gudak Bilbao'n arrapatu zuelako, ni beste aldean bezela. Zer uste dezute: emen dabilzan guziak gorrietakoak dirala, ta gure aldean dabilzanak denak txuriak? Baiña gizona ortara iltzeko ez dago eskubiderik. Badakit nor dan au il duena: kapitana. Baiña Bilbao'ko eraso au bukatu baiño len, ordaiñak jasoko ditu.

«Oietan ere alde ederra zegok batetik bestera» zion tximinipeko Joakiñek.

Kamilleroei dei eginta, eraman zuten andik illa.

Baserri artatik berreun bat metrora geratu ziran etsaiak, geiago ezinta. Gudarietan egundoko sarraskia egin zuten sutunpa ta egazkin zikin aiek. Noizbait, ederki aspertuta, jetxi zan tximinipekoa.

– Ederretik salbatu zera –zion amak.

– Eta zuek?

– Emakumetan ez al ziran asiko!

– Ez dakit. Ez det entzun olakorik. Baiña gizona ain ajola gabe iltzen dutenakin, ez geiegi piatu.

– Dana dala, orrek egin duen ori sartu zait biotz-muiñetaraiño –zion amak–. Zauritua dagoen bati ez laguntzeko ta bertan bi tiro eman ta il! Lege auekin nora goaz?

– Gudaren lanak. Agian gizon au etzan len olakoa izango. Odolak mozkortuko zuen ta gizon iltzeak atsegin emango dio, batere gorrotorik gabe agian. Neri ere lezio ederra eman didate. Nik denei barkatzen diet. Jainkoaren agindua da ori. Baiña emen ez dute betetzen.

– Zerbait artuko zenduke?

– Utziozu orri. Guregatik naiko estuasunak igaro dituzu, eta eskerrik asko biotz-biotzez. Ez al dira berriz etorriko! Orain nondik iges egin, ori daukat asmatu bearra. Jipoi ikaragarria eman digute. Bizkaia'n barruraino sartu dira. Zer sutu ez daukadala geratu naiz. Ez daukat kartutxorik. Bestela, ni ez nintzan iges etorriko. Ez al zerate etxe ontan zuek besterik bizi?

– Bai. Alaba bat, gaixo-zai joana. Bi seme aurrean dabilzkit. Gizona, berriz, laxter azalduko da. Sorora joan da lanera, ta ango baserrian ezkutatuko zan, eraso au bukatu arte.

– Orain emen pakean geratuko zerate. Ez da noski beste erasorik izango.

– Bai. Baiña nere bi semeak?

– Denok orrela gabiltz. Ori da emengo ta Gipuzkoa'ko negarra ere. Oraindik angoak okerrago. Zuenak etxean ari dira. Gu, berriz, andik etorriak, angoa naiz ni ta.

– Giputxa zera orduan zu?

– Bai. Prantzi'ra joan ta andik etorria.

– Biotz beroa daukazu orratik zuk ere.

– Ara: ageri da gure ikurriña. Nik uste baiño gutxiago aurreratu dute etsaiak. Nondik igaro ninteko beste aldera?

– Nik ez dakit batere orren berri. Baiña uste detanez, ondo zaindua edukiko dute.

– Ori bai. Batez ere gaur. Baiña atzean ere biartik aurrera ez da atsegin izango.

– Au –onuzkero antz emango zenion– eiera edo errota da, ta ia bosteun metrotik dator ura kanal batean beera. Ortik daukazu noski igesbidea, igari baldin badakizu beiñepein.

– Arraiak bezelaxe.

– Etzaizu gaizki etorriko. Ta zuk uste dezu azkeneko orrek bere zemaia beteko duela? Egokierarik izango al du?

– Bilbao erori baiño len bai. Eraso batean aixa atzetik arrapatuko du egokieran.

Maitasunez agurtu zituen etxeakoak; eta, bere arma kañoiz aurrera bizkarrean lotuz, sartu zan urera. Ura urera sartzen ta etorri zan aita, beldurrak artua. Ama-alabak zer kontatua izango zuten.

– Nor da urera sartu dan ori?

– Bereetara iges egin nai luken gudari bat.

– Gaurko au gogoangarria izango degu.

Beren aparian etzuten zer esanaren paltik izango. Guk Joakiñi jarraituko diogu. Lenengo berrogei ta amar metroan etzuen eragozpenik izan. Baiña naiz-ta igari joan, otza nabaitzen zuen. Maiatza zan ta orain-

dik urak etzijoazen beroak. Bai. Lenengo metro oiek igaro zituenean, naiko lanakin zebillen. Ez nekeagatik. Kanala estua ta tarteka-tarteka bazeuden guardiak. Alakoetan txutik, oiñez igarotzen zan, ez nabaitzearren, guardia zegoen ertz-ertzetik. Bazterrak etzeuden oso garbiak eta, orri eskerrak ederki estaltzen zuten.

Polliki-polliki igaro zuen etsaien muga. Baiña oraindik etzuen atera nai. Beretzat arraixkurik aundiena an zegoen. Beste berreunen bat metro igaro ta azaldu zuen bere burua. Laxter eman zioten alto. Euskeraz mintzatu zan: non zebillen ta bere izen-abizenak, eta batalloiarena ere bai. Dena bearra zuen.

– Laxter jakingo diagu.

– Ateratzen utzi zadazute mesedez. Bestela, otzak ondatuko niok.

Atera zuten. Baita jakin ere egia ziola. Oraindik aurrean zegoen bere batalloia ta ara joan zan.

Egun artan ikusi zuenarekin izutua geratu zan. Armik gabe ta artara zauritua zegoen gazte bat, galdera geiago egin gabe, ain ajola gutxirekin iltzea!... Etzuen gaiñera lenengoa izango. Bilbao erortzerako ordaiñak artuko zituen noski. Besteak etzion barakatuko.

Joakiñen asmoak indartzen ari ziran: bizia gordezten bazuen, lagun urkoen serbiziorako apaiz egingo zala. Maitasunez antzu bazegoen ere mundua, berak, etsai ta lagun, denak maiteko zituen.

Urrengo egunean batalloi au atzera joan zan atsedentzera, berriro deia artzen zuten arte; ta beste berria etorri ordeko.

Atsedentzeko beta aundirik etzieten eman. Sekulako eraso gaiñean zutela-ta, egun batzuk lenagotik zabaldu zituzten gudariak inguruko erri txiki ta base-rrietan. Joakin ta beste iru lagunek Zeanuri'ko erri

zoragarrian igaro zuten arratsa, goizean aurrera joateko. Egunsentia baiño len jarri ziran, bada, beren lekuetan. Eguraldi bikaiña zetorren. Etsaiarentzat bentaja.

Oso goiz egin zuen egazkin txiki batek agermena, eraso izango zuten inguru aiek ikusiz. *El alcahuete* esaten zioten egazkin orri. Ura azaldu ezker, seguru zan sarraskia. Agintariren bat ibilliko zan noski.

– Gaur ikaragarria badiagu –zion Joakiñek.

– Naiago nitek euriari erasoko balio –erantzun besteak–. Bizia maitagarria baita. Ez litekek aurrera urrats bat ere emango. Aideko oiekin txautzen gaitzitek.

– Alperrik ari gerala jakinta, etortzen gaituk bada gu onera.

– Aspaldi ontan amaika aldiz nere burutik igaro dituk oldozpen oiek. Gerok, ordea, ortarako eskeiñi dizkiagu gure biziak.

– Baita eskeiñiko ere. Iltzen bagera, il. Bestela, oiek odol otzean bukatuko ditek gurekin. Edo oien ankapean buru-makur, arpegira begiratzeko lotsaz, ibilli bearko diagu. Al badegu, berriz, norabait iges egin.

Orrela izketan ari zirala, entzun zituzten runrunak.

– Emen dituk! Ai zer txikizioa!

Bakoitza bere lekura joan zan, babeslekurik billatzen ote zuten. Goitik beera datorren burni-erasoarentzat ez da errex. Egazkiñak lasai ari ziran aronera, iñoren beldurrik gabe. Ez baizitzaien etsairik azalduko. Bota zituzten beren bonba guziak gudariak ezkutatuta zeuden zuloetara, ortotsa baten orroak zabalduz. Ondoren, burni ta arri-burrunda ta txistuak nabaitzen ziran. Lau aldeetara aidatuz lur biguiñean erortzen ziranean, egundoko zuloak egiten zituzten. Tarteka entzuten ziran karraxiak eta kami-

lloeroei egindako deiak. Auek laxterka azaldu eta eramango zituzten, batzuk illak eta besteak zaurituak.

Lenengo egazkiñak beren sabelak ustu zituztenean, berriak zetozen. Orrela jardun zuten luzarotan, bazter guziak txikituz. Bazuten kamilleroak lana berriro, illak eta zaurituak ateratzen. Ondoren artilleriak egingo zuen saioa. Auek ere luzarotan jardun ziran. Baiña ixildu ziranean:

– Erne, mutillak! Etsaiak emen dituk!

Etzan tiro-otsa besterik entzuten. Urbil xamarre-raiño etorri ziran, baiña eusleak indarrean zeuden oraindik; eta beren il ta zaurituak artuz, erretiratu ziran. Atsedean-aldi ortan gureak ere bildu zituzten berenak, eta gudari berriak sartu. Etsaiak gogorrena jo zuen lekuetan bai-baiziteken andik sartu naia izatea. Joakiñen ondoko lagun bat illa eraman zuten. Beste irurak ondo zeuden.

Berriro asi ziran egazkiñak burnia euri, beren txiki-lanetan. Auek bukatu orduko, artilleria lanean.

– Erne, mutillak! Emen dek eraso!

Ia ezkutuetaiño igo ziran. Batez ere, Joakin zegoen aldetik jo zuten indarrean, eta an bakarra gogor egiteko moduan. Bat illa. Joakin, berriz, ondotoxoz zauritua. Alare, sutan jardun zuen. Gogor eusten zioten biak. Baiña azkenerako larri ziran. An utsun aundia arrapatu baizuten.

Egun artarako aski zan. Etsaia berriro atzeratuz, ateratako lekura, beren il ta zaurituak bilduz.

Erri txiki artan lo egindakoetatik, bakarrak izan zuen biurtzeko poza. Bi il ta Joakin ospitalera, naikoz zauritua. Bere ingurukoari granada batek lepoa moztu zion, eta aidean eraman andik gainbeera bidepuska batean.

Kamilleroak etorri ziranean, bat Joakiñen ezaguna. Ala esan zion:

– Zauritu aute noski?

- Bai, ta ondo xamar.
- Alde ontatik gogor jo ditek.
- Ia bakarra geratu dek, eta Bilbao'ko nere gu-dak bukatu dituk.
- Bai gureak ere. Gaur atzeraka joan diran arren, sekulako jipoia eman zigutek. Utzitako utsu-nak betetzen ez dek errexa izango. Aidetik txikitzen dizkitek bazter guziak.
- Berak ere artuko ziteken.
- Bai; baiña gure alderatzekorik ere ez. Aiek aurretik bakarrik. Gaiñetik ez, ordea, guk bezela. Gure aldean, ondo armatuak zebiltzak oiek.
- Nere lekua ere norbaitek bete bearko dik. Nai badegu ikasi, lezio ederrik erakusten zigutek emen.
- Ez dek erreza izango irea ta beste bi lagunena ere. Illak jetxi dizkiagu. Imanoli, ezpatarekin moz-tuta bezela, ainbeste bidean eraman zioz burua.
- Gizarajoa! Atzo ala esaten ziguken: «Auxe bu-katzeko bazeukat, bada, gogoa. Bazekit nere emaz-teak aurtxo bat izan duela. Uraxe nere besoetan ar-tzeko zaleturik nagok».
- Nor ote da zoritxarrekoena: il dana edo bere alarguna?
- Zalantzik gabe, alarguna. Arek bukatu dik mundua. Il danaren berri jakitean, ez dik onek atse-gin aundirik artuko.
- Polliki-polliki jetxi zuten bideraiño. Andik aurre-ra berebillan. Ia bi orduan, inguruko lagunak il ta biren arte -bat zauritua ta odol jario- eutsi zioten beren lekuari, lauren lana biren arte egiñez.
- Garai txarreko zauria dek auxe -zion Joaki-ñek-. Laxter sartuko dituk eta al dutenak iges egingo ditek. Ni, berriz, emen utziko niotek. Subegorriak billatzen banau, laxter asiko dek oiuka, azkena par dagienak bi aldiz egiten duela.
- Joakin ospitalean geratu zan, bada, il zitzaizkion

lagunak ezin azturik eta gertakizunen zai, ala esan baliteke. Presaka antolatutako ospitala jarri zuten ikastetxe batean. Bazijoazen egunak. Ospitaletik, batzuk barrura, besteak kanpora. Sartu, atera baiño geiago noski. Izugarrizko zanpetakoak entzuten ziran. Azkenetan zegoen Euskadi'ren izaera. Amaiak bere alde eman zuen bizia. Alperrik izango ote zan? Geratzen ziranekin, berriz, zer egingo ote zuten?

Joakin zearo aspertua zegoen. Ezer egiterik ez. Zauria nekez ari zitzaion sendatzen. Etsaiak ospitalean arrapatuko zuten. Joxe bere lagunak ikasi zuen, ondotxo zauritua olako ospitalera eramana zala. «Al badet, arixe bisitatxo bat egin nai niokek».

Berak uste baiño ondatuago arkitu ere. Etzegoen iñorako moduan.

– Kaixo, Joakin! Alperkeriari eman al diok? Aran beltzak arrapatu aute noski. Zer moduz? Joateko aiñean bai?

– Bi aldiz zauritu niotek. Lenengoa, deus ez; arramaxka bat. Baiña oraingo au sakona dek gogotik. Neretzat bukatu dek guda.

– Guretzat ere bai noski, emengoa beiñepein. Bilbao ustutzeko agindua emana zegok. Bi batalloi zeudek aurrean eusten, emendik nai duen guziak iges egin dezan. Negargarria emengo azkena. Nik suerte ona izan dit. Orain arte etzidatek arramaxka bat ere egin.

– Nik ezin nezakek beste orrenbeste esan. Eta gu, ospitalean gaudenok, ez ote gaituzte aintzat artuko?

– Ez dek erreza izango. Goiko jende orrek aurre-ragoko lanak bazeuzkak. Oraingo batalloiak beren buru egiten dutenekin joango dituk, eta ezin dutenak bertan geratu bearko. Ez balira bezela aztuak ez noski. Baiña eziñaren aurrean etsaia jabetu dedin.

– Epela sartuko zigutek, oien eskuetara gu saldu-

ta. Ori egiten badute, izan ere, zertan arritu? Jokaera ori betiko ditek: izen aundikoak salbatuta, gu, bizia eskeñi degunok, arategirako utzi. Ori dek ikasi bear degun beste lezioa.

– Al badet, oraindik beste ikertxo bat egingo dit, zer erabaki artzen duten jakiten detanean.

Zai geratu zan Joakin. Baiña etzan etorri berriz Joxerik. Eziña nonbait.

Polliki-polliki ustu zan Bilbao. Arratsa oso ixilik igaro zuten. Gudarien batalloi bat geratu zan uria zaintzen, alako sarraski gaiztorik egin etzezaten gorriak. Eguna aurreratu xamarra zanean, atera ziran, katakunbetatik bezela, ordurarte beldurak ixilik egon ziranak, sekulako iskanbillarekin:

– ¡Viva el glorioso ejército español!

Non ote zeuden oiek? Ez bazan gudarien bata-loia zaintzen geratu, bat baiño geiago eroriko ziran. Orain aiek besteren bizkar par egingo zuten.

Joakiñek ospitaletik igjerri zion:

– Erori dek Bilbao! Jainkoaren eskuetan utzi be- arko nere etorkizuna!

Sartu berri oiek laxter azaldu ziran ospitalean. Sendagille asko iges joan ziran, baiña ez denak. An zaurituak zeudenen izenak artu zituzten, sendagillea- ri galdetuz:

– Nor dira emendik ateratzeko moduan daude- nak?

Andik espetxera, alegia. Sendagilleak eman zuen banaka-banaka denen iritzia. Baiña Joakiñengatik ezetz.

– Oraindik etorri berria da. Zauri gaizto bat dau- ka.

Alaxe, joan ziran gaixotegiko ateetan zaindariak jarrita. Beraz, an barrungo gaixo, sendagille ta gaixo-

zai guziak baituak geratzen ziran, nor nor zan txe-
etasunak ikasi arte.

«Esku onetan erori nauk» zion berekiko Joaki-
ñek.

Baiña ordurako bere errian agiri guziak eskatuak
zituzten, eta bere adiskide lege-gizon arek, aldez au-
rretik, sartuko zirala igerrri zionean, erritik Bilbao
aldera iges egindako erritarrentzat bialiak zituan.
Aiek garaiz irixten baziran, Subegorri ta gaiñerakoak
etzeukaten zer egiñik.

Egunak igaro arren Bilbao artu zutela, etzuen
iñoren bixitik izan. Zauria ere polliki-polliki bazijoa-
kion ixten.

«Zergatik ez ote zan Joxe etorri?» galdetzen zion
bere buruari.

Erantzuna errexa zan: ezin zuelako. Beste gaiñe-
rakoan, bizkarrean eramango bazuen ere, ura etzan
laguna etsaien eskuetan utzita joango.

Sendagilleak betiko azterketa egin zion, eta
oraindik lengo iritzian zegoen: zauria ondo zijoala,
baiña gordin xamarra oraindik. Ez beiñepein espe-
tzera edo gudara eramateko moduan.

– Pakean uzten baditek, laxter noranaiko ago.

Joakin, bada, aspertua zegoen, eta oraindik egu-
nak an bota bearko zituen. Zoritzarreko izan zan
beretzat Bilbao'n igaro zuen denbora, ta zauria ordu-
rik txarrenean egiña. Orain, sendagilleak baietza
eman arte, etzeukan ateratzerik. Eta, seguru asko,
andik espexera.

Subegorria, bizi bazan, etzan lo egongo. Non ote
zegoen ikasiko zuen. Egun batzuk utziko balizkiote
zauri ura zerbait sendatu arte, ez luteke bera ospita-
lean arrapatuko, ez. Ikastetxea zan gaiñera, ta iñork
gutxiena uste zuen lekutik iges egiten errexa. Etzan
bada aldegitteko gauza, ta Subegorriaren bisitaren
baten beldurrak zegoen.

BEGIA LUZE

Apaizgaiak ibiltzerik ez bazeukan ere, Antton Subegorria, larru-aldaketa egin ondoren, gaiztoa zetorren. Bizkaia artzearekin, goiko txabolatik iges egindako ura nai zuen non zebillen jakin, bizi edo illa zan. Bere anai Joxerekin etorria zala bai-baizekien. Aurrera joana izango zala, ori zan bere beldurra. Etzuen uste inork Bilbao'tik ateratzerik izango zuenik. Baiña bere zoritxarrerako, ustua arkitu zuen. Zauritua agian, ospitalen batean arkitu ziteken, bes-teen saillean ezin joanik geratua. Aretxen gora-beerak ikasi arte etzegoen lasai. Bere anai txoro ura ere non ote zebillen? Biak aiek noski elkarrekin, etorri ere ala egin zirala-ta Bilbao'ra. Ego aldeko jende ori omen da, guk entzun degunez, gorrotorik joaten etzaiona. Euskalerrian ere gure artean badira ola-koak. Ez dute isatsa zapaldu bearrik kozk egiteko. On egiñaren esker aundirik eman ere ez.

Emengo deabru guziak badute suertea, arek ere bai. Orduan eziña iruditu zitzaion, baiña bai laxter billatu ere. Azkeneko orduan Bilbao zaintzen geratu-tako lagun batekin topo egin zuen. Bera bezela, apaizgai izana. Baiña bizibide ori utzi zuela urte pare

bat baziran. Arek ere begitan zeukan Subegorria, Euskadi'ren aurkako bere griña gaiztoarengatik. Iku-si orduko, agurtzeko betik eman gabe, oni galdetu zion ea bazekien Joakin apaizgaiaren berri.

– Bai, bai. Olako erasotan zauri sakon bat egin zioteken. Olako ikastetxera eramana izan bear dik. Ez badute berebillan-edo atera, oraindik an egongo dek. Ez uan oiñez joateko gauza. Zer: laguna al dek?

– Laguna edo ez ainbesteraiñokoa noski. Len elkarrekin ibilli bagiñan ere, azken aldera autsi genin. Arekin zorretan utzitako arazo txiki batzuk badizkit eta aiek garbitu nai nizkikek.

– Arekin zorretan? Sinisteak ere lanak ematen zizkidak.

– Eskerrik asko. Lenbailen egin bearreko gauzak dituk auek. Gero agian ez dit egokierarik izango –esanta aldegin zuen.

Bereala damutu zitzaion non egon ziteken esana. Joakiñek bere etxean gertatuaren berri eman baidzion.

– Urdea aleena! Ondo txoro arrapatu nauk. Au, berriz, ura galtzeko asmoan zebillek, eta nik ezer egiterik ez, baitua naukatek eta.

Antton Subegorria, bada, arro-arro ta garaile, Bilbao artutako agermenetik dotore jantzia, aspal-dian egositako lana betetzera joan zan andik txuxenean. Ospital guziak ordurako baituak zeuden. Ango langille ta gaixo guzien izenak artu ondoren, sarrerako atean soldaduak zaintzen jarrita utziak. Ospital guziak banaka-banaka aztertu ondoren, billatu zuen bere lagun izanak erakutsi zion lekua. Norekin itzezin nai zuen esan zienean, etzioten sarrerarik galerazi, naiz beltzez jantzitako oiek begien aurrean ikusi nai ez izan. An zegoen sarrerako karteltxoan bere Joakiñen izena, beste askoren artean. Bere zorrierako billatu zuen nai zuena. Ai zer uste gabe-

koa! Dotore, falanje-jantzian, azaldu zitzaion aurre-
ra. Aldamenekoari ala esan zion Joakiñek:

– Bazetorrek beldur nuena, gure Subegorria. Ar-
ma ta guzi gaiñera. Nork esan ote dio ni emen nagoe-
la? Gorrotoaren lanak. Leku onean geratzen nauk
oraintxe. Zauriz josia, baitua, nere burua babesterik
ez, bete dedilla Jaunaren borondatea! Azkeneko par
egiten duenak bi aldiz egiten duela arpegira bota
baietz!

– Kaixo, adiskide! –etzion bein ere izenez dei-
tzen–. Egunaren garai ontan lotan? Ez aiz gaizki bizi,
motell!

– Ongi etorria, Antton. Ik nere izena aztu badek
ere, nik ez oraindik irerik. Arrazoi dek, motell, nere
patxara au ikusita. Kontzientzia garbi daukadan
itxura. I ere agidanean egunaren ordu auetan pasian
abil, eta ez daukak lanetik etorritako itxurik.

– Ni bapo bizi nauk.

– Bai. Ala dirudik. Baiña ez dituk, ez, ik, naiz ni
baitua egon ta zauriz josia ta i nere billa, alare, nik
bezin lasaiak igaro azken egun auk, ni arkitu arte
beñepein. Maitasunak eta gorrotoak askori loa gale-
razten omen ziek. Alare, illunpetako semeak ernea-
goak dituk, argikoak baiño.

– Ik nai dekana esan, baiña orain nereaa aut.

– Alazankoa! Aixa egin aiz nere jabe. Ez nitek
beste orrenbeste esango. Baiña utzi zaiogun orri. Ire
maite oiek zauritu nautelako negok ni emen. Baiña
nola ikasi dek emen nagoela? Edo bi sudurreko tx-
kurrak baiño sudur erneagoak dauzkak?

– Santik esan zidak atzean geratu aizela ta nora
ekarri iñuten.

– Apaizgai ernegatu arek?

– Aretxek berak. Bilbao gorriak txikitu etze-
zaten, erria zaintzen geratu omen dek bere batalloia.
Orain denak baituak.

– Asta-putza aleena! Ixilik egon ziteken. Bazekiken bada arek gu bion berri.

– Beldurrak al ago?

– Ez dek arritzekoa. Ni ez nauk ibiltzeko gauza, ta subegorria aurrean ikusita, nor ez dek izutuko?

– Oraindik iseka egiteko ausardia bai al daukak?

– Etzekit zenbateraiñoko iseka dan ori. Badakik erriak ortara deitzen dikela.

– Ondo zegok. Gaur dena ontzat artzen dit. Berdin ez didak askotan deituko. Zer gertatu zaik?

– Sutan dabillenarentzat badakik: erre bearra. Nere jenioen berri ikasia aiz onuzkero: atzera egiten ez dit ikasi. Zai-lekura etorri zitzaizkidanean su ta garretan, nik ere ala artu nizkin. Nere burua babes-teko, erantzun egin nieken. Nere inguruko lagunak an erori itun illak. Biren arte, ni arantz beltz batek erdiz-erdi zulatua ta odoletan, bi ordu luzeetan eutsi genieken gure lekuari, laguntza etorri zan arte. Gerroztik emen negok. Ez niotek aurrera eraman ere.

– Orduan, *Baliente* izena jarriko ziteken.

– Bai; itxura ederra. Berekin ni aurrera eramateko ez dituk oroitu ere ta. Emen denak maitasunez jokatu diagu. Baiña neri *Baliente* deitzezkeroz, beste guziak ere merezi litekek titulu ori.

– Arritzekoa dek, galoiren batzuk emango zizkitekela uste nin ta.

– Guk ez diagu galoi bearrik. Len esan diten bezela, maitasunez duan eskeiñi diagu gure bizia. Nik etzeukat gizonak iltzeko saritzen duten oien saillean sartzeko gogorik. Neretzat galoiak alperrik dituk. Nere begiak aurrerago begiratzen ditek. Ik egundoko azaiñak egiñak izango dituk. Baiña dotore ator benetan. I ez aiz gudan ibilli. Ori ez dek gudari baten jantzia: zapata txuri-beltxak, galtzak beltzak ondo plantxatuak, andregaiak agian. Ortarako ain izango aiz noski. Ez dit uste iregatik ama ortaraiño

makurtuko zanik. Alkandora urdin beltz illuna, bere bost fletxa ta uztarri orrekin. Baiña ori besteren-tzako. Bi mutur txorrotxeko txanoa buruan, gorri-beltxa, parpal jario. Larruzkoa gerrikoa, bere pistola ta guzi. Ille aundia, txapelpean naastua. Okotzeraiñoako patilla zikiñak. Gonak, azkazalak eta ez-paiñak pintatu ta takoi altuzko oiñetakoak jaztea palta zaik, neskatx guri bat aizela esateko. Oiek iruzurtzeko al daramak pistola ori gerrian? Ona ago i, gu bezela lokatzetan auspez orduak eta orduak sutan aritzeko.

– Nai dekana esan. Dena entzungo dit. Baiña nere eskuetan aukat.

– Ez orixe. Afrika alde ortara egin nai nitek apaiz bezela txangoa. Berdin emen iretarrak etzidatek utziko.

– Baiña alperrik. Gu garaile gaituk. Laxter bukatuko dituk ire amets oiek.

– Ederra izango uke Joakin neskatx batek ilko balu. Alperrik diok? Ori esatea ere... Urrutirago ikusi nai nitek. Uste ez dan lekutik aizkatzen dek gero erbia.

– Orduan guda au irabazteko itxaropenetan bizi aiz?

– Ez. Lenengo *round* galdu diagu. Etzeukagu zuek bezelako laguntzik. Aidetik alemanak ondatu gaitzitek. Gu, berriz, ortatik barau.

– Zer esan nai uke lenengo *round* orrekin?

– Neretzat, Euskadi artzea dek lenengoa. Au zuek irabazi dezute. Baiña orrekin ez dezute gudik irabaziko. Bearbada, dena artuko dezute. Baiña etzerate erri onen biotzaren jabe egingo. Esnatuko dek Euskadi berriro. Agian erorrek bai ikusi ere. Ik askotan diokena: azkena par egiten duenak bi aldiz egiten duela.

– Orixe esateko asmoan niñun ni. Aurrea artu didak. Ez dek esango gudik ez degula irabaziko...

– Ez oraindik beiñepein. Erdaldunak esaten duten bezela, oraindik pillota tellatuan zegok. Ikusiko diagu zein aldetara erortzen dan.

– Ez diagu oraindik bukatu. Baiña zuek gero ta aulago, ta gu indartsuago giazik.

– Zuek edo alemanak? Utziogun orri. Zer ikusi aundia zegok, guda au bukatu arte.

– Bai, baiña gu irabazle.

– Aizak: berebizikoak entzun dizkit iregatik esaten ari dirala. Etzekit ipuiak edo egiak izango diran. Zer gertatu zitzaikan aitarekin?

– Nondik ikasi dek ori?

– Indarrean aitari zituen xoxak kentzera joan intzala, ta aitak ortzak erakutsi. Denak ez noski, bat baiño geiago ari ere erori zaizkiok ta. Egia al dek ori?

– Nere anaiak esango zizkin kontu oiek?

– Balitekek. I dotore jantzita ibiltzeko egokia aiz, baiña ez aitaren atzaparretatik askatzeko. Arek oraindik i bezelako xeñoritak zapioa bezela biurtuko dizkik. Txitoarena egingo likek. Sasoi gaitza zeukak arek.

– Neri adarra jotzen ari aiz, baiña...

– Il baiño len jakin-nai izugarria zeukat. Etxetik biali iñutela ere egia izango dek noski. Egundo gura-soak semearekin justizirik egin badute, irekin bai benetakoa. I ez aiz fameli kristau ta paketsu artan bizitzeko modukoa.

– Etzeukat non biziaren paltik, motell. Baita neskatx gazteak ere aukeran.

– Alajainkia! Neskatak neskatxakin?

– Pazientzitik ateratzen ari nauk gero...

– Kalma, kalma, iretzat ohea dek eta. Non bizia-

ren paltik ez dezute izango noski. Jabeak il ta indarrean ere jabetuko zerate ta. Aizak: beste galderatxo bat ere egingo nitek, erantzuteko biotzik bauke.

– Iri egia esateko beldurrak ez gaudek beiñepein, laxter bukatuko diagu ta.

– Gu bion auzi onekin zer ikusi zeukaken nere anai Manueltxok, amazazpi urtez beerako gazte eder arek?

– Nik ez nin ura iltzeko agindu.

– Agindu gaiñera? Nor ote augu? Erantzun aula dek ori, Antton. Ik ekarritako borrhoroak il ziteken ura.

– Ik iges egin ualako.

– Alajainkia! Jainkoa ote augu, ire aginduetara ixil-ixilik makurtzeko? Orduan, anaia salbatzezkeroz, nik bizia eman bear nin; eta ark ere iges egin balu, aitag edo amak. Ezin litekek baten billa joan ta, ura palta dalako, aren ordeez erru gabekorik zigortu. Orren kulpa oso-osorik ik daukak. Bazekit, bai, ondo an zer gertatu zan.

– Utziogun orri, neri naigabe eman zidaken ta.

– Oraintxe begiak zabaldu erazi dizkidak. Deabruak ere baditek orduan biotza. Baiña alare, pekatu gaizto ori egiñagatik, damutu ta ez intzan neri laguntzera etorriko. Ez daukak oraintxe egokiera txarra.

– Ez, motell. Ireak egin dik. Euskadi illa zegok eta lur galduan eortziko aute.

– Euskadi illa? I lenago joango aiz, bai. Bere pizkundera ikusi ta gero gaiñera. Alare, bazekit subgorriaren biotzik ez dala xamurtzen.

– Iseka gaiztoak dituk gero oiek.

– Zer uste dek: i ni iltzera etorri ta apal-apal, buru-makur ta agurka artzea? Laguntzeko asmoan azaldu baintzan, ez nin ortara itzegingo. Nik zuzena-

gatik egin dit lana; ez gorrotoagatik, zuek bezela. Iltzen banauzute ere, nik goian zeukat nere itxaropena.

– Mundu ontan zegok gure etorkizuna; ez an. Ik au galdu dek, berriz. Gerokoarekin ez nauk batere pio.

– I ni baiño lenago joango aiz mundu ontatik, eta ori al dek azkena par egiten duena?

– Nere filosofia ori dek.

– Eta zuek al zerate gu sinisgabeak gerala ta zuzenbidean jartzera zatoztenak? Deabruak, alajainkia, relijioa salbatzera! Egunen batean damutuko zaik. Ez dedilla beranduegi izan.

– Ik ez uke orduan ni galtzerik nai?

– Deabrua berbera izango niñuke, iñori inpernua opatuko banio. Gazte nauk oraindik. Ez dit iñorekiko gorrotorik nere biotzean sartzea nai. Iri ere naiko probak eman dizkit. Eriotzatik salbatu iñuan bein. Bi edo iru aldiz nere atzaparretan eduki aut. Nere bizia salbatzeko aiña beste txarrik ez dit egin. Anai gaztea illerazi uan. Orain ni iltzeko asmoan abil. Alare, ire asmoak pakezkoak ez badira ere, nereak ala dituk.

– Zer: belauniko jarriko ote aiz bada barkazio eske?

– Barkazio eske? Nori, i aiz erruduna ta? Ez, motell. Deabruaren aurrean ni ez nauk makurtuko. Bizia lenago emango dit onore guziarekin, ortara erori baiño len. Pekatu auek denak ire bizkar joango dituk. Naiago dit opari il, borrero bizi baiño. Sutan sartu gabeko neskatx espatsu guri baten antzeko ume ergel bat neri kargu artzera etorri? Jesusek ziona esango dit nik ere: oa nere ondotik, Satanas!

– Ik nai dekana esan, baiña ireak egin dik. Ik egindako isekak barkatzeko asmoan ez natorrek. Ez nauk aurrean ibilli; sutan ain gutxi. Ortarako burua bear dik, burua! Besteren lanetik jaten ikasi.

– Bitarteko bikaiñak badauzkak orduan. Gudate batean ori irixtea ez dek errex. I atzera geratu ta besteak aurrera biali? Garbi esango dit: zaarrez iltzen baaiz, oraindik Manueltxo ta Joakin, baldin iregatik garbitzen banaute, amaika aldiz ametsetan azalduko gaituk, ire barrun beltz ori salatuz. Ordu txar askoak igaro bearko dituk. Agian nik oraindik apaiz egin ta ire pekatuen barkamena iritxiko dit, ire kontzientzi zikin ori paketuz.

– Bai. Egundo gertatuko ez diran ipuiak, orrekin bigunduko naukkelakoan. Ez nauk orren biotzbera.

– Bein ere egirik esan badek, oraingo au dek bat. Ero gaiztoen biotza limurtzen ez dana dek, motell.

– Ni beiñepein emen negok, ire antzera ero bat bezela ibilli gabe, nai detana iritxita. Ai zer saria eman ditekena, etsaien mende orrela uzteko! Nik Gipuzkoa'n egin dizkit merituak.

– Bai. Erru gabeko nere amasei urteko anai Manueltxo illerazita; nere ta ire gurasoak beldurrak aidean edukita. Ire anai Joxe ere salatu ez uan bada ik? Bizia salbatuko bazuen, iges egin bear. Ori nik daki-dana. Aurrean ibilli gabe merituak egin badituk, Jainkoak bestek ez dik jakingo zenbat billaukeri ez itun egingo, laiñezaz betetako txakur txar baten gisa losintx, maltzurkeri ta azpijanez ire nagusi ustel oiek atzipetuta, belarri ondora *xi-xi-xi*, txibato zikin bat egiña. Naiago dit oraintxe bertan bi tiro artu, olako biotz ustel baten jabe izan baiño.

– Min ematen al dik, min, ni gaillendua?

– Nori etziok min emango amasei urteko anai gazte bat iltzeak? Eta zergatik? Neri gorrotoa didakelako. Aurrez-aurre ezin dutenen lana dek ori.

– Ura ondo illa zegok. Etsai bat gutxiago.

– Ori dek. Nere lekuan beste norbait izan balitz,

orain ez genin itzegiten lanik izango. Nere anaia bizi-ko uan. Norbaitek esan zidaken: «Arrigarria aiz i, Joakin. Nik bertan itoko nin».

– Nere anai Joxek dizkik olako esaerak.

– Arek berak esan zidaken. Emen nagoela, iker-txo bat egin ta aurrera joana dek.

– Bai. Manueltxo joan uan. Nere anaia ere ez dek ondo ibilliko. Baiña orain ire billa etorri nauk. Ik, nai badek, barkatu deabruari ere. Baiña nik ez dit iri barkatuko. Ez dit egokiera au galduko. Ik eginda-ko isekak oraintxe ordain bearko dizkidak ire bizia-rekin.

Joakin lasai ari zan izketan. Ez baizuen uste bes-teak erasoko zionik ainbeste etsairen artean.

– Deabruari barkatzea errexagoa dek, iri baiño. Bakarrik al aiz?

– Bai. Ez dit beste iñoren bearrik.

– Begirok: emen dauden guziak etsaiak dituk gero.

– Oiek zaurituak zeudek. Ez dituk mugituko.

– Oiean gaixo nagoela ere? Ez uke lotsik izango!

– Aurretik i eraman ezkeru, batere etzidak ajolik.

– Ere arma badakarrek. Ez aiz noski emen tiroka asiko.

– Ori etzaidak komeni. Bestela, neroni galduko niñukek.

– Ez al aiz begi-luzeegi izango?

– Burruka-lanetan ondo ikasia natorrek.

– Baiña beti ere i neska. Nik ez dit jiñasi egin bearrik ire lanak egiteko.

– Ni beldurtzeagatik ari aiz noski?

– Tajuak asko balio dik, baiña indarrak geiago. Orregatik, ire onerako aolku txiki au ematen dit: ezertan asi baiño len, obe dekala ixil-ixilik joan. Orrela nagoela ere, armik gabe asten baaiz, gaizki aterako aiz. Lezio ori ikasteko badek onuzkeru or-

dua. Inguruan dauden auek guziak ere, gudariak dituk. Eziñean banintz, nere alde saltako ituke. Beraz, ezertan asi gabe, obe dek etorri bezela joan. Jakin nai nituenak ikasi dizkit, eta emendik aurrera enbazaru egiten didak.

– Orrekin beldurtuko naukela uste al dek?

– Izutu? Oillo bustia bezela daldaraka ago, ta onera bakarrik etorria amar aldiz damututa noski. Oa, oa pake-pakean, biontzat ohea dek eta.

Joakiñen odol otzeko adar jotze arek bere onetatik atera zuen Antton; eta amorruez jauzi bat eginta, bertan itoko zuelakoan eldu zion lepotik. Zauritua egon arren lepoan lotu zizkion bi eskuak laxter askatu zituen; eta indarrean atzera bultza zionean, bi oiñak trabatuz, aldameneko oiaren ertza jo buruarekin ta, unetxo batean korde gabe geratuz, zauri bat egin ta odol jario, beste gaixo baten oatze gaiñera erori zan atzeraka.

Bere onera etorri zanean, arma artu zuen; baiña aldameneko gaixoak etzion betik eman, eskutik elduz. Ango iskanbil ta otsera etorri ziran gaixo-zaiak eta kendu zioten bere arma. Baiña ordurako Joakiñek lotua zeukan eta etzion sutzen utziko. Subegoriaren amorruek etzeukan neurririk.

– Edorrek dituk kulpa guziak. Garbi-garbi esan dit, nere zauri ta guzi i baiño geiago naizela.

Bere buruko zauria lotu ta biali egin zuten.

– Ez dek biar goiza arrapatuko.

– Beti orrela ari aiz itza ta putza, ta ezer egin ez. Iru *round* jokatu dizkiagu, ta iruetan *kao* utzi aut. Ori, gaixo nagoelarik. Orain ere nere eskuetan egon aiz eta barkatu egin dit. Alako «maite itzazute etsaiak» durundan zebillek nere belarrietan. Bestela, onuzkero aspaldian aztua engoen.

– Nik ez dit bada barkatuko –esanta joan zan.

Ura joan zanean, sendagillea urbildu zitzaion, galdetuz:

– Nor dan ezagutzen dek ori?

– Bai, jauna, bai. Txikitatik auzoak gera ta ero gaizto oietako bat.

Itz gutxitan dena kontatu zion. Sendagillea arrituta geratu zan.

– Olako gizatxar bati arma uztea ere...

– Oiek dituzte maiteenak.

– Etorriko ote da berriz?

– Bera ez. Baiña billatzen baditu borrororen batzuk, bialiko ditu.

– Gaixo dagoen bat errespetatzen ez dakitenak, auek al datoz gu ezitzera?

– Denak ez dira olakoak izango. Baiña... uste det, indar egin detan ontan, loturak askatu edo autsi egin zaizkitela.

Sendagilleak aginduta, gaixo-zaiak al zuen ondorena lotu zion.

– Oiek etorriko dituk eta zer egin bear dek ik orain?

– Uzten badidazute, iges. Bestela, galdua nago.

– Nere bistan etzakela egin ori. Norbaitek ikusita ere... Ez gaituk sendagillearekin geiegi pio. Baiña ezkutatuko nauk. Orduan nai dekana egin.

– Eskerrik asko. Babesgarriren bat nonbait billatuko al det!

Joakiñek bazekien etzirala bereala etorriko. Borreroak billatzen ere bearko zuen bere denbora. Baiña bai luzarorako etzutela utziko. Beren baimen ta guzi gaiñera. Bestela, soldaduak sarrera galeraziko zien. Etzeukan, bada, alako presik. Baiña denbora galtzerik ere ez. Atera beiñepein. Ori zan bearrena. Gero gerokoak. Salbatuko ote zan? Etzeukan oraintxe atarramentu ona.

DEABRUAREN IBILLIAK

Anttonek, bere buruko ille arro artan guraizearekin ebakiz txulo txiki bat eginta, esparatrapo txuri batekin estalia zeukan zauria. Isatsa zapaldutako subegorria baiño gaiztoagoa atera zan edo aurrean bializuten. Bizia ere emango zukean arek, bere etsaia illa ikusteagatik. Gaixoa dagoela ere, zilipurdika bota ez du, bada? Ixpillu baten aurrean jarrita, alegiñak egin zituen buruko adabaki txuri ura ezin estaliz. Bere bi muturreko txapela, batean batera, bestean bestera, bueltaka zebilkien buruan, baiña ezin tapatu. «Andregaiak nola egin detan galdetzen badit, gezurra esan bear. Izan ere, lekurik txarreanean egin zidak zauria».

Bere onetatik aterea, ala zion bitartean: «Gutxieneko iru aldiz eraso zioagu elkarri, ta beti nai duena egin zidak. Bi aldiz beiñepein, guda asi ta gero, nai izan balu itoko nioken. Bere eskuetan eduki niok. Gizarajo baten antzera, beti barkatu egin zidak. Kantina Txikian arrastaka atera, berriz, etxetik atarira. Iges zijoala nik eraso. Baiña bildu ta umetxo bat bezela ebaki-ebaki egin ta neraman arma kenduz, bizirik utzi nioken, abian esanaz: «Nik beti, i bezelako bati, ipurdiko batzuk eman ta barkatu egi-

ten zioat». Eta aldegin zin andik. Bereala ikasi nin muga igaroa zala. Geroztik ez dit ordurik ura gogoratu gabekorik. Baiña ez musu bat emateko. Gorrotoak etzidak atsedetik artzen utzi. Neri ez beiñepein, inkurrio gaizto onek begitan daukadana ezin aztua. Bilbao'n sartu arte ala ibilli nauk. Baiña banekiken, anaiak aitari abisatuta, onera etorria zala Joxerekin batera. Emen arkituko nuen itxaropenetan azaldu ta bai billatu ere. Non ta ikastetxean, ondotxo zauritua. Arekikoak egiteko asmoan joan nauk. Parregarri utzi ez niok bada? Bi eskuetatik artu ta aidean bota. Zauritua, odoletan, adabaki txuri bat buruan jarrita, armik gabe biali gaiñera!».

Ixpilluaren aurrean auxe zan Subegorriaren izketa. Baiña txapelari milla buelta eman arren, burua era askotara jarririk, borobil ura ezin du estali. Azkenean, bere onetatik aterata, ala dio, txapela artu ta lurrera erausiz: «Txapel ezkur madarikatua! Zertarako aut, ezin badidak bururik tapatu?».

Baiña berriro jantzi egin zuen. Ura gabe etzan gizona. Kirio guziak aidatuak zeuzkan. Gorrotoaren lana, ta berak ordaiñik ezin eman. Ori omen da deabruaren suprikizunik gaiztoena. Ura galdu arteko onik ez dauka ta badijoa borrero billa. Denak uko egin diote.

- Guk zer ikusi zeukagu orrekin?
- Ez al dezute ikusten zer egin didan?
- Eta guri zer? Or konpon adi! Ire bizkarretik ez dizkigu guk euliak uxatuko. Ire adabaki txuri orrek ez dik oso gaizki ematen. Ire ille arro ortan geratu dan mitxeleta edo maitasunez neskaten batek jarritako loretxo bat zirudik.
- Zoazte denak txakurraren...
- Eddorri ere ez aiz arako txarra.

Aien aurretik daldaraka aldegin zuen. Arek etzekien non zegoen ere. Ura galdu nai ta ezin. Besteak,

berriz, lagundu bearrean par egiten zioten adarra joaz. Nora etzekiela karriketari zebillela, an arkitu zuen Manueltxo iltzen parte artutako bakar bat egurastan. Ikusi zueneko, eskua luzatuz ala esan zion:

– Kaixo, Antton! Ezbearren bat gertatzen al zaik? Urduri abil.

– Ez dek arritzekoa. Ikusten al dek petatxo au?

– Bai. Ille arro ortan maite auen batek jarritako loretxoa zirudik.

– Zer maite ta ez maite! Deabruak eramango al au i ere! Auek ez dituk inori adarra jotzeko orduak. Joakiñek egin zidak au.

– Bizi al dek oraindik?

– Bai; ta Bilbao'n zegok. Billatu dit. Len esan diten bezela, arek egin zidak nere buruko zauri au.

– Eta iges egiten utzi diok?

– Bai; baiña ez nere borondatez, aidean bota niok eta. Baiña berea eman nai niokek. Ospitalean zegok zauritua.

– Eta nork galerazten dik?

– Orain arte beiñepein, eziñak.

– Laguntza eske al ator neregana?

– Bai. Nik bakarrik ezin dit. Ori garbitua ikusi arte ez dit lorik ondo egingo.

– Or konpon. Nik etzeukat ortan zer ikusirik. Oraindik gogoan zeukat Manueltxo mutil gazte eder ura il genduen ikusgarri negargarria. Arrats artan bai nik ez nuela lorik egin. Aingeru batek aiña erru ez ta lotuta iltzera, bera negarrez eta ama atzetik oiuka: «Ez il nere semea, ez du ezeren txarrik egin ta! Ez il!». Illundu egin zitzaizkidan biotza, ta geroztik noiz-nai irudimenera zetozkidak ikusgarri triste aiek. Batare gorrotorik gabe, iregatik egin genin, beti larria ematen didan eriotza.

- Orduan ez didak lagunduko
 - Erru gabea dala bazekit; eta irekin ondo etorzen ez dalako, nik etzeukat or zertan sarturik.
 - Baiña bost rekete aiek iltzen lagundu ziken onek.
 - Gezur borobilla.
 - Orren iritzia nolakoa dan ere bazekit. Zauritua zegok gaiñera.
 - Zauritutako bat, sendatu arte, errespetatu egin bear dik, gero pusillatuko badute ere.
 - Oiek beti egokieraren zai egongo dituk, jauzi egiteko.
 - Ortaraiño menderatuak ere bai? Oiek etzeukatek aurka egiteko algorik. Denak iltzen asten bagera, nola jasoko diagu España? Orduan bai esan genezakela «España libre». Oker abil, Antton. Erru dutenak salatu, ori bai, merezi dutena artu dezaten. Baiña ez gaitezen gure eskutik justizia egiten asi. Bestela, arrapatzen bagaituzte, guk oiei egiten dieguna egingo zigutek guri ere.
 - Lagun jatorragoak neuzkala uste nin.
 - Nongo ospitalean zegok?
 - Ikastetxea dek; olako karrikan.
 - Neregatik, sendatu arte balegokek bertan lasai.
 - Deabruak eramango al au i ere!
 - Irekin dijoana bai deabruarekin joango dala.
- Txuxenean Komandantzira joanta, betiko salaketa gaizto ura egin zion Anttonek Joakiñi.

OTSO-JANTZIAN, BAIÑA ARDIA

Baiña azkeneko itzegin zuen lagun onek aurrea artu zien, gero bialiko zituzten guardizibillei. Kristau kontzientziko gaztea izaki nonbait au. Gipuzkoa aldean erru gabeko asko il zituztela, gorrotoagatik salatuta. Orduan lenengoan arrapatu zuten, baiña ez geiago. Errenderia'n, Joakiñen adiskidea zan legegizon arekin itzegin zuen. Baita galdetu ere zer moduzko mutilla zan ura. Arek garbi-garbi esan zion:

- Errian dan gazterik jatorrenetakoa.
- Eta sartu dioten salaketa gaizto ura?
- Ori dena gezur borobilla da. Ondo ezagutzen det mutil ori. Orrek ez du ezertan parterik artu, on egitekoan bestetan. Zuk aipatu didazun gazte orrek benetako gorrotoa dio.

Ordutik moztu zuen lenengo osatu zuten laukoa. Asmo luzeak ekarri zituzten Gipuzkoa'ra. Baiña laxter antzeman zion kalte gaiztoa egiten ari zirala. Len gazte ura il bazuten, bere anaia salbatzen alegiñak egingo zituala. Bi aldeetan zebiltzan kontzientzi garbiko gizonak.

Artu zuen bada falanjeak ibiltzen zuten buzo urdin oietako bat beretzat egiña, bular gaiñean bere

fletxa ta uztarria gorriz idatzia, bere gerriko ugalarekin; eta txuxenean ikastetxe artara joan zan. Sarre-ran galdera batzuk egin zizkioten, baimena eskatu zuenean.

– Ez dituk bi ordu, emen zeukan etsaia, iltzera etorritako bat, biali dutela. Ez aiz bada i ere ala izango?

– Lagun bat zeukat barruan ia jaztekorik ere gabe. Ikertxo bat egin nai niokek, eta bere larru gorria estaltzeko buzo urdin bat ekarri.

– Nola dakik emen dagoela ta zer jantzirik ez daukala?

Gezur txiki bat esan zuen:

– Bere gurasoak abisatuta.

Uzteko bada arma atean. Erteeran artuko zuela.

Alaxe sartu zan. Bere izen ta abizenak bazekizkien eta etzuen billa ibilli bearrik: sarrerako izenen zerrendan an ikusi zuen. Joakiñek-eta, barrura sartzan ikusi zutenean, ala esan zioten elkarri:

– Orain ere badiagu beste ongilleren bat. Erdi gaitz alare: armik gabe zetorrek. Bilbao'ko espetxe ta ospitalak ederki aztertuko dizkitek kanpotik datozen gure etsaiak, ea emen arrapatzen ote dituzten begitan dauzkaten aiek.

– Nor da emen Joakin Lazkano?

– Ni, Jainkoari ta Euskadi'ri serbitzeko.

Esku emanaz, «Ongi arkituak» agurtu zituen, eta aldamenean eseri.

– Lenengo itzetik barkazioa eskatzen dit, Joakin.

– Nik zer barkatu bear dit, nor aizen ere etzekit eta?

– Nik bai, ordea, i. Anttonen bitartez i iltzera joan giñan lau aietako bat nauk.

– Nik iges egin da anaia garbitzera eramana.

– Utz idak izketan, dena agertu arte. Ire anai

Manueltxo il zutenean, an niñun ni ere, baiña ez nin parterik artu. Ertetzeko asmoan giñala, ordu txarrean jetxi uan ire anaia eskallerak beera. Ura artu ta il ziteken. Baiña nik ez nin olakorik nai. Non il zuten ere etzekit ezertxo. Orduantxe berezi niñun aiengandik. Ni ere kristaua nauk. Nere iritzien alde bizia emango nitek, bear bada. Baiña odol otzean erru gabeko bat iltzea, nere kontzientzirako pekatu gaizto bat dek.

– Eskerrik asko. Otso-jantzian ator, baiña noski ardia izango aiz. Nik denei barkatzen ziet. Ik esan dekan Antton deabru orri ere bai.

– Bejondeikela! Gorrotoz sutan ibilli baiño obe dek. Igualeko lasaiago geratzen dek bat.

– Orduan gure etxeko isillu guziak ikusia aiz i?

– Bai; baiña beste alakorik ikusteko gogorik gabe geratua.

– Ikusia zegok, elkarren gorroto aundi gabe asko gabiltzala gudan.

– Aolku bat emango dit, Joakin: bizia maite badek, aldegin zak lenbailen emendik. Salaketa gaiztoa egin ditek Komandantzian. Ik jakingo dek noski zer dan eta nork egin diken. Bereala gaiñean dituk guardizibillak.

– Ez dek bada au, ni barru ontatik aterazi ta kanpoan arrapatzeko azpijanen bat izango? Txeetasun guziei begiratu bearra zegok.

– Ez olako juzku txarrik egin. Ziur bazekit erru gabe aizela, ire erriko lege-gizon batek esanta. Zebat eta beranduago atera, okerrago dek iretzat. Falanjisten buzo bat zekarret nerekin. Ondo izango dek noski. Orrekin ederki antzaldatur joango aiz.

– Sinisteak ere lan dik, baiña etzegok ire biotzean iruzurrik.

Berriro esku emanaz:

– Agur, Joakin. Lenbailen alde egin zak gero.

– Eskerrik asko denarengatik. Jainkoak gogoan edukiko dik etsai bati ori egiña. Ebanjelioak dionez, «maite itzazute etsaiak».

Arek aldegin zueneko, ala esan zion lagunari:

– Pin ote zebillek au?

– Ortan ez dudarik jarri.

– Orduan joan egingo nauk.

– Ire lekuan banego, ez nikek bi aldiz pentsatuko.

– Olako billauak ere tartean izaten dituk gero...

– Bai; baiña au ez. Orrek esan duenez, barruan ez daukak igesbiderik. Saia adi emendik kanpora. Al dekan azkarrena Bilbao'tik ateratzea komeni zaik. Ori dek ire itxaropen bakarra. Erortzen baaiz, suerte txarra esaten zioat nik orri. Denok arraixku ortan gaudek.

– Agur, bada, Lontxo. Ez al dek ire bidean nik bezelako deabrurik arkituko!

– Agur, Joakin. Bizi bagera, oraindik elkar ikusi genezakek.

Komonetarako aitzakitan joan zan. Arek eman-dako buzoa jantzi zuen eta, zearo antzaldatua, ango leiotik jetxi ta agur egin zion ospitalari. Gaixozaia, ez ikusia egin ta leioa itxiz, ezer gertatu ez balitz bezela bere lanetara joan zan.

NORABAIT

Sendagillea norbaitek iges egingo zion beldurrak zebillen. Berak jakingo zuen baitzera etorritakoak zer eskatu zioten eta zer eskeintza egin zioten. Erne zegoen, gau ta egun zeletan. Norbaitek esanta, ikasi zuen Joakiñek bigarren bixita izan zuela. Zer esan zion jakin nairik, joan zan berarengana, iges egin ta bereala. Gaixoak banaka-banaka ikusiz, oatze ura utsa somatu zuenean, ala galdetu zien ondokoei:

– Nora joan da gazte au?

– Bigarren bixita izan du, lenengoa baiño atsegiñagoa. Pardeltxo bat ekarri ere bai. Falanje-jantzian etorri zaio; ta bizirik maite baldin badu, lenbailen ateratzeko aolkua eman dio.

Sumindu zan:

– Len doi-doi salbatu diagu, ta orain atzipetuta iges egin?

– Ez dakit salbatuko dan edo ez. Baiña onek ez du atzipetu au. Etxera iltzeko asmoan ararrapatzera joan ziratenean zer gertatu zan kontatu dio. Geroztik ez dala aiekin batu.

Beste bati ere galdetu zion ea bazekien Joakin non zan.

– Pardel bat eskuan komonera dijoala denok ikusi degu. Baiña etortzen ez.

– Zenbatsu denbora bezela?

– Ordu pasatxoa noski.

– Orrek bere burua galdu dik –zion sumindua.

– Arraixkatu beiñepein. Ori da bere itxaropen bakarra. Gaur illundu baiño len guardizibillak etorriko zaizkiola esanta joan da.

– Orduan komonetik iges egingo zuen, eta iñork ikusi ez.

– Nik banekien –erantzun zion aldamenekoak–. Neri esanta joan baita. Baiña ni nor naiz, bizia salbatu nai duen bat salatzeko? Nere iritzian, ederki egin du.

– Nere larruan baengo, ez uke ori esango.

– Zuk zer ikusi daukazu ortan? Gu bezela baitua etzaude? Edo gure biziarekin zurea salbatu nai dezu?

Sendagilleari susmur txarra artu zioten gaixoak.

– Txorakeri ederra egin dik beiñepein, iñora joateko ez dek gauza oraindik eta. Erortzen bada, emen arrapatzea baiño okerragoa izango zaiok, iges dabillea.

– Emen edo kanpoan arrapatuta il, berdin-berdin dio.

– Zalantzik gabe, bigarren falanje au lenengoaren laguna izango uan.

– Sendagille jauna, guk ez dakigu besteren intenzioa irakurtzen.

– Erokeria egin dik orrek. Etzin nerekin itzegin gabe atera bear.

– Sendagille jauna, utziogun orri, gero ta usai txarragoa artzen diot eta.

Ordukoz arazo ori ixilik geratu zan. Asarretua aldegin zuen andik sendagilleak.

Arratsalde erdia baiño len, espetxeko atetan

guardizibil bikote batek egin zuen Joakin Lazkano-ren galdera. Zaitzen zeudenak, baimenik ba ote zuten galdetu zieten. Baietz; Komandantzian artu zutela agindua lotuta eramateko; bere errian arrapatutako reketek batzuk iltzen ikusitakoak bazirala.

– Orduan, gizarajoak ez dauka ordu askoko bizi-rik.

– Komandantziara eramane ta galdera batzuk egin ondoren, gure bizkar geratuko da, mutil ori ixilka nunbait pusillatzeko.

– Ez dezute lenengoa izango? –galdetu zuten aiek.

– Ezta azkenekoa ere. Gu oso arro gaude, goikoak gurekin konfiantza au artzen dutelako.

Gaioxozai batek egiten zuen espetxeko atezai. Egitazkoak aldegiñak baiziran. Aren bitartez ikasi zuten, aiek eskatzen zuten mutilla etzegoela an.

– Nola liteke ori, kartel ortan dago bere izena ta?

– Bai. Goizean bera ere emen zegoen. Baiña orain ez. Komonerako aitzakitan joan ta geiago ez omen da azaldu, diote ingurukoak.

– Gaur arekin itzegin duen batek salatu du emen dagoela.

Gaioxozaiak sendagillea deitu zuen, zer gertatzen zan adieraziz.

– Eta nik zer ikusi daukat orrèkin?

– Zu deitzen zaituzte.

– Ondo dago. Joango naiz.

– Zure baimenarekin aldegin du emendik? –galdetu zioten.

– Ez. Oraindik egun batzuk bear zituen. Sendatuta ere, etzeukan aldegiterik goikoen baimenik gabe. Gu denok, ordekoak etorri arte emen egoteko agindua artu degu. Baiña baituak gaude.

– Orduan zure erantzunkizuna zan ori emen edukitzea.

– Ezta inolaz ere. Nere egitekoa ez da besterik: auen osasuna. Iges egin badu, berak aterako ditu kontuak. Badakizute gaiñera au ikastetxe bat dala, ate ta leioz betea. Nai ta ere, emen gauden aleok ezin gentzake au ondo zaindu.

– Auek iges egin gabe emen edukitzea zure erantzunkizuna bezela artu etzenduen, bada?

– Bai. Egia da ori. Baiña ez didate eskatutako laguntza biali.

– Guk ez dizugu ori ukatuko. Baiña guk eramateko agindua artu degu. Or konpon.

– Alegiñak egingo nituen ezezkoan. Ez baizegoen oraindik sendatua.

– Emen goikoak agintzen dute, ta ez guk.

Bada ez bada, etzien erantzun. Aiek arro azaldu baiziran.

Gaixoen artean zabaldu ziran sendagilleak zituen asmoak eta billautzat jo zuten.

Andik laxter irratiak abisatu zuen:

– Ospitaletik gaizkille batek iges egin du. Non dabillen dakienak, abisatu dezala. Joakin Lazkano da bere izena. Norbaiten etxean gordea arrapatzen badute, bertakoak gaizkillearen zigor berbera artuko dute.

Guardizibil ta ertzaiñak aizkatu ziran.

GORDELEKU BILLA

Bilbao'n barruan, baiña ertz batean, etxe txiki bat, goi-beeak jota, txiki milla puska egiña zegoen. Jakiña, alemanen lana: aidetik ondatur. Andik berrogei ta amar bat metrora, beste etxe txiki bat, txalet antzekoa, bere baratza ta guzi. Ango leiotik begira zegoen batek, ikusi zuen mutil gazte bat errenka-errenka, txikitutako etxe aldera artzen.

– Zertara ote dijoa ori orrera? –zion berekiko–. Galtzak askatzera, ziur asko. Edo iges dabillenen bat, gordeleku billa.

Baiña gero, obeto begiratuta, urruti xamar egon arren, nunbait ikusi ote zuen iruditu zitzaion; eta, ziur jakiteko, katalejo batzuk artu zituen.

– Bai. Zalantzik gabe, ori olako dek. Baiña Bilbao'n geratzeko, zer gertatu ote zaio? Errenka zebillek. Zauritua, ezin joanik, ospitalen batean utziko ziteken. Falanje-jantzian, ordea. Norbait il ta iges egin ote du?

Baiña ura nonbaitik or ezkutatzera zetorrena. Etxe zaar aren ondakin artean sartu zan beiñepein.

– Gizarajoa, ez dek bada ik orrela ibiltzea mere-

zi. Ik neri esandako itzak ondo gogoan zeuzkat nere buruan jasoak.

Bere alaba bakarra ara joaten zan egur batzuk sutarako ekartzera. Istillu txarrak ikusi zituzten aita-alabak, eta etziran martxan jarri. Orregatik, etxean etzeukaten ez ikatz ta egurrik.

Berak ustez ezagutu zuen mutil ura an ondakiñetan ezkutatu zanean, oartu zan bere alaba aizkora ta saskia eskuan ara sartu zala. Baiña neskak etzuen mutilla ara joaten ikusi. Ezjakiñean sartu zan, bada, ura zegoen lekura. Aita, bada ez bada, erne zegoen leiotik.

– Nik uste detan mutilla ez bada, zer gertatuko ote da or? Beltzez jantzitako oiek errespeto gutxi daukate iñorekin, gudatean eta gutxiago.

Leioan berekiko au ziona eskubitarra zan, baiña etzan piatzen patill aundi oiekin. Berak uste zuen mutilla, berriz, beste aldekoa. Baiña bear-bearreko lekuan erakutsi zion kristau zintzoa zala.

Ondakin tartean sartu zan neskatxa ere. Mutil bat ari zala oartu ere bai, falanje-jantzian gaiñera, ezkutueneko baztarrean aztarrika, arri batzuk bat bestearen gaiñean jartzen, gordeleku bat egiten noski. Begira-begira jarri zitzaion kanpotik, aurrerago sartzeko beldurrak. Etzekien atera ta etxera joan edo egur egiten asi.

Mutillak, kanpo aldera begiratu zuen batean, bere gordelekutik ala esan zion:

– Neretzat bazkariarekin al zatoz?

– Ez nekien emen zeudenik. Egur billa etorri naiz.

– Egizu, egizu. Ortarako leku ohea da au.

Ta kanpo aldera abiatu zan.

– Emen ere ez nago noski seguru.

– Zergatik ez? Nik izutzen al zaitut? –erantzun zion neskak.

- Zuk ez. Baiña zu nor zeran ez jakiteak bai.
- Neskak bereala igerrri zion ura iges zebilela, ta ala erantzun:
 - Norbaiten beldurrak zabilta noski.
 - Ori da egia. Ni emen gordetzeko asmoan etorri naiz, illunbistan Bilbao'tik ateratzeko. Benetan zauritua nago ta atsedean artu nai nuen.
 - Eta zeinek galerazten dizu?
 - Zuk. Badakizu non nagoen eta salatuko nautzun beldurrak. Ori da guzia.
 - Orren neskatx narratxa al dirudit? Nere adiñeko batek zu bezelako mutil gazte bat ez du egundo salatuko.
 - Egitan ari zera edo atzipetu egin nai nauzu?
 - Gaiztoenari ere ez nioke olako billaukeririk egingo.
 - Txuxenean ez noski, baiña zearka bai beste norbaiti kontatuta. Gaiñera, ni nolakoa naizen bai al dakizu? Jantzi onekin, otsoa edo ardia naizen?
 - Falanje-jantzian zabilta ta ala izango zera noski. Baiña benetan arritzen naiz zureetatik berex ibiltzea.
 - Jantzia, bai, ala daramat. Ez naiz, ordea, falanjea, aurrera joateko indarririk gabe saldua geratu naizen gudaria baizik.
 - Orduan ez naiz batere arritzen iges ibiltzea.
 - Garbi-garbi esango dizut zertan dagoen nere larria.
- Ta dena kontatu zion.
- Orregatik, gaur Bilbao'tik atera nai nuke. Bes-tela, nereak egin du.
- Gogorra da, orratik, orrenbeste aldiz barkatu diozunak ori egitea.
- Bai; ala da, erru gabeko anai gaztea illerazi ta gero. Nik daramadan jantzi onen azpian olako asko

dabil. Baiña ez dira denak olakoak. Au, ezagutzen ez nuen falanje batek eskeiñi dit, lenbailen andik aldegitoko aolkua emanaz. Baiña atsedetik artu gabe ezin det geiago. Onuzkero nere billa dabilta. Nik, berriz, ez diot iñori txarrik egin. Zu egurretara zatoz orduan?

– Bai. Alaxe nator, etxean ez daukagu ezertxo ere ta.

Mutillak bere biotza zabaldu zion ezkero, neskatxak beste orrenbeste egin zuen:

– Zu abertzalea zera noski? Gu eskubitarrak gera, ta benetako kristauak. Nere beldurrik ez eduki, bada. Ni egunero etortzen naiz onuntz egurretara. Gu orain arte gorriakin gaizki ibilli gera, ta txuriakin berdin. Askok supritu degu. Etxe au gurea zan. Egazkin alemanak txikitu ziguten. Emen il zitzaizkidan ama ta bi aizpa.

– Benetan naigabeen laguntzen dizut. Zuretarrak egin zizuten azio ori?

– Bai, zoritxarrez. Baiña ezjakiñean. Ez diet gorrotorik.

– Obe dezu. Lasaiago biziko zera. Ta zertan etorririk bai al zuten?

– Ez det uste. Aitak berak ere ala dio.

– Eta zu non ziñan orduan?

– Espetxean neukan aitari bazkari-lege bat ematera joana. Andik etortzean olaxe arkitu nuen. Ordu-rako ari zan jendea garbiketa egiten. Nere begien aurrean atera zituzten ama ta aizpak ondakiñen azpitik, lerdekatuak.

Au esanta, oroitze utsarekin malkoak asi zitzaizkion.

– Ekatzu aizkora ori. Nik txikituko dizut egurra.

– Ez nuen ori aitari kontatzeko biotzik izan. Osaba batek esan zion.

– Guda gaizto baten lanak. Bera espetxean ta beretarrak ori egin.

– Osaba orren etxera joan nintzan orduan, eta andik lagundu diot aitari oraintxe arte.

– Neri bezela, zuri ere etsaiak egin balizute... Baiña zure lagunak ori egitea!...

– Alemanak egin ziguten. Bein ere izan al dira oiek gure lagunak?

– Ez dakit. Baiña Gernika dotore utzi digute.

– Eta gaiñera gezur-kontari.

– Aita etorria izango da?

– Ura atera zanean iritxi giñan onera. Baiña ez da gure etxea. Osabarenean nengoela, eskutitz txiki bat artu nuen. Txalet txiki onen jabearena zan. Bera atzerrira zijoala ta, nai bagenduen, joateko orrera bizitzera. Agian etzuela urteetan etortzerik izango, ta utsa ikusita beste norbaitek artu etzezan. Zentimorik ordaindu gabe, etxea zainduz bizi gera gu or. Bere berebilla ere garajejan utzi zigun. Aitak dabilki. Famili ori abertzale sutsuenetakoa da. Nere beste osaba bat nagusia; amaren anaia. Gu ez giñan bein ere erriko iskanbil auetan naastu, eta denakin ondo konpondu giñan. Auzoak asko maite dute aita.

– Eta nola eraman zuten bada espetxera?

– Eskubitarrak aukeratutako ziñegotzia izan zalako.

– Bakoitzak bere politika babesterakoan, etsaiak gera, ala esan baliteke. Baiña gure artean bai al dago gorrotorik? Bazter guziak txikitu ta ainbeste jende il gabe ezin ote giñezken konpondu? Beti berearekin atera bear duten gizon batzuen agindu-naiak dakarren sarraskia da au guzia. Berak ez daukate pakerik eta besterena ezin eraman. Deabruarekin bakarrarekin berdin litezke oiek.

Izketan-izketan bete zuen bere saskitxo.

– Torizu. Onuzkero aita zai daukazu.

– Eskerrik asko.

Esku eman ez atera zan andik, ondakiñen etxetik.

Ordurako, aita kezketan:

– Zer gertatzen ote da?

Bere saskitxo eskuan azaldu zanean, lasaitu zan.

Joakin, berriz, zer egin etzekiela. Neskak kontatu zion guzia ez ote zan gero ipuia izango, lasaitu erazi ta bertan geratu ta arrapatzeko? Ori gaizki epaitzea iruditzen zitzaion. Olako neska billaurik ez da lurra-
ren gaiñean sortu. Alare, bada ez bada ere, joan egingo zan andik.

Alaba etxera iritxi zanean, ala galdetu zion aitak:

– Ondakiñen artean iñor ikusi al dezu?

– Bai. Mutil gazte bat falanje-jantzian. Baiña gudaria dala berak esan dit. Iges dabillega gaiñera. Egurra txikitu ta saskia arek bete dit. Erren egiten du. Zauri gaizto bat ondo sendatu gabea omen dauka. Or atsedendu ta arratsean aldegiteko asmoan dabil. Bere ibillera guziak kontatu dizkit. Egia badio beiñepein, arrapatzen badute bertan ilko dutela.

– Bai. Aristian irratiak oju egin du nola gudari gaizto batek iges egin duen; eta non dabillen dakienik bada, abisatzeko. Ta norbaitek gordetzen badu ta an arkitu, gaizkigillea bezela zigortua izango dala.

– Orduan, or arrapatzen badute, guri ere ez digute pakean utziko.

– Kilometro auetan mutil ori ez du guk bestek ikusi, ta nik nor dan ezagutu det, berriz. Joakin Lazkano da orren izena. Zor ikaragarria diot nik orri ta ordaindu nai nioke.

– Nik ez nuen uste iñori zorrik genionik.

– Bai, ta benetakoa. Baiña ez da diruzkoa.

– Eta nola ordaindu zenezaioke?

– Etxera ekarri erazita. Zertarako naiz ni orduan sendagille?

– Eta arrapatzen bagaituzte?

– Bakarren batzuek bestek ez dute entzun abisu ori.

– Eta orain bere billa joan bear al dezu?

– Ez. Zu baiña egokiagorik ez da orretarako. Bere biotza zabaldu dizun ezker, antz eman dizu zuk ez diözula billaukeririk egingo.

– Berriz joaten banaiz, purrustadaren batekin ez al nau aurrean bialiko?

– Bere izenez deitu zazu ta ez dizu itz erditxo bat ere txarrik esango.

Joan zan berriro ta andik aldegitoko asmoan zebil-
lala iruditu zitzaion. Neska begira zegoela somatu
zuenean, serio-serio ala esan zion:

– Zu bazatoz berriro. Norbaitek jarraitzen badi-
zu, billatu ta ni galdua nago, ta joan egin bearko det
emendik.

– Ez joan, Joakin, zure onerako nator ta.

– Zer Joakin? Sorgiña al zera edo ametsetan ote
nabil? Baiña asmatu egin dezu. Ala naiz. Baiña nork
esan dizu ori?

– Zu emen sartzen ikusi zaitun txori batek.

– Nondik, ordea, ni ez naiz oartu ta?

– Txalet txiki artako leiotik, katalejo batzuekin.

– Ala bearko. Baiña orain ta geiago arritzen naiz.

– Neri, ezagutu zaitula esan dit. Izena ere bai.

Eta zor aundia dizula gaiñera.

– Bilbao'koa izango da, bada?

– Bai, bai. Emen jaio ta azia.

– Eta espetxean luzaroan egona?

– Guda asi ta txuriak sartu arte.

– Emakume, ez det ezertxo ere ulertzen, eta ba-

noa ni emendik, polizien eskuetan erori baiño len. Or ez da bada zure aita bizi?

– Bai. Aretxek ikusi zaitu. Berak dionez, ezagutu ere bai. Zor aundi bat dizula esan dit gaiñera. Ez beldurtu, Joakin. Goazen emendik eta etzaizu damutuko. Aita gaiñera sendagillea da.

– Nik ez det, ordea, sendagille bilbaotarrik ezagutzen.

– Arek ezagutu zaitu, bada, ta ez omen da ordu erdi, zu illa edo bizia arrapatzeko agindua irratiak eman duela.

– Eskerrik asko, jakiñaren gaiñean jarri nauzulako. Alajainkia, nik baiño geiago dakizu. Nor zera zu: aingerua edo deabrua?

– Ez bata ta ez bestea. Zu salbatu nai zaituen aitak bialitako neskatx bat. Atoz nerekin diozut berriro, ta etzaizu damutuko.

– Agian nere buruari saria jarriko zioten, ta salatu ta ura kobratzeko asmoan?

– Jesus! Ori bota dezun alea! Nere biotzean ez da egosten olako billaukeririk. Orduan, zuk ez didazu ezer sinisten?

– Zer esatea nai zenduke? Ni piakaitz izatea ez da arritzekoa. Bein ere ibilli ez naizen lekura etorri ta ezagutzen nautela... Zor didatela gaiñera... Ta emen etsaien lurrean gaude. Bizia, berriz, maitagarria da, ta ori dabilkit jokoan.

Antz eman zion neskatx ura pin ari zala. Baiña ezin ulertu aitak nola ezagutzen zuen. Bere izenez ez deitzera, ez litzake joango. Ori ere izan liteke, bai, irratis entzuna izatea.

– Ez dakit aingeru guardakoa mutilla edo neska dan. Espiritu utsa noski. Baiña bai zu aren ordezko etorriko ziñala. Pin zabiltzala sinisten dizut. Zure aita ere bai. Eraman nazazu zerorrek dakizun lekura. Berdin emen gaizki nago.

– Errenka zabilta?

– Len ez al zera oartu? Esan dizut gaiñera. Zauri gaizto bat egin zidaten eta ez didate sendatzeko betik eman.

Elkar-izketan iritxi ziran etxeraiño. Aitak zabaldu zien barrendik atea; ta kanpotik sartu ziran orduko itxi ta errespetoz bostekoa eskeiñi ondoren, agur egiñez:

– Ongi etorria, Joakin Lazkano, etxe ontara. Entzungo zenduen noski alako esaera zaar ura: «Zuk beti on egin, naiz nori ez jakin». Zuk neri egiñaren ordaiña da au.

– Nik orain arte iñon ikusi al zaitut bada zu?

Sakeletik paper-punta bat atera zuen ta esan zion:

– Begira iozu ondo oni.

– Nik beti nerekin ibiltzen detan kuadernotxoaren orria da noski au.

– Bai, ta oroitzen al zera non emana?

Joakiñek, arpegira ondo begiratu zionean:

– Arrazoi dezu. Oraintxe oroitzen naiz nonbait ikusi zaitudala.

– Ikusi bakarra? Bai bultzada ederra eman ere, atzeraka botatzeraiño.

– Auetxek dira uste gabekoak! Jainkoak nola moldatzen dituen gure bideak! Olako espetxetan larri asko, zure biziagatik bost zentimo emango etzenituen garai artan.

– Au da, Kontxexi, espetxean ni salbatu niñuna.

– Au al da? Eskerrik asko, Joakin. Bestela, orain umezurtz nengo.

– Espetxe artan baitua neukaten. Menditik iges egindako gorrien batalloi bat sumindua jetxi zan. Bertako zentinelak il da barruan geundenok esku-utsik garbitzera sartuak. Baiña zuek atzetik etorri

ziñaten, aiek barrundik botatzeko aginduarekin. Sekulako iskanbilla sortu zan. Aietako baten aurrean, eskallera-burura atera erazi. Aldameneko laguna il da neri sutzera zijoala, zu sartu ziñan zurubiak gora. Jauzi bat egiñik bion tartera, bultzada bat eman zenidan. Atzeka erori nintzan. Neretzat zegoen bala atzeko paretan ziplatuz, eskumuturrean emandako ostiko batekin aidatu zenion bere pistola. Gero, bultza ta beera bota zenduen. Zure beste lagun batzuek eraman zuten andik. Ez dakit neri sututako balak erdiz-erdi nola etziñuen arrapatu.

– Bai. Orain dena datorkit gogora. Saiestu egin bainintzan. An zuek iltzera sartu ziranetan, etzan euskaldun bakar bat ere.

– Orduan zure izen-abizenak eskatu nizekizun. Nik baneraman lapitza. Paperik ez. Zuk eman zenidan ta an idatzi nuen. Nork zekien nik zor ori ordaintzeko egokierarik ez ote zitzaidan etorriko? Irratiz entzunaz gaiñera zu or ikusirik, ala nion nerekiko: Joakin Lazkano dek ori, iges dabilena.

– Bai. Aurrea su ta gar zegoena utzi ta aldegin zuten; ta gu, ezin eutsirik geundenok, jetxi arazi giñuzten, emengo matxiñada zapaltzera. Baiña ongi egiña beti ondo.

– Ori da arrazoia. Beste galderatxo bat egin nizun: «Ez al dakizu zu ta ni ez gerala iritzi berekoak? Nola ni salbatzeagatik artaraiño arraixkatu dezu zure bizia?». Zure orduko erantzunari amaika milla buelta eman dizkiot geroztik nere buruan. Kristau izenean gabiltzanontzat ez da nolanaiko lezioa. Guk ondo betetzen ez deguna beiñepein. «Ori badakit –erantzun zenidan–. Baiña aberri ta iritzi guzien gañetik, neretzat pertsona da lenengo». Eta zuek zerate gorriak eta gu kristauak? Ori beteko bagendu, ez litzake orrenbeste errugabeko ankaz aurrera joango.

Neska arrituta:

- Beraz, gorrien artean ere badira olakoak.
 - Bai. Ori askotan pentsatu izan det: elkarren gorroto aundirik gabe gabiltzala, asko beiñepein, gудate odoltsu ontan.
 - Ez badegu pertsona geiago maite, olako sarraskiak maiz etorriko dira.
 - Egia al da zuk bost rekete iltzen parte artu zenduela?
 - Salaketa ori egin al didate? Ez da berria. Nere errian ere ala egin zidaten.
 - Irratiak beiñepein ala esan du.
 - Nik ez det odol otzean inor il. Ez banaiz erotzen, ezta egingo ere. Aurrean ez dakit. Aiek sutzen ziguten eta guk ere bai, aien erasoari eusteko. Bizia zor didan ero gaizto baten salaketa da ori. Nik etsaien eskuetatik salbatuta, auek dira ematen dizkidan ordaiñak. Aren borreroen iges nabil ni.
 - Eta berriz zure eskuetan eroriko balitz, txikituko zenduke?
 - Ni ez nijoa bide ortatik. Berriro ere barkatu egingo nioke.
 - Arrituta uzten nauzu. Alde ona dago arengandik zurera. Olako umeak ere izaten al dira munduan, eta nere esaera zaarrari ia lepoa moztu zenion: «Zuk beti on egin, naiz nori ez jakin». Arek ez dizu esker aundirik eman. Oiek egiten dute kalterik gaiztoena.
 - Subegorriak zer egitea nai zenduke, ala deitzen diogu ta?
- Aitak, alabari begiratuz, ala esan zion:
- Auek omen dira gorri separatistak. Gure saillean, eskubi aldean, ez dezu noski olakorik asko arkituko. Gaur ondatzen ari geran gaztedi au bezelakorik ez da geiago azalduko.
 - Ez dakit ori -erantzun zion Joakiñek-. Baiña len gorrotoa bazegoen, onek ez du azi besterik egingo. Ez genduen guk guda zikin onen bearrik.

- Erriaren urrengo esnaera ez da atsegiña izango.
- Beldurgarria noski. Ikaragarriak egiten ari baidira.
 - Nora joateko asmoak dituzu?
 - Beste aldera. Bidaso'z aruntz. Ara gabe nik ez daukat pakerik. Segurantzirik ain gutxi. Subegorriak noski illa izango naizela usteko du.
 - Lekutan dago ura.
 - Egia: ez dago bertan. Alare, ez banego zauritua, iru egunen buruan astindu ederra emango nioke.
 - Eta iritxiko zeran itxaropenik bai al daukazu?
 - Bai; ta laxter gaiñera, bidean uste gabekoren batean ez banaute arrapatzen. Tobias' i lagundu ziona ez ote zait neri ere bidera azalduko?
 - Aingeru ori aterako zaizun itxaropenetan al zaude?
 - Ez da nere sinismena orren txoroa. Baiña bai ordekoak: buzo au eman didana ta orain zuek bezela, aingeru aragizkoak alegia. Jainkoak bat zigortzeko ez omen du makilla bearrik. Guri laguntzeko ere, us-te ez ditugun milla bide badauzka arek. Ori bai, benetan sinisten det. Euskalerrria ez dago oraindik orren ondatua.
 - Ortan nago ni ere. Zu abertzalea izango zera. Ni ez nijoa bide ortatik. Baiña zuretik nerera ez dago alde aundirik. Neretzat ere, iritzi guzien gaiñetik, pertsona da lenengo. Mundua arentzat egin zuen Jainkoak.
 - Elkar-maitasun onek beiñepein batu gaitu, ta ori da kristau legearen muiña. Jan-edanak ez didate kezkek ematen. Zauriak bai. Oiñazetan nago. Non-bait ibillian azi egin da, ta loturak estuegi.
 - Ea: erakutsi zaidazu ori. Sendagillea bainaiz. Garbitu, sendatu ta lasaiago lotu zion.

– Ez daukazu gaiztotua. Orrek atsedena bear luke. Baiña lenbailen joatea komeni zaizu. Sartu berriak beren martxan jarri baiño len eta polizi oiek mugitzerako, neronek aterako zaitut Bilbao'tik.

– Orduan ez naute arrapatuko, au bezela zainduta ez dute edukiko ta.

– Ez alderatzekorik ere. Mendi oietan baliteke noski guardizibillen batzuk ibiltzea. Baiña zuretzat zer jana billatzen, ori izango da zailla.

– Bideko baserrietan sendi atsegiñak bizi dira; ta beren izkuntzan itzegin ezkeru, zabaltzen zaie biotza.

– Kontxexi, jarri iozu oni egun batzuetarako zer jana.

– Eta ortatik naikoa billatzen al dezu?

– Bai. Zuk diozun bezela, baserri auetan ematen didate.

Berebilla atera baiño len, bada ez bada ere, bere katalajoakin begiratu bat egin zuen inguru artara, ta izutua geratu zan. Guardizibil-bikote bat eroritako etxearen ondakiñetara, ura aztertzeke asmoan, sartzera zijoala ikusi zuen.

– Atozte onera ta begira zazute eroritako etxe aldera.

– Urdeak aleenak! –zion Joakiñek–. Oiek iñondik ere jakiñaren gaiñean nere billa datoz.

– Zalantzik gabe, norbaitek ikusi zaitu. Ta oiek onera etorriko ote diran beldurrak nago. Bada ez bada, zoaz baratzara. Bi bakarrak dira ta ez daukate dena ondo zaintzerik. Estura ezkeru, oiek ikusi gabe andik iges egin zenezake.

Joakin baratzara joan zan. An gordeleku onak bazeuden. Sendagillea, berriz, autsitako etxea aztertu ta gero nora artzen zuten ikusteko begira. Norbaitek salatuta etorriak ziran, bada, etxea ikustera.

Andik bereala sendagillearengana, onek beldur zuen bezela. Atea jo zutenean, au atera zan. Itzetik ortzera ala galdetu zioten:

– Gizon estrañurik bai aldago etxe ontan?
– Aita-alaba besterik ez gera bizi, ta biok baka-
rrik gaude.

– Guk ikusi degu bat neskarekin onera etortzen.
– Egia da alabarekin bat etorri dala. Falanjea,
ordea. Ala jantzia zegoen beiñepein. Baiña aurrera
joan da.

– Ez ote zan gero ura iges dabillen gaizkille ori?
– Orixe da nik erantzun ezin nezakena. Falanje-
takoa zirudien.

– Etxean al dago alaba?

– Bai. Sukaldean ari da lanean.

Deitu ta bereala etorri zan.

– Zertara joan zera zu eroritako etxe ortara?

– Gurea da ta egur egitera.

– Eta zurekin etorri dan mutil orrek zer egiten
zuen an?

– Ziur esateko ez dakit, ez diot galdetu ta. Baiña,
nere ustez, galtzak askatzera.

– Eta zergatik lagundu dizu, bada, etxeraiño?

– Berak txikitu dit egurra ere. Beste gaiñerako-
an, nik ez dakit ezertxo ere. Gaur arte ez det ikusi
ori.

– Gaizkille bat dabil emen. Aren atzetik gabiltza.
Ea ura zan ta zuek iges egiten lagundu.

Alabaren ordez, aitak erantzun zion:

– Ez bazaio kopetean idazten, guk ez dakigu bio-
tzean daramana irakurtzen.

– Guk alabari galdetu diogu. Ez zuri.

– Iseka egiten didazute. Eroritako etxe ori nerea
zan. Txikitu egin didate. Bertan galdu nituen emaz-
tea ta bi alaba. Sei illabete gorrien mende espetxean

igaro ta etorri berria naiz. Zer uste dezute: nere etsa-
iak salbatzen ari naizela? Gazte ori nik ikusi det.
Itzegin ere bai. Falanjea zirudien.

– Nora artu duen badakizu?

– Bilbao aldera noski.

– Ondo dago.

Beste gabe aldegin zuten andik. Joakiñek bara-
tzatik ikusi zituen joaten eta bereala sartu zan etxera.

– Aldegin al dute txapel oker oiek?

– Bai. Baiña salatua ago i, ta gu ere bai noski,
norbaitek or sartzen ikusita.

– Eskerrik asko. Zuk neri bizia zor badidazu, nik
ere orain zuei zor dizutet. Neskarekin itzegin ta gero
an geratu banintz eta ni an arrapatu, sekulako naiga-
bea eramango nuen beste mundura: benetan sinistu
diodan neskatx baten billaukeriagatik galtzen nuela
nere bizia. Ta etzan egia izango.

– Jaunari eskerrak, ondo bukatu da, bai, ta bes-
teren batzuk etorri baiño len goazen emendik.

Biderako jana zorro batean eman zion neskak.
Eskerrik askorekin batera bostekoa luzatu zion:

– Agur, Kontxexi, nere bigarren aingeru guarda-
koa. Olako amaika bearko ditut nere elburura irix-
terako.

– Agur, Joakin. Ta suerte on bat izan dezazula.

Españatarren banderarekin eta «*médico*» jartzen
zuen beste idazki bat zeramala atera ziran, sendagi-
lleak iker bat egin nai zion lengusu baten etxeraiño.

– Etxe au bizitzeko utzi zigunak, berak laga zuen
garajea kotxe au. Agian iges egiteko berak bearko
zuena. Oraindik beiñepein ez digute kendu.

– Ikusia dago bi aldeetan daudela gaizto ta onak.
Gizatxar asko dabil gure artean. Zuenean ere ez
gutxiago, ta oiek gaillendu zaizkigu, guk atzera egin-
ta.

Berebillan sartu ta, neskak eman zion pardela eskuan, jarri ziran martxan. Auzo artan sendagillea oso ezaguna ta maitea zuten. Ikusten zutenak eskua-
rekin agur egiten zioten, berriro beren artean zutelako pozez.

– Norekin zoazen balekite...

– Ez. Auek ez. Gorriak edo txuriak, zuen aldekoak dira geienak. Neri begirune aundia didate. Ez bainaiz egundo politikako iskanbil auetan naasi. Ez niñuten ni auzoak espetxera eraman. Urrutiagotik etorri ziran nere billa.

Etzuten polizi bat bakarrik arkitu. Aiek errian izango zuten naiko lana. Oztoporik gabe eraman zuen Bilbao'tik kanpora, ia Gipuzkoa'ko mugaraiño.

– Emendik aurrera zedorrek egin bearko dezu dena. Baiña erne guardizibilekin. Gutxiena uste dezunean azaltzen baidira oiek. Bidea billatuko dezu noski.

– Ez dago gauden lekutik urruti Gipuzkoa. Bein ara ezkerro, bai; etxeko sukaldeak bezela ezagutzen ditut nik orko mendiak.

– Zerbaiten bearrean arkituko zera. Lekutan dago Bidasoa. Itxaropenik ez galdu.

– Txango bikaiña egin degu. Kurkutea, joan da joan, torrerik luzeraiño igotzen da. Ni ere polliki-polliki, ez banaute arrapatzen, laxter iritxiko naiz.

– Agur, Joakin, ta eskerrik beroenak. Bizia zor dizut. San Rafaellek zaindu zaitzala etsai guzien atzaparretatik.

– Zor ori ondo ordaindu dezu. Ta oneraiño ekarri nauzulako, eskerrik asko zuri ere. Badaukat aragizko San Rafaelen itxaropena: baserri auetan bat baiño geiago arkituko ditudala. Bazterrik geienetan egingo baizuten gudazaleok kaltea.

– Onik irixten bazera, naiago nuke eskutitz bat egingo bazenida.

– Bai pozik. Ez da beste munduko lana.

Bere izen-abizenak eta etxearen zuzenbideak eman zizkion eta agurtu ziran.

Lengusu bati bixita egin zion sendagilleak, etxerakoan non ibili zan galdetzen bazioten ere, iges zijoanaren kalbarioa ausnartuz.

Inguru ura Joakiñek etzuen ezaguna; ta uste gabekoren baten beldurak, baso txiki batera sartu zan, Gipuzkoa'ko mendietan pentsatuz, ea nondik izango zuen txangorik motxen, errexen ta seguruena. Iri-
txiko ote zan berak nai zuen lekura? Itxaropenik etzan palta. Bere ustez okerrena egiña zeukan.

EUSKADI KEZKETAN

Sekulako urduritasuna zegoen Euskadi osoan. Beldur gaiztoa, ez Bilbao'n bakarrik, Gipuzkoa'ko alde ontan ere bai, uri aundi orren azken ordua nola iritxiko zai. Berri kaxkarrak zetozen: beti atzera ta atzera; laguntzaillerik, berriz, ez. Emendik iges egin-dako guziak an eroriko ziran, erteerik gabeko lekuan sartuak.

Bilbao, bada, etsaien mendean erori zanean, laxter zabaldu zan. Zalaparta ederrak atera ziran. Etzuten irrati ta egunerokoak gutxi aupatu beiñepein. Batzuentzat poza zana, besteentzat negarra. Alaxe da mundu ontako bizia. Gorrotoa ta maitasuna elkarren urbil bizi baidira.

Larritasun bizia, ezin egona, urduritasuna ta kezka samiñak sortu ziran Gipuzkoa'ko sendi askotan, ia emengo jende erdia ara joana zalako.

Sendi osoak ugari, baiña batez ere beren seme, guraso edo aide geienak bazuten senide arteko norbait ara iges egiña ta orain etsaiaren mende eroria.

Askok aurrera jarraituko zuten, baiña ez denak. Bilbao'tik erten baziran ere, etzeukaten legorrez beiñepein igesbiderik.

Beretarren berri ikasten saiatuko zan bakoitza. Aiekin zer egingo ote zuten? Aspaldian Donostia'n gertatzen ari zana zeukaten gogoan: epaitu gabe eramana ta il.

Gipuzkoa'n geratu ziran geienak, ezertan naastu gabeak ziran; besteak, ezer gutxi egiñak. Oietan olako sarraskia egin bazuten, gudan eraso batean arrapatu zituztenekin etziran goxoago ibilliko. Emendik ara joandakoak asko ziran gizonik gaiztoenak, lapurretak eta eriotz beldurgarriak egiñak. Erru ori berekin zeramatenak, ez baziran beiñepein aurrean illak, an erori bearko zuten. Baiña ez ote ziran zuzenago koarekin ere sartuko? Galdera ori zebillen aidean.

Bi aldeetako urrutizkiñak dantzan: batzuk, emendik ara joandakoen berri eske; besteak andik, emengo laguntzaren billa.

Asi ziran eskutitzak ere, ango gora-beerak ikasi nairik, bereak aske ote zeuden, aurrera joanak edo non ote zebiltzan jakiteko galdezka. Bitarteko onak billatzen ere bai. Ur ortan pasea dagoenak badaki larritasun oien berri.

Bilbao'n, berriz, auek sartu ziranean, leen esan bezela, atera ziran eskubitarrak sator-zuloetatik oiuka:

– ¡Viva el glorioso ejército español!

Euskadiren etsaiak, ixilik supritu zutenak eta ordaiñak kobratzeko zorutzen batzuk beiñepein, etziran aiek onenak izango. Asko baizekiten. Sendi askoren larritasuna etzan, bada, batere arritzekoa. Nork pentsatu bear zuen ainbeste etsai zegoela barru artan?

Ez bazan *el glorioso ejército* sartu, ixil-ixilik an jarraituko zuten lagun gisa, bixtan beiñepein. Len gorrien alde ibilliak eta beraizik bertan geratuak ez gutxi. Oiek izango ziran denetan txarrenak, beren

buruak zuritzeko edozer salaketa egiteko prest, pekatu egin beldurrik gabe.

Gipuzkoa'n beiñepein deabruaren lanak egin zituzten, berekin ibillitako lagun asko salatu ta arresiarren ondora bialita.

Jenderik geiena, batez ere gudariak, Santander aldera joana izanagatik, aiek ere laxter eroriko ziran. Bereala bete zituzten ango espetxeak. Kolejio asko ere bai. Etzeukaten iñori barkatzeko gogo aundirik. Donostia'n bukatu ziran arratseroko paseoak, Bilbao'n berritu zituzten. Uso-pasaran bezela, arratsetan etzan inguru aietan tiro-otsaren paltik. Ortarako pagotx ona arkitu zuten.

Elgoibar'ko gudari gazte batek esan zidan bein: bide txigor batean beera zeramatela nola ikusi zituen illak eortzi zituzten lekuak. Batek beso bat agerian zeukala, ta jantzian zirudienez guardizibilla zala. Oiek ere, gorrien alde ibillitakoak, larrutik pagatu zuten.

Sekulako salaketa egin zion bada Anttonek Joakiñi, denok dakigunez. Egia auzi jator batean azaldu ziteken.

Baiña militarren auzitegian, *consejo de guerra* dalakoetan beiñepein, zirt edo zart, txeetasun oiei begira egon gabe, atzera edo aurrera egiten zuten. Joakiñek, beraz, arrapatzen zuten lekuan, iltzeko epaia emana zeukan militar sinisberen aldetik.

Bilbao'n senide artekoren bat zeukaten guziak urduri zebiltzan, agintarien aurrerako zerbait zezaketenen laguntza eske, ango nagusiei bialtzeko. Gudara joan bazan ere, etzuela atzean ezeren txarrik egin.

IL EDO BIZI OTE DA?

Joakiñen gurasoak ere, bada, larri zebiltzan: len bat illa, orain bestea arraixkuan. Bidaso'z aruntz igarro baiño len apaizgaiak aolkua eskatu zion lege-gizon arek, bere borondatez, bost edo sei gazterentzat aien agiri onak prestatuak zeuzkan, erriko gizon sonatuenak izenpetuta. Bera joan zan. Donostia'n ere bazi-tuen orrela salbatuak. Batzuentzat ondo etorri zan. Askatu zituzten. Baiña Joakiñentzat ez.

Etzekitela bizi zan edo ez. Baiña lenengo justizia zala. Erritar batek salatu zuela aspaldi xamar. Erri artan bost rekete arrapatu ta il zituztela, eta aien eriotzean arek parte artu zuela. Bere begiakin ikusia, berak zionez.

– Egia da il zituztela. Baiña salatu zuena iges egiña zan. Nola ikusi bear zuen ori bere begiakin? Mutil ori, gaiñera, apaizgaia ta erri ontan dan gazterik jatorrenetakoa da.

– Apaizgaia? Okerrenak berak dira.

Aiek berean geratu ziran. Lege-gizona, gaiñera, zemai eginta biali zuten, gaizkigilleak salbatzen ari zan aitzakitan. Aien iltzailleak arrapatu etzituztelako, Joakiñi erantsi zioten errua.

Gure inguruko erri batean gertatua da. Auek sartu berrian, erriko gizon ondradu bat salatu zuen bateg. Baita sinistu ere salatzaileari. Iltzeko zigorra ezarri zioten, baiña epaitu gabe. Zeramatela, erriko komandanteari aitortza au egin omen zion:

– Neri olakok amabi milla pezeta zor dizkit. Eta, ni iltzen nauzutenean, mesedez biur dezaizkiola nere alargunari agiriak. Etxean daude.

– Olakok esan dezu?

– Bai. Orixe bera.

– Ori dezu, bada, salatzailea.

Inguruko batzuei galdetu zien gizon aren berri jakiteko. Lapurra ta gorrietakoa zala erantzun zioten. Zor zionari opa ziona, berari eman zioten. Zalantzik gabe, ezkertiar zalako. Ta eskubitarra izan balitz? Olako asko gertatu zan; eta, zoritxarrez, agintari batzuek sinistu egiten zuten.

Gure lege-gizona, bada, agiri guziekin etxera etorri zan, beldurrak gainera, zema egin ziotelako.

– Bizi bada, ez al ditek arrapatuko –zion berekiko.

Joakin reketeak iltzen? Ori etzuen bere errian iñork ere sinistuko. Ez baizuen ezertan ere parterik artu. Bitartean, deabru baten salaketa fedeko egia balitz bezela sinistu. Naiago zuten, bizitzeko babes-tea baiño, iltzen laguntzea. Ori al da justizia?

Egun batean, erriko guardizibillak etorri zitzaizkien etxera, an arrapatuko zutelakoan. Baiña gurasoak, arriturik, ala esan zieten:

– Bilbao'ra joan zan ezkeru, ez degu aren berri-rik.

Alare, etxea goitik asi ta beeraiño aztertu zuten. Mendiko txabola ere bai. Atariko meta-azpiak berdin. Baiña an etzuten berak nai zutenik arkitu. Aren aztarrenik ain gutxi.

– Etxera etorria dala salatu digute –esan zien txapel okerrak.

– Ori ez da adarra jotze bat besterik zuei eta guri. Badirudi, gizona, España'ren erdia berak il duela, orrela ibiltzeko. Nai dezuten bezela pentsatu, baiña gure semea ez da olakoa.

– Itxura onak engañagarriak dira askotan.

– Gaurko egunean bai beiñepein. Onak gaiztotzat daukazute ta gaiztoak ontzat, zer iritzikoak diran jakitean.

– Ez bazan gizon-iltzaille izan, etzuten orrela ibilliko.

– Amaika gizon-iltzaille badabil zuen artean, onak arrapatu nairik. Mutil bat epaitu baiño len gaiztotzat jotzea ez dago ondo. Bitartean, erri ontan dan gazterik gaiztoenaren salaketak ontzat artu, eskubitarra dalako. Alare, zuek onera etorria, semea bizi ote zaigun itxaropena guretzat.

Egun batzuk atsedentzera biali zuten Subegorriaren anai gazteagoa, kintak arrapatu ta eramana. Ura Joakin zalakoan etorriak izango ziran noski. Bazeukaten errian beste etsai zeletariren bat.

Joakiñen gurasoak oni galdetu zioten semearen berri bai ote zekien:

– Bilbao'tik ator noski?

– Bai. Andik nator, egun batzuetako baimenarekin, atsedeen pixar bat artzera.

– Zer moduz zabilzate?

– Gu osasunez ondo. Baiña gure iritziaren aurka lanean, eta auek Donostia'n sartu ziraneko martxa an ere: eriotza eriotzaren gaiñean.

– Anai Joxeren berririk bai al dezu?

– Ez det batere. Arek aurrera joana izan bear du. Baiña, zoritxarrez, laxter eroriko da, igesbiderik gabeko lekuan sartuak daude ta.

– Eta Joakin gure semearenik?

– Alegiñak egin ditut, baiña ez det neronek ikusi. Jakin nuen zauri txar bat artu ta aurrera joateko gauza etzala Bilbao'ko ospitalen batean geratu zala. Baiña ez nuen arkitu. Anttonek bai, berak esan zidanez.

– Erne ibilliko zan ura aren atzetik.

– Erneegi noski. Bereala ikasi omen zuen, neri esan zidanak erakutsita, ikastetxe batean zegoela zauritua. Nik ez nuen billatu. Arek bai, ordea. Joan zan, baiña ez laguntzeko asmoan. Oatzean gaixo zegoen lekuan, itoko zuelakoan lotu omen zitzaion. Baiña Joakiñek atzeka bota ta zaurituta biali omen zuten andik. Aren amorrua! Ura nolakoa dan bada-kizute. «Ez dek gaur arratsa arrapatuko!» zemai gaizto ori eginta joan omen zala. Arrats artan bertan joan ta guardizibillak pusillatu zutela. Barkatu. Ori da nik entzuna. Bere adiskide apaizgai batek esanta gaiñera.

– Deabruak eramango al dik, geiago azalduko ez dan lekuraiño. Bigarren semea il erazten digula. Tiroren bat emanta garbituko dit bera bazterren batean.

– Nik esan dizutedana ez da gero fedeko egia. Berari bakarrari entzun diot nik ori. Baiña naiaren paltan etzan geratuko.

– Bai. Aspaldi ontan, berri txarrak geienak egi biurtzen zaizkiguk.

– Nere anaia da; baiña emen salbatu genduenean, utzi egin bear genion. Orain zuen bi semeak biziko ziran. Besteren batzuk ere agian izango ditu aurretik eramanak. Antton ziur dago il zutela. Nik ez nuke ziñik egingo. Guardizibillak joaterako iges egiña izan ziteken. Espetxera bialia ere bai.

– Ik ondo ezagutzen dekan lege-gizon ori izan uan emendik, bikario ta alkateak berak ere emanda-

ko agiri onakin. Baiña izutua etorri uan. Ia bera ere lotu zutela, errian iltzen aritu zan bat salbatzera joan zalako. Illa izan bazan, esango zioteken.

– Len ere kontatu dizutet, nik ez nukela ziñik egingo. Baiña nere anaiaren salaketa sinistu bazioten eta arrapatu, Joakin ez da biziko.

– Egia da ori. Etzan emen ezertan ere naastu. Alare, iltzaille bezela salatu. Nork eta arek. Etzuen ikusterik izan ta. Gutxiagogatik amaika eraman dituzte ankaz aurrera. Zoritxarrez, Subegorriak izango du, bai, arrazoi.

Urduri geratu ziran gurasoak zalantza gaizto ortan.

Andik egun gutxira, Arantzazu'n ikusi zutela zabaldu zuen norbaitek. Ala zauritua zegoen bat Bilbao'tik atera ta Arantzazu'ra igotzeko, ez du nolanaikoa izan bear. Ez edozein moduzko laguntzailleak ere.

Errenderi'ko baserri batean bazkaldu zuela ere iritxi zan gurasoen belarrietara. Baiña etxearen ize-nik ez. Nork kontatu zuenik ain gutxi. Martxa ortan, urrengoan beste aldetik egindako eskutitzen bat artuko zuten. Norbaitek orpoz-orpo jarraitzen ote zion, bada?

Baita beste karta bat ere Bilbao'tik, Joakin beren semea arrapatu ta olako egunetan pusillatu zutela.

– Berri auek, gure naigabeen bizkar par egiteko asmatuak izango dira. Guri adarra jotzeko. Ez daude gure larruan.

– Eskutitz au gezurrezkoa da.

– Zertan antz ematen diozu?

– Izenpetu gabea dagoelako.

– Ala izan dedilla. Baiña ni txarrenarekin gertzen naiz: gure seme maitea Bilbao alde ortan illa izango dutela.

– Arantzazu'n norbaitek ikusi zuela, Errenderi-

'ko baserri batean bazkaldu ere bai, nork asmatutako ipuiak izan litezke orduan?

– Len ere esan dizut: gure naigabeen bizkar jolasten ari diranak. Olako deabru asko dago munduan.

JOAKIÑEN ODISEA

Bilbao'ko militar ta ertzaiñentzat Joakin aztua zegoen. Ango sarraskian bazeukaten alakotik auke-
ra. Uste gabeen arrapatzen bazuten, orduan artuko
zizkioten kontuak. Anttonek, ziur illa zalakoan,
txanpain ta guzi ospatu zuen. Au ere aztu zan, bada.
Baiña etxean bere gurasoak maiz zebilkiten Joakiñen
izena. Batez ere otorduetan galdera ugari. Baiña
erantzunik ez.

– Bizi ote da gure semea?

– Noiz edo noiz aren eskutitza iritxiko zaigun
itxaropenik ez det galdu.

– Ez da noski guretzat alako pozik izango.

Olako elkar-izketak maiz izaten zituzten etxe ar-
tan. Baiña guk ziur badakigu iges egin duela, berak
len salbatutako sendagille bati eskerrak. Bilbao'tik
Gipuzkoa'ko mugetaraiño etorrita, an biak agurtuz,
bat bere etxera joan zala, an bakarrik geratzen
zanarentzat urrikalduta.

– Dagoen bezela zauritua ta etsaien artean, Bida-
so'z aruntz iritxi nai badu, etzeukak nolanaiko kalba-
ria.

Arek polliki bidea erreztu zion, baiña ezin zeza-

ken geiago. Bere odisea ortan jarrai dezaiogun bada gure apaizgai gizarajoari. Au, bada, bakarrik geratu zan, ondo ezagutzen etzuen lekuan, bere zauri ura oraindik oiñazetan, eriotz-zigorra emana, txakur ta eiztariak atzetik datozkion ta iges dijoan erbiaren antzera. Aren anakak baleuzka, laxter litzake beste aldean. Alare, ez du dena galdutzat jotzen. Sendagilleak asko erreztu dio bere lana.

Bizia maitagarria dala askotan entzuten degu. Azkeneko eriotz-langa ortara iritxi dan aiton bati galdeiozu ea ortik igarotzeko gogorik badaukan. Ezetz esango dizu.

– Ortarako oraindik badago denbora. Mundu ontan ez nago aspertua, naiz-ta gaixorik neketan ibilli.

Or daukazute txaran gazte bat, bere ustez ematea merezi duen bati bizia eskeiñi diona ta orregatik zauritua. Eraso aietan bizia galdu balu, aberriari merezi-tako oparia eskeintzen ziola zerion bere kontzientziak. Baiña orain bere kutuna il dioten ontan, oraindik bizia maitagarria iruditzen zaio. Ez du odol otzean pareta-bazter batean balaz josia erori nai. Ez bere bururik alperrik galdu ere. Aurrerago begiratzten dute bere begiak. Betiko ametsak datozkio burura: apaiz egin ta lagun urkoen onerako, dan ta duen guzia mazal-mazal eskeiñiko diola merezi duen zerbaiti, Jainkoak onik ateratzen badu.

«Zauritua –zion berekiko–, ez al da ori neretzat mesedegarri? Il nauten edo ez zalantzan dagoen iñori etzitzaion bururatuko mendiz-mendi iges egitea pentsatuko nuenik. Uri barruan ibilliko dira nere billa. Bitartean, bidea aske utziko didate».

Illuna gaiñean, nekatua benetan, edo aspertua beiñepein, txara utzi ta aurrera jarraitzeko. Ea indar berritzen ote zan, basoan igaroko zuen arratsa. Zauriaren oiñazeak uzten bazion lo egiten, atsedean pixar

bat artu. Etzeukan presaka ibilli bearrik. Zetozen egunak bereak zituen.

Oso leku segurua zan ura beretzat. Etsaiak nola pentsatu bear zuten aldegin zuenik? Adiskideren baten etxean egongo zala sendatu arte. Uste gabekoren bat ezik, lasai lo egin zezaken. Piztien beldurrik ere etzeukan. Soñean zebilkien jantzia besterik etzeraman, eta sendagillearen alabak eman zion pardelt-xoa, janaria alegia. Ondo bazkaldu zuen ta, apaldu ordez, goizerako utzi bearko, indar berritzeko.

Arkaitz baten babespean etzan ta aingeru guardakoren eskuetan jarriz, Bilbao'n galdu zituen lagun ta bere etxeoetzaz oroitzuz, lotan geratu zan. Oiñazeak oiñaze, zaurituaren aunditua jetxi ta bai ederki igaro ere arratsa.

Goizean, xoxo, birigarro ta txorien zalaparta alaiak esnatu zuten. Oiek ere gaur baiño ugariago ziran orduan. Daraman martxa ez badute mozten, neska-mutillen biraoa besterik ez darion mundu negargarri bat geratuko zaigu. Bere buru gaineko aritz-abar baten puntan birigarroa asi zitzaion kantari. Ari entzuten lilluratua, aztu zitzaizkion unetxo batez bere istillu guziak. Mendian jaio dan batentzat ain da zoragarria.

«Frantzisko Deuna txoratzen omen zala oiei entzuten? Ez da batere arritzekoa. Neronek ere non nengoen aztuta orduak pasa izan ditut, oien kantuak lilluratuta. Biraoa besterik ez dakarkiguten auek, balaz bertan ilko luteke birigarro gaixoa. Orren biotzak bai pakea daukala; ta ori, nai duenak entzun, kantuz zabaltzen du bere inguru guzira. Ez giza-emakume auek bezela. Munduko errege omen gera gu, bazter guziak txikitu ta ondatzeko. Bai; kantari ari dan orrek daukan gorrotoa baiño geiago ez balego gure biotzetan, ez negoke ni orain nagoen lekuan. Orrek ere etsaiak baditu, baiña ez gorrotoagatik. Ori peka-

tuaren ondorena da. Oiek ez dute egin. Alare, okerrenak gu. Or kantari ari dala ilko lutekenak ere badira, munduko errege gerala uste degun auen artean, bat baiño geiago. Gu, berriz, gorrotoz kixkaltzen gaudelako gabiltza orrela».

Oldozpen auek buruan zebilzkiela, birigarroa egatu zan andik beste bazter batera, an ere kantari jarraitzeko. Orduantxe, non zegoen oartu zan Joakin, eta egoera larriaren garraztasun guzia ixuri zitzaien bat-batean biotz naigabetu artara.

«Ondo ago orri entzuten, baiña Bidasoa an zegok».

Apaizgaia zan ezkerre, bere betiko otoitzak egin-ta, aita gure bana errezatu zizkien bere aingeru guardakoari ta San Rafaeli. Sendagillearen etxean eman ziotena, erdia bederen jan ta bestea gerorako jasota, makil bat artuz eta kantari ari ziranei agur egiñaz, eraso zion bere lan zaillari. Biotza bear zuen, baiña bere bizia zeukan jokoan. Ipar-Euskadi'raiñoiko txangoa arraixku aundiko ta neketsua. Etzeukan beste etsairik: txapel okerrak. Zenbat kilometro? Auskalo. Berak ere ez daki oraindik nondik nora joan. Artzen duen bideak moztu edo luzatu lezaioke bere ibillia. Nolanai dala ere, erruz. Euskadi'ko dirutik ogei bat duro izango ditu. Besterik ez darama. Dena eskean ta baserritarren borondate onean billatu bear-ko du zer jana. Ori da bere itxaropena.

Kaskora erten zanean, bide galtzerik ez egiteko, non dagoen ta nondik nora joan ikasi nairik asi zan. Lenengo begiratua Gipuzkoa aldera egin zuen, ango mendietara, biderik errezena ez noski, baiña seguruena nondik zegoen jakiteko. Askotan aieka aietan ibillia, antz eman zion nontsu zebillen. Denen gainetik Aitzgorri'ko mendi kankarra azaltzen zan. Bai atsegin litzaiokela Gipuzkoa barrura sartu ta erri txiki oietako batean atsedentzea. Baiña ezin zezaken

olakorik egin. Biderik neketsuena artu bearra zeukan, arraixkurik gutxienekoa bere ustez. Zauriak eta inguru aietan zebiltzan txapel okerrak uzten bazioten pakean, bidean galdu gabe iritxiko zan. Aitzgorri'ko bidea artu ta andik egingo zuen bere ibillia edo odisea. Arantzazu'ko inguru oiek oso ezagunak zitzaizkion. Udaran bere lagun batzuekin an egiten zituen bere opor-aldi txikiak.

Asi zan gora ta beera, batean igo, bestean jetxi, gure Joakiñen kalbarioa. Iritxiko al zan beste aldera? Zergatik ez? Asieran baiño aurrerago dago orain. Polliki-polliki bazijoan, bada. Ezin zezaken geiago. Zauriak ere kalte egiten zion. Baiña ibillian berotzen zitzaionean, baziteken aixago joatea, bere urritz-makillan babestuz. Lo egin zuen txokon artatik baiño ikusmira obeagoa zeukan orain. *Dranguka-dranguka* aurrera beti, itxogin-aldi motxak maiz eginaz.

Gipuzkoa'n sartu zala igerri zion. Eguerdia izango ote zan ere bai eguzkian, erlojurik etzeraman baiña. Urdaillak ere gutxi gora-beera ordu orren berrirerakutsiko zion. Eseri ta gosaltzen utzi zuena janta, ur-txurrua bat egin ondoren, aurrera berriro. Etzegoen lo-xuxta egiten oitua.

Sartaldeko mendien atzean gorde zan eguzkia. Arratsa zetorren gainera. Joakin goseak zegoen ta zer janik ez. Lotarako naiko lekua bazeukan inguru artan, etzuen otzik egiten ta. Jan gabe, ordea, ezin ibilli.

Andik urruti xamar baserri bat ikusi zuen. Bazekien guda madarikatua aspaldian andik igarota zala. Etzan, bada, Bilbao ta bere inguruak bezela zaindua egongo. Etzekien zer iritxitakoak izango ziran, baiña bai kristauak. Ez da Gipuzkoa'n baserriarrik, bere izkuntzan itzezin ta iges dabillen bat salatuko duenik, eta lagundu gabe utzi. Ango ateak jo zituen, bada,

Joakiñek. Amabi bat urteko neskatxa azaldu zitzaien.

– Jainkoak arratsalde on dagizula –agurtu zuen mutillak.

– Baita zuri ere –erantzun ta barrura sartu zan.

– Nor den? –galdetu zion amak.

– Gizon bat makilla eskuan ta buzo urdin batekin jantzia.

– Eta euskalduna al den?

– Bai, ama. Neri ala itzegin dit beñepein.

Bereala ama azaldu zan. Goitik beeraiño aztertuz, serio asko geratu ere.

– Nere jantziak izutzen zaitu noski, etxeoandre?

– Egia jakin nai badezu, bai. Ez beldurra bakarra, nazka ta ezin ikusia ere bai. Baiña orrela ibiltzeko, zu euskalduna zera?

– Bai ta nai ere, etxeoandre.

– Orduan barkatu galdera ori. Guk ere jakin nai izaten degu norekin gabiltzan. Gaurko egunean ezin gindezke edozeiñekin piatu.

– Ikaragarria da orratik! Oraindik ere ez al da alderdi au lasaitu?

– Ez. Naigabe latza dago oraindik emengo base-ri askotan.

– Izan ere, alper arriarekin bezela zapaldu gaituzte ta.

– Itz oiekin garbi adierazten diguzu emen gertatzen zaiguna.

– Iñoiz entzungo zenduen jantziak ez duela egiten prailea.

– Ez dakit. Gu oso mundu gutxi korrituak gera, esaera oiek jakiteko.

– Falanje-jantzian banator ere, ez nerekin beldurtu, benetako gudaria naiz ta.

– Antz eman dizut, zu zatozen bezela, iges zabil-tzanen bat izango zerala. Ez baizera zu lenengoa.

– Bai. Asmatu dezu. Alaxe nator. Zu ezik, ni ere ezin ninteke nere itzalarekin ere piatu. Salatari ta txibato asko dabil bazterretan. Guretako bat illare-kin Jainkoa omentzen dutela uste duten oietakoak.

– Erruz supritu degu azkena sartu ziran auekin. Seme bat espetxean daukagu. Bestea, Bilbao alde ortara joana, ez degu oraindik aren berririk. Artu dutela jakin degu. Baiña inguru au zaindu xamarra daukate. Noiznai emen ditugu txapel oker oiek. Orain ere ala zerala uste nuen. Ez genduke berriro oien atzaparretan erori nai, emen geratzeko asmoan bazatoz beiñepein.

– Ez, etxekoandre. Guri epelak eman dizkigute. Ederki nere larruan ikasi det ori: oiek begitan ar-tzeak zer esan nai duen. Mendi alde ortan naiko lekua badaukat lotarako. Neretzat seguruena ori da gaiñera. Goseak aulduta nator. Zerbait jatekoa nai nuke. Baiña ez daukat dirurik, Euskadi'ko ogei duro besterik. Orain batere ez du balio. Alare, nere an-tzera dabillen bati laguntzea beti ondo sarituko du Jainkoak.

– Oiek dira kristau baten itzak. On egiteko ez degu diru bearrik. Nondik zatoz?

– Bilbao'ko inpernutik.

– Jesus! Lekutatik! Eta norako asmoan?

– Frantzi'raiño gabe ni ez nago seguru.

– Lekutan daukazu. Ta iritxiko al zera egundo?

– Atera naizenean urrunago neukan. Bi egune-tan oneraiño iritxi naiz. Alare, ez banego zauritua... Orrek asko lotzen du nere ibillia.

– Ori da ondo pentsatzea. Zauritua gaiñera? Itxogin zazu apur bat.

Barrura sartu ta senarrari esan zion zer gertatzen zan. Beldurak aiek ere. Militarren muxuak ez baitira beti goxoak.

– Guk gure larruan ezagutu degu zer dan ori. Beste oiek noiznai emen ditugun ezkerro, iges dabilen bat ezin gentzake etxean artu. Baiña ez beste ezer ukatu ere.

– Lo-tokirik ez omen du nai. Berarentzat mendia omen da seguruena.

– Gizarajoa! Iñorekin piatzen ez dalako. Orduan apari on bat eman zaiozu. Orren antzera bagenbiltza gu ere, ala naiko genduke.

– Sukaldera sartu eraziko det orduan?

– Bai, bai, agian gurea ere orrela ibilliko da Bilbao alde ortan ta.

– Neri ere burutik pasa zait pentsamentu ori. Baiña ez naiz esatera ausartu.

Ondo apaldu zuen. Guda zital artako berriak eman ere bai. Au, sartzan zion toki guzietan eskatuko zioten.

– Guk ere badegu seme bat Bilbao alde ortara joana, Jesus izenekoa. Etzenduten elkar ikusterik izango?

– Aundiz nere modutsukoa, arpegi gorri, sudur luze xamarra, zuen alaba gazte orren antz aundia artzen diot.

– Ori da. Bat emakumea ta bestea gizona izatea.

– Azkeneko lau illabete auetan batalloi batean ibilli gera biok.

– Badituzu orduan aren berriak?

– Orain amabost egun arteraiñokoak bai. Andik aurrera ez, eta esango dizut zergatik ez. Eraso aundi baten beldurra genduenean, launaka ta bosnaka inguruko errietara joaten giñan atsedentzera. Neri ta beste iruri, ura tartean zala, goizean aurrean geundela erne asko, aidez ta legorrez txikitu zizkiguten gure

gordelekuak. Ondoren, egundoko erasoak izan genituen, bat baiño geiago. Egun artan etziran sartu. Baiña bai amaika gazte il ta ondatu. Gu lautatik bat geratu zan ukuitu gabea: zuen semea. Bi bertan illak. Neri, berriz, zauri sakon bat egin zidaten. Ni ospitalera nakartela ikusi nuen azkeneko. Agurtzera etorri zitzaidan, eskua emanez: «Agur, Joakin. Suerte ona izan dezakela». Ez det geroztikako berririk. Ni ospitalean nengoela sartu ziran. Ni an utzi niñuten. Seguru asko, Santander aldera joana izango da.

Bereala bere barrungo sakeletik atera zuen argazki bat, eta eman zien ikusteko.

– Or gaude lau lagunak. Oietatik bi illak dira. Zure semearen ezkerreko orri, ezpatarekin moztuta bezela, burua aidean eraman zion bonba batek, ez dakit zenbat metro bidean. Beste orri kopetaren erditik sartu zitzaion bala. Ezkondua zan, seme baten aita. Etzuen ikusterik izan. Bera Bizkaia'n zebillela, Gipuzkoa'n jaioa.

– Gizarajoak! Beren adiñik onenean...

– Ez daukat aparia ordaintzeko dirurik. Ori berderenik zuentzako, ez balitz etorriko ere, bere oroi-garri bezela.

– Eskerrik asko. Berri pozgarriak ekarri dizkiguzu. Zaila baita emengo eskutitzak ara ta angoak onera igarotzea. Batez ere argazki au benetan estimatzen dizugu. Ez baidegu beste bererik. Emendik etzoaz zorretan.

Eskua emanez abian, ala esan zion aitak:

– Inguru auetako baserri guzietan ondo artuko zaituzte. Baiña kontseju txiki bat emango nizuke. Obe dezu lo kanpoan egin. Ez txaboletara sartu. Badakit arrats askotan aztertzen dituztela. Aingeru guardakoak zaindu zaitzala. Erne ibilli gero. Bidean noiznai gora ta beera ditugu gure adiskide maite oiek. Bide oni jarraitzen badiozu, Arantzazu'ra er-

tengo zera. Gu, errones goazenean, ortik igotzen gera. Jakiña, oraindik urruti daukazula.

– Guk ezik, orrek ere naiko naigabea badabilki gizarajoak. Euskalerriaren erdia olaxe ibilliko da –zioten baserritarrak–. Gure borrero auek etzaizkigu oso goxoak etorri.

«Asiera ona –zion Joakiñek–. Olako asko billatuko banitu...»

Al zuen bezela, mendira joan zan lotara. Orrela, baserririk baserri, denetan ondo artzen bazuten, bere elburura iritxiko zan itxaropena azitzen zijoakion. Baiña izan zituen bi uste gabeko larriak.

Urrengo egunean, aldapak gora zijoala, belar onduz gurdia zamaten somatu zituen bidean. Ondo zijoan edo ez jakiteagatik, aietara urbildu zan. Izketan asi zan orduko, goitik beera zetozela ikusi zituen bi txapel oker. Ura aren larria! Eun metro baiño alderago, soro garbian, ezkututzerik ez iñora. Iges egiterik ez, aiek ikusi gabe. Txuxen berengana zetozen, itzegiteko asmoan.

– Oraintxe galdu naiz.

– Iges al abil? –galdetu zioten baserritarrak.

– Bai. Ta arrapatzen banaute, nereak egin du.

– Igo adi gurdira.

– Baiña zuek ere galduko zerate.

– Bixi-bixi go adi gurdira!

Beiak aurreka zeuden. Zibillak andik zetozen. Bera, berriz, atzeko ezpatari elduz go zan. Baita baserritar aietako bat ere. Andreari laguntzera jecten zan tarteka. Gurdia pixar bat antolatu ta berriro jetxi.

Guardizibillak, beren agurrak egin ondoren, beti an zebiltzanak ziran ta erdi ezagunak, onela galdetu zieten:

– Non dezute irugarrena?

– Emen irugarrena? Obe genduke! Ni nabil, ni, jetxi ta igo, emazteari pixarrak biltzeko laguntzen. Orrek iruzurtu zaituzte.

– Ala izango da. Gu, ziur iru ziñatelakoan etorri gera.

Ta, itz batzuk egin ondoren, beren bidean joan ziran. Igo zan berriro gizona ta:

– Ago, ago oraindik! Onera begiratzen ditek. Etzekit sinistu diguten.

Gurdia bete zuten, bai, ta izkutatu ziran andik. Jetxi zan mutilla ta ala esan zien:

– Beste seme bat badezute.

– Beste seme bat? Nor?

– Ni. Gaur jaio naiz berriro.

– Orren larri al abil?

– Bai. Nola arraixkatu zerate orrenbesteraño?

– Utziok orri pakean. Len ere olakoak obeto ikusten dizkiagu.

– Emen ere orrela al zabilzate?

– Aspaldi ontan bai. Nondik ator?

– Bilbao'ko inpernutik.

– Falanjea izanta oien beldur al abil?

– Zu Franco bezela naiz ni falanjea. Gudaria naiz ni. Il nai nautenetatik iges natorrena. Arrapatzen banaute, ez daukat nik bi eguneko bizirik.

– Bilbao'tik? Alajainkia! Lekutatik ator.

– Ondo al noa ni emendik Arantzazu'ra?

– Bai. Oraindik urruti zegok, baiña jarraiok bide oni ta ara aterako aiz. Zerbaít artu nai badek, onuzkero gogoaren paltik ez dek izango.

Alaxe, aiekin igo zan. Apari-merienda lege bat eman zioten; eta, oitu bezela, atera zan lotarako.

Biamamonean, ibillian-ibillian eta itxoinka-itxoinka iritxi zan, bere zorionerako, berak ondo ezagu-

tzen zuen lekuraiño. Eskerrak ainbeste San Rafaeli. Etzuen bestela egun ale oietan txango ori guzia egingo. Beste saio batean Arantzazu'n zegoen.

An arkitu zuen bera, Joxe, onen anai gazteagoa, baita Subegorria ere, garai batean ango elizara zi-joaztenean, bein baiño geiagotan lo egin zuten txabola. Andik goiz-goiz aterata irixten ziran goraiño.

Baserritarren aolkua aztuta, an sartu zan lotarako. Orduantxe eraso baizion euriari. Etzuen uste iñork ikusi zuenik. Baiña norbait bazetorren aren urratsei jarraituz. Ez Bilbao'tik, jakiña. Ura errenka aldapak gora zijoala ikusi zuenean, «Au iges zebillek» zion berekiko.

Inguruko artzaiak oso ezaguna zuten, Joakiñi jarraiz etorri zan mutil gazte ura. Baiña etzuten begien aurrean ikusi nai. Zeletari ta salataritzat zeukaten. Txibatoa alegia. Illean bi edo iru aldiz egiten zuen Arantzazu'ko inguruko buelta ori.

Ardiakin bere bordara zijoan artzai batek ikusi zuen gaztea, ara sartu zanean. Baita ere txibato ori leiotik begira nola egon zitzaion eta ixil-ixilik aldegin zuela. Txabolaren jabea zan artzaia, ta erne zegoen. Pizti ura leiotik begira somatu zuenean, jetxi ta bertan arkitu zuen Joakin gaztea, lo betean.

Sartu baiño len, bada ez bada, ots aundi bat atera zuen artzaiak, ta aizkatu zan Joakin, etsaiak gaiñean zituelakoan. Beeko baserritar arek esana gogoratu zitzaion. Etzuen arrazoi makala. Baiña artzai bat begira zeukala oartu zanean, bai lasaitasun ederra artu ere, ta ezaguna gaiñera.

– Ez didazu nolanaiko larria eman. Uste nuen iru adarretakoak zirala.

– Jaunari eskerrak, ez dizkit begien aurrean ikusi nai. Baiña barkatu, gazte. Nik i len nonbait ikusi aut.

– Txabol ontantxe bertan. Beste iru lagunekin,

arrats bat baiño geiago pasa ditut nik, gero emendik Arantzazu'ra joateko.

– Iges ibilliko aiz?

– Bai. Ta Bilbao'tik Prantzi aldera pasatzeko asmoan.

– Alajainkia! Ez dabilzkik nolanaiko ixtilluak. Alare, bide erdia igaro dek. Nere iritzian, zailena noski.

– Beldur naiz, ara orduko ez ote nauten arrapatuko.

– Aizak: abisu ori ematera natorrek. Ik ez uan ikusiko emen iñor, lotan egongo intzan ta. Nik bai, ordea. Leio txiki ortatik begiratuz, lotan arkitu aue-nean, joan dek ixil-ixilik norabait.

– Ni ez naiz batere oartu. Baiña zer asmotan dabil ori?

– Gure zeletari ta etsaien salataria besterik ez dek ori. Gau erdi aldera, borrero patill aundi oiei lagunduz etorriko dek. Lenbailen aldegin zak emendik. *Traidorea* esaten ziotek orri. Astindu bat baiño geiago artu dizkik. Alare emen zebillek. Onuzkero bi edo iru badizkik orrela galduak.

– Eskerrik asko, artzai jauna. Ondo uste gabeen arrapatuko niñuten. Arantzazu ez dago emendik urruti. Baiña naiago det biar goizean joan, jende gutxiago ibilliko da ta. Orain joango banintz, arraixkuan jarriko nintzake.

– Ez adi eroa izan. Seguru bazekit bere borreroakin etorriko dala.

– Ederki nengoen ni emen. Baiña ez det bertan lo egingo. Beste bazter batera joango naiz. Orain gora joateak beldur ematen dit.

Zutitu ta ibiltzen asi zanean:

– Zauritua ator.

– Bestela, onuzkero Prantzia'n nintzan.

– Obe dek gora joan. Ordu beteko bidea daukak.

Nik lagunduko dit bertaraiño. Baiña ez nauk sartuko. Orko praile guziak ezagunak dizkit. Ez nitek iges dabiltzanak orrela eramaten nabillela jakiterik nai. Or ere aldaketa gogorrak egin dizkitek, joan diran illabete auetan.

– Eskerrik asko zure borondate onagatik. Baiña orrera sartu gabe igaro nai nuke arrats au. Txabolatik bai, ertengo naiz.

– Naigabe ematen didak, baiña or konpon. Edo-
rrek ikusi. Arraixku txarrean ago.

Artzaia triste joan zan. Etxean pozik artuko zukean, baiña beldurra arek ere. Ura joan zanean, bertan geratu zan Joakin, euria ari zuen ta. Bustitzen bazan, berriz, etzeukan beste aldatzekorik. Oraindik gaiñera goiz zan.

Orrela agintarien ixillean beren eskuz justizia egiten zebiltzan oiek, illuna maite izaten zuten. Berandu xamar azalduko ziran. Garagarrillean zeuden gaiñera. Egun luzea ta gau motxa. Ia illundu orduko gau erdia zan.

Nekatua zetorren ta loak menderatu zuen Joakin, artzaia ta beeko baserritarraren kontsejuak aintzako-
kotz artu gabe.

Gau erdi aldera, mendiko ixillean, bi tiro-ots entzun ziran. Karraxi batzuen ondoren, gero ixil-unea. Baiña andik bereala beste ogeiren bat sutu zituzten.

Artzaia atera zan leiora. Ixil-ixilik zegoen dena. Etzuen txakurren zaunka besterik entzun.

– Zer deabrukeri gertatu ote da or? Lenen bi, andik bereala alako errenkada... Ai, gizarajoa! -zian-. Oneraiño etorri ta ere paltaz galdu dek bizia, lasai asko egongo intzana, nere esana egin bauan. Txakurra bezela il ere, lotan engoela arrapatuko iñuten ta.

Lenengo biak ari sutuak iruditu zitzaizkion, karraxiak ere izan baiziran. Baiña bigarren eraso, gu-

txieneko ogei, ezin zuen ulertu. Leioa itxi ta oatzera joan zan, salatari ura nola galdu lezateken pentsatuz.

– Karraxi ta tiro oiek non ziran? –galdetu zion emazteak.

– Gure txabolaren ondoan noski. Atzo esan nizuen gazte gizarajo ura ilko zuten. Nolako arraixkua zuen esan, baiña etzuen ainbestekorik usteko. Jainkoak zerua diola.

– Baiña ainbeste tiro gizon bat iltzeko?

– Bigarren eraso-aldi ori ez dakit zergatik izan ziteken.

Iltzailleak, lan on bat egin balute bezela, lasai joango ziran. Ta nork zekien, goizean kezka aundi gabe, mezetara. Etzebiltzan bada medallez beteak? Gauaren mende, dena ixil-ixil geratu zan. Illa zulo-ren batera botako zuten, eta gure Joakin apaizgaia aztarrenik utzi gabe galduko zan, beste millakaren batzuk bezela. Baiña ordu artan aizea ta euria, ikaratzeko moduan egal artara suilka zetorren. Iltzaille auk etzeuden iñoren mende. Agintariak etzuten jakiten eriotz oien berri. Beiñepein, ezjakiñaren itxura egin.

Urrengo goizean, mendi ura guardizibillez bete zan. Aztertu zituzten inguru aiek guziak. Baiña ezin ziteken kristaurik ibilli. Aizea ta kazkabar, elur bustia ere ari zuen, Garagarrilla izan arren. Gain artan benetan otza zegoen. Mutil gazte bat, buruan bi tiro eman ta illa arkitu zuten. Parte eman ondoren, Oñati'ko kanposantura eramane ta an geratu zan.

Urrengo egunean, egunerokoak eta irratiak zabaldu zituzten ango berriak: guardizibillak eta beste ezkutuko iltzaille batzuk eraso-aldia eduki zutela Arantzazu'tik kilometro gutxira, ta mutil gazte bat zegoela buruan bi tiro artu ta illa. Guardizibillekin tiroka aritu ziran aien lana. Bere ezaugarriak ere jarzen zituzten: mutil gazte sendo bat; ori-beltza illea.

Buzo zaar bat falanjetarrena. Lizar-adar sendo bat makiltzat. Etzeraman ez diru ta beste agiririk. Iges zebillen boluntarioren bat izango ote zan. Oñati'ko kanposantuan zegoela, nai zuenak ikusi.

Joakiñekin itzegin zuten artzai ta baserritar guziak, ao batez ala zioten:

– Ura dek. Esan genioken bada txaboletan lorik ez egiteko!...

Aiek etzeukaten arekin zer ikusirik eta etziran kanposantura joan.

Lagundu zion Bilbao'ko sendagilleak ere, egunerokoan irakurri zuenean, ala esan zion bere alabari:

– Ni salbatu niñun Joakin gudari mazal ura il dute Arantzazu'tik bertan.

– Gizarajoa! Eta araiño joan ta gero! Eta ez dakitete nork illa dan?

– Ez. Beren eskuz justizia egiten ari diran konzientzi gabeko oien lana noski.

– Ainbeste ibilliko dira orrela jantziak... Ezin konta-ala gazte, berriz, galduak, berentarrak non dabilzan ez dakitenak.

Iñor etzan jabetu mendi artan.

– Illa, gaiñera, auskalo nongoa zan –esango zuen jendeak.

Joakiñen gurasoak ere etzuten semearen aztarrenik. Zer pentsatu bear zuten ura ala izan zitekenik?

SUBEGORRIA

Santander artu zutenean, Joxe auen eskuetan erori zan. Alegiñak egin zituen Subegorriak, uraxe salatu ta galtzeko. Baiña ordurako erriko agiri guziak bialiak zituzten eta, espexera sartu bearrean, *bataillon de trabajadores*'etara biali zuten. Sumindua zegoen, besteak aurrea artu ziotelako. Etzuen iñor galtzeko modurik egin, asko zituen gorrotoan zeuzkanak baiña.

Erriko agintariak, Gipuzkoa'n ikusi zutenakin eta ain errex erritarrak laguntzik gabe utzita galdu zirala-ko, damutuak zeuden. Etziran, bestela, ainbeste eriotz egingo. Orregatik, oraingoan gogoz ta biotzez artu zuten arraixkuan zeudenen babesa, asko ziran-ta larri zeudenak.

Etzuen Subegorriak berea iritxi. Arro-arro alare etorri zan etxera, Santander ere artu zutela ta oiuka. Aitarekin lotu zan berriro. Bein ortzak erakutsi zizkion ezkerro, etzan geiegi sartu. Baiña orain garaille, goxoa zegoen.

– Aita, Santander artu degu! –agurrik ere egin gabe, itzetik ortzera eraso zion.

Aitak, naigabetua, zorrotz erantzun ere:

– Santander artu? I baiño azkarrago ibilli dek orduan norbait. Ori esatera etorri al aiz? Zalaparta pranko atera ditek, gure bizkar bizi diran oiek.

– Neretzat beti itz motz ta zorrotzak dauzkazu.

– Eta ik guretzat goxoak eta luzeak al dauzkak? Badakik ori etxe ontarako berri kaxkarra dala; ta guri min emateagatik arro-arro ari aiz oiuka.

– Nik ez det uste, orrela berotzeko moduko arrazoirik eman dizudanik.

– Etxean onik ematen ikasi al dek? Ni ez nauk berotu. Baiña len ere esan dit, gudak daraman mar-txa guretzat txarra dala ta min ematen digula.

– Jokoa irabazi ta galtzeko izaten da.

– Bai. Baiña ez gero kukurruka galtzaillea umil erazteko. Berekin zeramak naiko naigabea. I berai-zik ere ortan ari aiz, adarra jotzen guri.

– Orduan, ni pozik ikustea ez dezute nai.

– Nik denak pozik ikusi nai nizkikek. Baiña on eginta. Ez bere gaiztakeriagatik etxeakoak sumintzeko.

– Esaidazu zer gaiztakeri egin dizudan.

– Gure semea ote augu? Zalantzan jartzen nauk. Billau maltzurra aiz orratik. Ez ote zekiagu alegiñak egin ditukala, Joxe gure seme zaarrena espetxera eramateko? Eskerrak aurretik erne ibilli giñan. Ire borondatez, zuloren batean or egongo uan usteltzen, bi tiro eman ta gero.

– Orain dagoen lekuan, ez du etxerako askorik egingo.

– Ez dik egingo, baiña eraman ere ez. Ez duela etxetik zentimorik bialtzerik nai, an denetik badau-kala-ta, abisu eman ziguk. Ori dek seme batek bere gurasoen larriari begiratzea. Espetxean sartu balute, berriz, nai ta nai ez biali egin bear. Orain dagoen

lekutik, guda madarikatu au bukatu orduko, etxean izango dek. Seme gazteak genituen etxeetan. Ez dik guda onek on aundirik egin.

– Irabazten bada ere, emengoak lagunduta ez da izango.

– Zoritxarrez, geiegi laguntzen ziegu, gure bu-ruak zapaltzeko gaiñera. Gutxi al derizkiok, iru se-metatik gurasoei laguntzera iñor ez datorrela? Alaba gaixoak ari dituk gizonen lanak egiten. Andik-emen-dik eskutitzak bazetozek, baiña beti eske. Auzoan ere, gaixoak alamoduz zebiltzak: lau neska gazte gi-zonak bezela lanean, eta gu baiño okerrago. Gureak etorriko diran itxaropen ori bazeukagu beiñepein. Aiek ori ere ez. Ederki utzi dituk, bi aingeru aiek il erazita. Bi auzoak oso elkar-maiteak izan gaituk. Orko naigabea ezik, gurea ere badek. Ori alare gura-soak ulertzen ditek: ero gaizto baten lana dala. Aitak bazeukak irekin bakarka topo egin ta galderatxo ba-tzuk egiteko gogoia. Aren atzaparrak arrapatzen ba-aute, erruki aut.

– Nik ez nuen Manueltxo iltzerik nai.

– Ori bezin errugabea uan bestea, ta orrekin ez dek ere kontzientzirik garbituko, borrhoroak ik esanta etorriak itun ta. Katamotza bezela giza-odola edaten oitua dagoen bati, etziok ajolik bat il edo bestea. Erru guzia irea dek; ez aiena. Joakiñi zer egin diok? Okerrekoa il erazita ez aiz asko damutu.

– Arek ondo merezia zuen. Ospitalera bisitatzera joan ta jo egin niñuen.

– Laguntzera joan baintzan, etzin olakorik egin-go. Alperrik ariko aiz eskuak garbitzen. Odol-kutsu ori etzaik kenduko. Gure etxeko lotsakizuna aiz i! –esanta, bere lanetara joan zan, geiegi berotzeko beldurrak.

Ori nai zuen Subegorriak, amari erasotzeko.

– Ama, nik dirua bear det –esan zion.

– Zergatik ez diok aitari eskatu? –erantzun amak.

– Arkaitzak baiño ere biotz gogorragokoa dauka.

– Itz oiek ez dituk ere etxerako txarrak.

– Nai ta nai ez bearko det, bada, nik.

– Aitaren berri gabe, nik ez dit zentimorik eman-go.

– Dirurik ez badaukazu, oillo pare bat bederenik. Gaur, Santander artutako poza ospatzeko, apari-merienda bat degu lagun batzuen artean.

– Etzakela emen olakorik egin. Bestela, aitik garbituko au.

– Datorrela. Ikusiko degu noraiño irixten dan. Ni ez naiz bada zuen semea?

– Nik ez dit nere semerik ukatuko, i bezelako deabru bat bada ere. Baiña ez dirurik eman, gure larritik ateratzen lagundu bearrean zapaltzen ari aiz ta.

– Nik eramango ditut bada.

– Etzakela olakorik egin. Bestela, ikaragarria gertatuko dek emen.

Atarian jolasean zebillen alaba gazteak, aien elkar-izketa entzun ondoren, aitari abisu eman zion.

– Eskerrik asko, alabatxo. Ikusiko diagu noraiño irixten dan bere lañezan.

Amarekin eztabaidaka ari zala sartu zan aita.

– Zer gertatzen da emen?

Izutu zan semea, bere onetatik aterea baizetorren aita. Amak ala erantzun zion:

– Dirua eskatu dit, eta zure berri gabe nik ez diodala xentimorik emango. Ondoren, bi oillo eramango dituela. Olakorik ez egiteko, bestela etxe ontan ez dala atsegin izango.

– Aizak: zergatik ez didak atxur bat eskatu, ta nerekin, ire bazkaria irabazteko, arto-jorrara joan?

– Baiña nik, nai ta nai ez, dirua edo bi oillo bearko ditut, bada!

– Alajainkia! Alperra ezik, lotsagabea ere bai? Erriko jaietan ez diagu oillorik jan ta aixa nai ituzke bi!

Armarioa zabalduz, sardin zaar batzuk atera zituen, eta semeari aurean jarri.

– Lana galanki eginta, ontatik mantentzen gaituk gu; ez oillotik.

– Nik bear ditut, bada, bi oillo!

– Erotu egin aiz edo deabruak artua ago? Zer asmotan ator: beste semeak palta diran ontan, gu ikaratuko geralakoan? Utziek diru ta oilloei pakean. Ez nitek txarrean asi nai. Baiña, bestela, laxter ikasiko dek aita nor dan. Markes baten alaba baiño guri ta dotoreago jantzita al ator gurasoengana eske?

Aita edozertarako prest zegoela igerri zionean, ikaratu zan semea. Antz ematen baizion, txarrean asi ezkeru, oraindik bera baiño geiagoa zala. Eta atzera egin zuen, erantzun au emanaz:

– Ni ez naiz aitarekin borroka ibilliko.

– Bai. Ni eskaxagoa naizela uste bauke, i ez intzake oillorik gabe joango.

– Ez daukat nik bazkaltzeko ere eskubiderik?

– Oraintxe esan dek egia: ez daukak. Alare, oraindik beñepein ez dik ori emen iñork ukatuko. Baiña guk egiten degun bezelakoa. Iregatik ez gaituk oilloak iltzen asiko. Ezin bizitzeraño etorri gaituk, eta lotsa gutxirekin oillo eske asi?

Ixil-ixilik aldegin zuen.

– Denontzat obe. Baiña aitak bilduko du seme ori.

– Zuk, Petra, zaindu zazu etxe-inguru au, lapurretara etorri liteke ta.

Andik txuxenean auzora joan zan, Joakiñen etxera, oilloren bat arrapatzeko asmoan. Baiña neskak aren aitari abisatu zion. Eun kilotik goragoko gizona zan, sasoikoa, berrogei ta sei bat urtekoa.

– Eskerrik asko –esan zion neskari–. Nai niken nere eskuetan ereriko balitz!

Oilloren bat arrapatzeko nondik egokituko zebillela, oillarra azaldu zitzaion. Zarpatik eldu zion, baiña gazteak ormaz beera jauzi egin zuen. Bere txapela galduz ta txaketa dotore aren patrika bat gizonaren eskuetan utziz, pixa-putzura erori zan. Kristauaren itxurik etzuela, igesari eman zion.

– Gizon iltzaille alix orrek obe dek, bai, ez aizen nere eskuetan erori!

Alabak esan zion aitari, auzoan zer gertatu zitzaion.

– Amar durorik ederrena baiño naiago niñan aren eskuetan geratu balitz!

Baiña ederra artu zuen ta egun artako oillo jateak aztuko zitzaizkion.

ILLA PIZTUA

Guardizibillak beren azterketa egin ta txabolaren ondoko illa eramanta, andik bi egunera, arratseko ordubiak aldean, gazte batek deitu zuen Arantzazu'ko konbentuko ateetan. Falanjetarren buzo urdin bat bere soñeko, urritz-makilla eskuan eta errenka, goitik sartu ta beetik ura zeriola, busti-bustia, blai egiña, suilka ari baizuen euria, udara sartu berria izan arren otzak daldaraka. Garagarrillak badaki beean ere otza egiten. Gain artan zer esanik ez.

Frantzisko Deuna mutillaren lekuan egon balitz, eta konbentura etorri ta praileak aurrean biali, «Auxe dek nere pozaren bete!» esango zuen. Baiña gure gazteak une artan etzuen ala pentsatuko.

Ateetan daldaraka zegoela, jetxi zan atezaia, urduri bera ere. Bi egun lenago inguru xamarrean bat illa, ta garai artan deika, nor izan ziteken? Aita nagusiak ere entzun zuen. Bada ez bada erne zegoen, leiora aterata. Garai txarreko deiak baidira, ta batez ere gudatean. Atea zabaldu orduko, mutil gazte bat zegoen zai, pazientzi osoan, noiz erekiko.

– Jaunaren pakea etxe ontan –bai-baizekien praileen agurra nolakoa zan–, kanpo alde ortan gizon il-tze ta guda besterik ez dabil baiña.

– Zer zabilta zu konbentuko ateetan garai ontan? –agur arekin arritua, atezaiak.

– Ikusten nauzu nola nagoen; eta nere adiñean bizia maitagarria baita, bizi naiak ekarria. Mundu ontan maitasunik bada beiñepein, biotz oneko gizonen billa nator, eguraldi onekin izutua.

– Eta nondikan zatoz?

– Bilbao'ko inpernutik iges, bakarrik, zauritua, eriotz-zigorra emana, errenka, eziñean, busti-bustia, goseak auldua. Kulparik gabe orrela dabilkiten onek, laguntza eskatzen dizue Jainkoaren izenean.

– Itxogin zazu pixar bat. Nagusiaren berri gabe ezin ninteke ezertan asi.

Deitu gabe, bereala etorri zan bera, erne baizegoen, eta galdetu:

– Garai auetan konbentuko ateetan deitzeko, nondik zatoz?

– Lentxeago atezaiari esan diot: Bilbao'ko inpernutik, beste aldera igaro nairik.

– Andik oneraino, eta etzaituzte bidean arrapatu?

Malezizko galdera iruditu zitzaion gazteari: etzioleta noski sinisten.

– Atoz barrura. Emen itzegingo degu. Zauden bezela, ezin ziñezke geratu. Ta ekarri onentzat jantzi legorrak, abito zaar bat bada ere.

Atezaiak ekarritako abito legorra jantzi zuenean, lasaitu zan.

– Zu euskaldun garbia zera; ta Bilbao'tik zatozen ezkeru, etzera zu falanjea izango –esan zion nagusiak.

– Ez. Gudaria naiz.

– Eta nola zatoz, bada, jantzi orrekin?

Itz bitan kontatu zien nolako aingeru guardakoak izan zituen.

– Arritzekoa da ori –erantzun zion nagusiak, siniskaitz.

– Bai; ala da. Baiña benetan egia. Iru aldiz larri ibilli naiz; iges egin diet, ordea. Emengo baserritarrei eskerrak iritxi naiz oneraiño.

– Artzai batek esan digunez, etzuten, bada, guardizibillak arratsean arrapatu ta txabolaren ondoan illa utzi?

– Ez, jauna. Artzaiak ala uste badute ere, andik zetorrena etzuten il.

– Artzaiaren ezaguna zala, ta berarekin itzegin zuela gaiñera. Ura zala illa esan zigun. Emendik eraman zuten Oñati aldera.

– Geiena egia da, baiña azkeneko ori ez, ni bizi naiz ta. Baiña an gertatu zana, dena nere begiakini ikusi nuen. Ni txabolan nengoen, artzaiaren kontsejuari entzungor eginta. Norbaitek atrixe, doministikua egin zuen eta esnatu erazi niñuen. Orduan, txabolak zeukan leio txikitik atera ta irurogei metro gorago joan nintzan, aiek ikusi gabe. Aterpe ura erdian artu zuten. Batek sartu ta argia piztu. Baiña an etzegoen iñor ere. Sumindu ziran, ni iltzeko asmoan etorri ziranak: lau borrero, ta ez guardizibillak. Aiek nonbait goian zeuden, argia ikusi ta ara urbilduak. Ni an lo utzi niñunarekin, ta bide-erakusle ekarri zutenarekin alegia, asarretu ziran, eta ari eraso zioten, iruzur egin zielakoan. «Gu engañatzen ari aiz! Len ere olakoak egin dizkiguk! Laugarren txangoa badiagu alperrik egiten degula!». «Atzo illunabarean, eta berandu xamar, ementxe sartu uan. Seko lo zegoken. Errenka etorri uan gaiñera». «Bai, ardiakin dabillen artzaiaren bat izango uan ta!». «Mendi ontan ez dek nik ezagutzen ez detan artzairik». Asi ziran eztabaidaka –garai artan artara aritzeko edan xamarak egotea ere baziteken–, gero ta beroago. Zaitzaille etorri zanak igerri zion an etzeukala gauz

onik, eta iges egiten asi zan. Baiña besteak ere erne zeuden. Batek besoa arrapatu ta atzera biurrituz, min emango zion eta alako karraxi bat egin zuen. Bigarren batek garrondotik bi tiro sutu zizkion eta zerraldo erori zan illa. Bertan utzita, aldapak gora Arantzazu aldera artu zuten. Baiña guardzibillak ere inguru artan ibilki eta, tiroak somatu zituztenean, an azaldu ziran. Izketa-otsa entzutean, *alto* eman zieten. Auek, berriz, tiroz beren erantzuna. Ogeiren bat sutu zizkieten bata besteari. Baiña iltzailleak iges egin zuten eta mendia ixil geratu zan. Aiek baiño irurogei bat metro gorago nengoen ni. Guardzibillak, bada -ez bada, urrengo egunerako utzi zuten bazter aiek aztertzeke lana. Arrazoi ere bazuten. Goizean, andik goragoko txara batean ezkutatu nintzan. Bai-bainekien egunez an azterketa gogorra egingo zutela. Baiña illa artu ta eramán zuten ta kito. Izan ere, goian-beean euria ari zuen. Orixe da an gertatutako guzia. Aien aserrea uste det itxura izan zala. Iltzeko asmoan eramango zuten zeletari ura.

– Deabruak ez daki berari egindako serbitzuak ordaintzen.

– Orixe bera pentsatu nuen nik ere.

– Nor izan liteke, ordea, or il zutena?

– Nere ustez, artzaiak *Traidorea* deitzen zioten ura.

– Orren beldurrak zebiltzan ta poza artuko dute.

– Esan zidan, bai, artzaiak ura nola galduko zebiltzala.

– Ixtillu ederrak ikusi dituzu orratik.

– Bai; etxean, Bizkaia'n ta emen ere.

– Eta ostatu billa al zatoz?

– Ez naiz orrenbesteraíño ausartzen. Neregatik ez det iñor arraixkuan jarri nai. Ez dizutet jatekorik ere eskatuko, bi egun ta bi gau ur utsarekin badara-

mazkit ere. Jantzi legorrak nai nituen eta eman dizkidazute. Zauritua gaiñera ta oiñazetan nola natorren, garbitu ta lotzea nai nuke, al baliteke.

Anaidi guzia oartu zan atean zerbait gertatzen zala. Ikusi-mukusin bakar batzuk urbildu ziran.

– Zauritua, bustia ta oiñazetan etorri al zera one-raiño?

– Bai, jauna. Bilbao ondoko mendi batean zauritu niñuten. An galdu nituen ondoan neuzkan bi lagun maite. Ni, berriz, zearo ondatua geratu. Ospitaletik iges eginda nator.

Gaztea bere ixtilluak kontatzen ari zala, esan zuen praile xaar batek:

– Noiz ikasi bear dezute auek ez dakitela txikitu ta iltzen bestetan? –eta asarre aldegin zuen andik.

Oraindik Joakin zalantzan zegoen etziotela sinisten egia zionik. Eskean ibiltzen zana, praile sasoiko bat oraindik, zegoen gaixozai ere. Ura deitu zuten. Bere aurrera azaldu zaneko, ezagutu ta, etiketak az-tuz, agurrik egin gabe, beso zabalik joan ta besarkatu zuen.

– Baiña zer zabilta zu emen, Joakin? Praile-jantzian gaiñera!

– Ikusten dezu dakardan planta. Txapel okerren iges, frai Jose. Blai egiña etorri naiz ta emen eman dizkidate jantziak.

– Amaika aldiz eman izan zizkidan zure amak ere neri.

– Zuk nondik nora ezagutzen dezu au? –galdetu zion nagusiak.

– Ezagutu? Auen etxean amaika bazkari, apari ta lo egiña naiz. Len onak bagenituen, zergatik ez orain? Zapaltzaille batzuk sartu diralako, gaiztotzat artu bear al ditugu? Auek ez dute aldaketarik egin; guk bai, ordea. Oraintxe bertan, guretako edozein

auen etxera joango bagiña, beso zabalik artuko giñuzteke, eta dena gutxiegi irudituko litzaieke, gure eder nola egin ezin asmatu ibiltzen dira ta. Ez dakigu artzen bestetan. Ez degu ematen ikasi. Ebanjelioa ez al da Jesusek erakutsia ta guk bizibidetzat artua? Bete dezagun ori, militarikeri guzien gaiñetik. Oien lege maitasun gabeak ez gaituzte Aren aurrerako beartzen. Nik dakit baserritarren biotza nolakoa dan. Onen anai gazteagoa, Manueltxo, ez dakit gure artean praile nola ez degun ikusiko.

– Zoritxarrez, ez da etorriko –erantzun zion, triste, Joakiñek.

– Zergatik ez? Zu iges zoazelako?

– Etsaiak pusillatu baizuten.

– Amasei urteko aingeru ura pusillatu?

– Aita ere larri ibilliko zuten, arrapatu balute.

– Nola liteke ori? Deabruak sartu al ziran zuen etxean?

– Nere billa joan ziran; eta arrapatu ez niñutenean, anaiak pagatu zuen.

– Oraindik konbentu ontan badituk auen alde mintzaten diranak. Denak guri egin bear al digute on? Guk, berriz, iñori ez? Utzi, nagusi jauna, au nere esku. Nik zainduko det. Sendatu arte ez da emendik joango. Baiña ez da konbentuan biziko, iñork gaizki itzegin ez dezan. Arrapatuko balute ere, ni beste prailerik ez da galduko.

– Artu zure esku. Kristauak geran ezkeru, mutil au laguntzik gabe ezin genezake utzi. Biotzak eskatzen dizuna egizu.

– Goazen emendik.

Artu ta berekin eraman zuen gaixozaiak, ta sei egunean ezkutuan eduki, zauria ondo sendatu arte. Aitortu ta Jauna artu ondoren nagusia agurtzera joan zanean, onek ala galdetu zion:

- Norako asmoak dituzu orain?
- Beste aldera joan ta asitakoa bukatu.
- Karreraren bat ikasten ari al zifian, bada?
- Apaizgaia naiz ni ta amar urte dauzkat bukatuak.
- Eta ixtillu guzi auen artean Jaunaren dei ori ez dezu galdu?
- Azi egin zait.
- Bejondeizula! Olako gazte gutxi dabil gaurko egunean.

Praileak agurtu zituen, baiña batez ere Amatxo.

- Agur, Amatxo. Eskerrik asko orain arteko laguntzagatik. Eta egizu berriz zure oiñetan belaunikatzeko egokiera izan dezadala.

Urrun zeukan oraindik bere elburua. Baiña sendatu zan ta andik aurrera laxter bukatuko zuen txango ori. Bere makilla eskuan -bidean lagundu ziona etzuen galdu-, Napar aldea eskubitara utzirik, igo ta jetxi, gora ta beera, Errenderi'ko mendietara iritxi zan. Adiskideak zituen baserri batean, odisea asi ezkerro, apaldu ta arratsa pasa zuen. Andik aurrerako bideak beretzat etzeukan ezkuturik. Arraixkua, ordea, azitzen. Muga alde ori zaindua edukiko baizuten.

Bein Napar aldera sartu zanean, erne zijoan. Etzan iñongo ateetara urbildu azkenera arte. Baiña sekulako eskapada egin zuen. Gau-giro bikaiña zegoen eta meta baten ondora bildu zan lotarako. Gau erdi aldera somatu zituen elkar-izketan erderaz ta bere aldera zetozeala. Etzuen arnasarik artzen. An bertan geratu baiziran bi guardizibil illargitan. Bera metaren itzaletik eta besteak argitan metro gutxira. Ta abian, bere oiñak ez zapaltzezkeroz, polliki-polliki kuxkurtu egin zituen. Eskerrak aize pixka bat zebillela ta bera itzaletik zala. Orretzek salbatu zuen.

Joan ziranean, madarikatu zituen guardizibil guziak, alako arnas bat artuta.

«Urdeak aleenak txapel oker oiek, alazankoa! Ai, Joakin, Joakin! Esan ezake gaur berriz jaio aize-la. Nere ixtilu guziak ia alperrik itun. Oiek onera geiago ez dituk etorriko» esan, ta andik goiza arte lasai egin zuen lo.

Urrengo egunean, illuntzerako iritxi zan Bera'ko errira. Andik aurreraxeago bazeukan baserri bat ondo ezaguna, taberna gaiñera. Ango semea guda aurretik bere lagunetakoa zuen. Muga, berriz, berrogei metrora zegoen. Argia piztua ikusi zuenean, ara joan zan. Aita bera arkitu zuen beiak jezten. Bai onek ezagutu ere.

– Zer abil emen, Joakin? Ez al aiz aurrera joan?

– Bai etorri ere, Bilbao aldetik iges eginta.

– Oiñez ta bakarrik.

– Oiñez, zauritua gaiñera, baiña ez bakarrik. Bide guzian San Rafaelak lagundu dit.

– Bejondeikela iri! Lekutan zegok ura! Orain arteko markak autsi dituk. Etsaien artean gaiñera.

– Eta Mañuel zure semea non dezu?

– Prantzi aldera joana dek. Tarteka azaltzen zai-guk etxera.

Oni ere bere ibillera guziak kontatu bear izan zizkion Joakiñek.

– Naiko negarra jarri dizuete zuei ere.

– Bai. Ortarako obeak dira, laguntzeko baiño.

– Nere iritzian, bada, orain arteko eskapadarik audiena egin dek. Eskerrak ukullura etorri aizen. Bestela, erdiz-erdi etsaien atzaparretan sartuko intzan. Bi guardizibil tabernara azaldu berriak dituk.

– Pollita izango zan orixe: muga-mugan arrapatzeta. Bai; Bidaso bazter ontara sartu naizenean, banekien arraixkurik audiena emen neukala.

– Oiek, motell, katua sagutan bezela zebiltzak.
– Ukullu ontan ez bazan argirik egon, tabernara joango nintzan noski.

– Laxter lotuko iñuten.

– Bai; baiña ara azaldu baiño len, nere kontuak aterako nituen.

– Oso arraixku txarra uan ori. Baiña beste aldera joateko ere, egokierarik onena oraintxe daukak. Beste ordu laurdenen bat inguru, kilometro batzutan ez dek oietakorik arkituko. Txanda egin aurretik tabernara etortzen dituk auek. Berriak ere bai. Baso erdi bana elkarrekin edanez, batzuk atzera ta besteak muga zaintzera. Ori ditek betiko oitura.

– Eskerrik asko. Orduan agur!

Joakin ukullutik ateratzen ta guardizibillak sartzen. Eskerrak illun zegoan eta etzuten ikusi. Berriro barrura sartu zan, «Txapel okerrak datoz!» esanez.

– Egundo ez dituk etorri ta gaur? Oa atzeko atetik, txokoak aztertzen asten badira ere. Deabru auek nere semea arrapatu nairik zebiltzak.

Joakiñek, bixi-bixi, atzeko atetik atera ta aldegin zuen.

– Gabon –agurtu zuten zibillak bei-jeiztaillea.

– Baita zuei ere –arritua.

– Norekin ari ziñan izketan?

– Zergatik galdetzen didazute ori?

– Emen norbaitekin izketan ari ote ziñan iruditu zaigu ta.

– Ezagun dezute etzeratela beizaiak. Auekin itzegin edo oiue egingo ez duenik ez da, beti dantzan dabilta ta. Ikusi, ez badidazute sinisten!

Agurtu ta kanpora joan ziran.

«Ai, mutillak! Segundo bat geiago ta biok izketan arrapatu gaitziken. Txanda berrian sartzen diranak ituan auek. Joakiñek etzeukak nolanaiko aingeru

guardakoa. Edo, berak dion bezela, San Rafael. Onuzkero beste aldean izango al dek!».

Egindako eskapadarekin izutua aldegin zuen andik laxterka batean Joakiñek. Baiña baserritarrak esan bezela, etzuen iñor ikusi. Mugan lasai igaro zan.

ADISKIDE ZAARRAKIN

Oiñik busti gabe igaro zan, bada, beste aldera. Bere neke, arraixku, zauri ta eragozpen guzien gainetik, orra iritxi bere elburura. Belauniko jarri ta eskerrik beroenak eman zizkion Jainkoari, bere ta lagun urkoen serbizioarako bizia eskeintzen ziola.

«Zuregatik denei barkatzen diet».

Egin zizkioten jazarpen guziak betiko aztu nairik, dena amets gaizto bat izan balitz bezela ta zoriontsu, musu eman zion ango lurrari, atsegiñez ziola:

«Bi aldiz nere etsaien atzaparretatik zuk salbatu nauzu. Egia da Euskadi'ren zati bat zerala, etsaiak bi puska egindako aberri maitea. Baiña ez daukagu an bizitzerik. Indarrean artu digute gure alderdia. Ta bertako semeak iges egin bear, biziko bagera. Zuingandik urrundu bearko det, baiña ez zapuztuta. Jesussek etzituen egundo bere aberria ta izkuntza ukatu. Ezta nik ere. Noan lekura noala, biotzean edukiko zaitut; eta norekin mintzaturik badaukat, euskera izango da gure izkuntza. Bedeinkatua zu! Gure aberritik atera gabe bizi giñezke emen!».

Ango bazter batean igaro zuen arratsa. Baiña bai lasai, bere etsai guzietatik bizia salbatuta. An etzeu-

kan txapel okerren beldurrik. Erbia igarotakoan aren usaira txakurrak zaunkaka aritzen diran bezela jardun bearko zuten. Baiña aurrera ezin igaro. Emen arrapatzen bazuten, bazekien etzutela orma ondora eramango.

Guda asi ezkerozko gora-beera guziak aztertu zituen. Ibillitako bideetan deabruak eduki zituela? Bai, ordea, aingeru guardakoak ere. Buzoa erregali eman ta gero, sendagilletik asi ta segurura sartu bitartean, beretzat denak aragiz jantzitako aingeruak ziran. Len esan zuen eta berriro baserritarrak bedeinkatutzen ditu. Aien laguntzik gabe etzuen ezer egingo.

«Eskerrak Jainkoari, oiek oraindik gureak ditugu».

Goizean, zortzirak inguru ortan, jetxi zan errira, bertako elizara, txuxenean bikarioarekin itzegitera. Oiek beti maitasunez beren aolkuak emango dituzte, aske utzi ta kobratu ez. Beti bezela, ondo artu zuen, baiña arritu zan.

– Nola zu emen? Ez al ziñan Bilbao'ra joan?

– Bai, jauna. Baiña bai etorri ere.

– Arraiea! Txango ederra egin dezu! Ta etzaituzte arrapatu?

– Ez. Bestela, ez ninduzun emen ikusiko. Zulo-
ren batean usteldua onuzkero.

– Eta falanjearen jantzi orrekin? Ain piña ziñala ta aldaketa ori egin dezu?

Gazteak par egin zuen.

– Onek salbatu nau noski, ta aietako batek emana det.

Apaiz jaunaren jakin naiak etzeukan neurririk eta ala eskatu zion:

– Mesedez, konta idazu dena, gezurra besterik ez dabil emen ta.

Len ainbeste bider esana, aita gurea bezela zekien memoriz eta dena bertan asi ta buka jaulki zion. Len arrituta bazegoen, orain zer pentsatu etzekiela geratu zan gure apaiza.

– Ori dena egia al da?

– Nik ikusi ta nere larruan supritua besterik ez dizut kontatu.

– Guk ez degu emen olakorik entzuten. Berak dena ondo egiten dute, zuek deabruaren berdiñeko jarriz.

– Ori ez da arritzekoa. Orain arteko istori guziak, irabazleak nai bezela idatziak dira. Sinista zaiezu!...

– Ortan ez diozu gezurrik. Orduan, zuk iges egin zenduelako, amasei urteko anai bat il dizute?

– Bai, jauna. Praile sartzeko asmoan zebillen gaiñera.

– Eriotz orrek neretzat ez du izenik. Zer kristau lege jarri bear dute?

– Jesukristo etorri baiño len Judea'n zegoena.

– Arrigarria, zauritua-ta zu andik onera etortzea! Ez det uste, bada, guardizibillen paltan arkituko diranik.

– Dena eskax, ordea. Gure mendietan, nora ez dakitela geratzen dira, ainbeste bideren artean naastuak. Baserritarren lana da ori. Nekazari bakoitzak bere inguruko berri badaki. Ango gora-beera guziak ikasten ditu: non dabillen, nondik barrena joaten dan, bide laxterrik seguruenak, guardizibil oien ibillerak, non bizi diran gure iritzikoak... Kristauak diran ezkerro, berriz, beti prest daude ni bezela dabillen bati laguntzeko beren estuasunean, beren buruak arraixkuan jartzeraíño. Etxean berdin gordeko zaituzte. Guardizibillei, berriz, muzin egiten diete. Ez diete ezer ere atera eraziko. Oien aolkuei jarraitu

besterik ez det egin. Denetan maitasunez artu naute, jan ezik aterpea ere eskeñiz. Oneraiño irixtea oiei zor diet. Beti kanpoan lo egin det. Ordaiñik eskatzen ez duten ongille oientzat arraixku gutxiago. Oiek bai dirala benetako kristau ta euskaldunak.

– Eta zer asmotan zatoz?

– Galdera orrekin zer esan nai didazu?

– Ez dakit, bada... Emendik joan ziñanean, apaizgaia ziñala esan zenidan; eta oraindik lengoan ote zauden...

– Bilbao'ra joaterako ori esan nizun, bai: apaizgaia nintzala. Ta oraingo Euskadi'ko sarraski au ikusita, azi besterik etzait egin gogo ori. Al baneza beñepein, lengoari jarraitu nai nioke. Amar urte ikasiak dauzkat. Ara joango banintz, arrapatu ta pusillatu egingo niñuteke. Aske utzita ere, non artu? Militarren aurka guda egitea Jainkoari erasotzea dala uste dute apaiz askok, eta oiek daude orain gaiñetik, zoritxarrez. Lengoak kendu ta auk jarri dituzte agintzen. Nere asmoa betetzezkeroz, emen daukat jarraitu bearra.

– Zuk dabilzkizun neke ta ixtillu oien artean ez bazaizu asmo ori itzali, ikusia dago Jainkoaren eskua dabilela or, eta laguntzaren paltik ez dezu izango emen. Zuk ango agiriak ekartzen badituzu, nik zu apaiztegian sartzeko moduak egingo nituzke. Baita ordaintzailleak billatu ere. Orrelako Jainkoaren deirik galtzera uzterik ez dago.

– Orain mesedetxo bat eskatuko nizuke.

– Eskatu. Nik, al dezakedana iritxiko dizut.

– Emendik aldegin ezkerok, gurasoak nere berri ez dakite ta kezketan biziko dira. Aiei eskutitz bat egiteko bear diranak nai nituzke.

Bereala jarri zizkion aurrean.

– Euskadi'ko diruarekin ordainduko dizut.

– Ekatzu, oroigarri bezela jasotzeko.

GURASOAK

Alegin guziak egin zituzten Joakiñen gurasoak semearen berri ikasi nairik. Bilbao aldetik zetozen ezagun guziei galdetzen zieten, baiña alperrik. Inork etzien aztarren garbirik ematen. Arantzazu'n ikusi zutela, Errenderi'ko baserri batean ere bai... Nondik zetozen berri oiek? Nork zabaltzen zituen eta zergatik? Gurasoak naigabetzearren agian. Baiña inor etzan egia esatera ausartzen; bere burua agertzera alegia. Izan ere, alako beldurra zeukaten sartua. Baiña aurretik zetozen geienak, illa izango zala zioten. Bestela, andik edo emendik aren berriak ikasiko zituztela.

Bi seme illak ta baten salaketaz, sumintzen zan aita gizarajoa. Subegorria ikusten zuen bakoitzean, bi tiro eman ta bertan illa uzteko amorrua etortzen zitzaion. Alare, bazijoazen polliki-polliki aztu ta pazientzia artzen. Alaba zaarrenak emezortzi urte bete zituen. Semeak, berriz, amalau. Bi alaba gazteagoak. Gurasoak bazeukaten osasuna saltzeko ere.

Gurasoak etziran aztutzen beren semeetaz. Bat bazekiten illa zala. Bestearen zalantza. Ziur jakin arte, etziran lasaituko. Beti itxaropen pixar bat. Semea ere bizi zan oraindik. Oroitzen zitzaizkion gura-

soak. Nola biziko ziran ere bai. Batzuek jakin nai ta besteak erakutsi nai bizi zala.

Aitaren urte betetzea urbiltzen ari zan. Ixtillu txarrak igaro zituen, alaba ta semeak etxeko martxan jarri arte. Mando batek bezela egin zuen lana, ta bere egun ori ospatzeko bazkari on bat jarri nai zuen amak, dena ondo irabazia zeukan eta, orrekin gazteak ere oroitu zitezen beren aitaz. Gazteak oieratu ziran batean, esan zion ori amak aitari.

– Bai, Joxepa. Ondo pentsatua dago. Ez neregatik bakarrik; denengatik. Beti negarrez ezin ariko gera.

– Zer jarri gentzake?

– Zedorrek nai dezuna. Nere gustoko jakiak zer diran badakizu, ta seme-alabenak ere bai. Zure esku dago dena.

– Ostegunean da. Ordurako dena moldatuko det.

– Neri orain ere oldozpen tristeak datozkit gogorra, Joxepa. Gure semeak ere ez ote duen ospatuko. Berdin noiz beteko ditudan badaki.

– Zer besterik nai genduke?

– Nik bai. Zertxobait geiago eskatuko nuke: aren eskutitz bat.

– Zaude ixilik, negar egin araziko didazu ta.

Gurasoak, egun ortako beren atsegin betea zertan legoken ausnartzen zuten. Beste aldean, berriz, oldozpen berdiñak zebilzkien semeak: ostegunean beteko zituen aita urteak eta bere berririk gabe egun ori triste pasako zutela. Aiek pozteko idatzi nai zuen, gurasoen biotza geiena poztuko zuen mezu bat: oraindik semea bizi zutela eskutitz motx bat. Ori bere esku zegoen. Arantzazu'rako ta sendagillearentzat gero idatziko zuen. Egin ta bota ere bere garaian: «Emendik ara txuxen joango dek. Egun artarako onek an bear dik».

Bazkari ori moldatua zeukaten. Baiña, alare, beti bezela joan zan goizean ama, esne ta tratu pixarrak salduz, etxean bear ziranak ekartzera. Aien artean, bazkal ondorako pastelak. An eskutitz bat eman zioten dendakoak Joxeparentzat, zabaltzailleak utzia. Artu zueneko, biotza aballan asi zitzaion: «Ea au dan semeak bialtzen digun kartatxo ori!».

Baiña etzuen letzen ikasi ta ezin jakin ala zan edo ez. Beretzat lotsakizuna, berriz, ta etzion iñori galde-tu. Amaika begiratu egin zizkion amak, baiña norena zan ezin igarri. Bera ezjakiña gelditu zan. Aitak bazekien polliki. Bazkaltzera eseri ziranean, amak kolkotik atera ta eman zion alabari:

– Irakur igunan, ea norena dan eskutitz au.

– Errian eman al dizute? –galdetu zion aitak urduri.

– Bai; pastelak erosi ditudan dendan. Baiña ez diot igertzen norena dan.

Alabak bai artu zueneko, ta alai-alai jarri zitzaion arpegia.

– Norena den? –galdetu zioten denak.

– Zalantzik gabe, Joakiñena!

– Bai ote? Poz ori bai ote dago guretzat?

– Bai, ta Prantzi'tik egiña gaiñera.

– Utzi itzan berriketa oiek eta irakurri igun!

– «Nere guraso ta anai-arreba maiteak:

Agur ta osasunez arki zaitzatela eskutitz onek, ni nagoen bezela. Zuek ere nerekin batera benetan poz-tuko zeratela badakit. Karta labur au, irakurtzean bizi naizela jakin dezazuten egiten dizutet. Agian luzeagoa noizbait biali nezaizuteke.

Jainkoak bestek ez daki mendi oietan eta errenka nolako kalbarioa igaro detan oneraiño irixten. Baiña, gu denon zorionerako, ori atzera geratu da. Segur-uan Ipar-Euskadi'n bizi naiz.

Arantzazu'n asko lagundu zidaten, batez ere orrera limosna eske joaten dan praileak. Sendatu arte, ateratzen etzidaten utzi. Errenderi'ko gure adis-kide baten baserrian apaldu ta arratsa bertan igaro nuen. Bada ez bada, bere izena bego ixillean.

Or asitako bizibideari jarraitu nai nioke. Baiña ez daukat berriz zuen artera etortzerik. Elkar ikusterik ere ez degu izango. Baldin bada ere, mugan, zubian, zuek ortik eta nik emendik. Ez baidizuite zueri ere onera etortzen utziko. Ez da nolanaiko pekatua izango bakoitzak bere aberria maitatzea.

Zorionsua igaro, zuen artean, egun ori. Bai-baidakit aitaren urte betetzea gaiñean dala. Ordurako iritxiko da noski au. Beste ainbeste urte ta oraingo auk baiño atsegiñagoak opa dizkizut, denok batera noski mundu ontan ez degu geiago egiterik izango ta.

Besarkada batekin agurtu nai zinduzteke, zuen seme ta anai dan Joakiñek».

Eskutitz motx au irakurri zutenean, arnas lasai bana artu zuten. Aitak zorionsu esan ere bai emaz-teari:

– Eskerrik asko, Joxepa. Gaurko egunerako neretzat ezin zentzaken erregali oberik asmatu. Noiz-bait atsegin pixar bat artu bear genduen.

– Baiña ez dauka etxera etortzerik! –zioten anai-arrebak.

– Utziozute orri pakean. Eman digun berri au, aski degu gaurko. Bizi da beiñepein. An edo emen, ura beti gure semea izango da. Ez gaitu ukatuko. Egunen batean baliteke mugaraiño ikustera joatea ere.

– Orduan, Arantzazu'n ta Errenderi'n ere izana zala egia da.

– Pusillatu zutela ez orratik.

– Ez. Eskutitz ori Subegorriak, ura illa zalakoan, egingo zigun.

MIXIOLARI

Bein modu pixar bat izan zuenean, bere ongillei agindua bete nai zuen. Etzan zorretan ibiltzen zan oietakoa. Arantzazu'ra ta sendagilleari eskutitz bana idatzi zien. Benetan poztu ziran praileak. Zer kontatua ibilliko zuten bazterretan. Sendagilleak ere, artu orduko, zoramenez irakurri zuen, ta alabari luzatu zion:

– Illa piztu zaigu noski. Or datorren berri orrekin, ni ezik, zu ere poztuko zerala uste det.

– Eta Arantzazu'n nor il zuten, bada? –galdetu zion alabak.

– Auskalo! Ainbeste ibilliko dira orrela...

– Gizarajoa! Berearekin atera orratik. Azkenean iges egin. Ez dakizu nola pozten naizen. Señak biali izan balitu, merezi zuen idazteak.

Orain osoro bere eginkizunetara makurtu zan Joakin. Bikario jaunak ala esan zion:

– Lenengo lana, emengo izkuntza ikasi bearko dezu.

– Badakit. Baiña ez al da izketan ari geran au? Euskeraz ari baiziran.

– Egia aitortzezkeroz, bai; ala da. Baiña an beze-

la, gaude emen ere: Paris'en mende. Andik datozkigu legeak; eta, iñongo ikastetxetan sartzezkeroz, nai ta nai ezkoa da prantzesez jakin bearra.

– Banekien, bai, ori. Erdi broman galdetu dizut. Izketan aritzeko moduan ez, baiña irakurtzen detana ulertzeko aiña badakit. Apaiztegia erakusten baiziguten.

– Bejondeizula! Bide erdia igaro dezu. Agiriak eskatu al zenituen?

– Bai, jauna. Ez dakit nolakoak bialiko dizkidaten, lengo irakasleetako bat ez dute bere lekuan utzi ta.

– Baiña apaizak izango dira?

– Dudarik gabe. Ortatik aukera dago an.

– Orduan, beren kontzientzira egia esatera bear-tuak daude. Aiek eskuratzean, bereala asiko naiz lanean.

Berak uste baiño len etorri ziran; eta apaizari eman baiño len, onek ez baizekien gazteleraz, euskerara itzuli zizkion.

– Ikusten al dezu nola ondo utzi zaituzten? Notik onenak daukazu gaiñera.

– Beldur nintzan, bada. Abertzale amorratua naizela beiñepein esan dute. Oiek ortan zertan naasturik bai al daukate? Orrek ez ote dit kalterik egingo? Emen ere benetan oiek paristarrak izango baidira.

– Ez. Agintari politikoak ez dira ortan naastuko. Mixiolari joan bear duen batentzat, ori ez da aintzagarria besterik. Zure iritzi guziak Jainkoagatik uzten dituzula, alegia.

– Emen bearke du. An ez lidateke utziko.

Apaiza bereala asi zan lanean. Mutillaren berri jakin orduko, gotzai jaunak eman zuen baietza. Apaiztegiko atea ere zabaldu zitzaizkion. 1937'ko Urrian asteko erreztasunak eman zizkioten. Apaizgai beartsuentzat jartzen dan beka oietakoa izango zan beretzat. Ori dena, lenengo itzegin zuen bikarioari

zor zion. Bere anaietako bat izan balu, etzan geiago saiatuko. España'ko guda bukatu ta bereala amaitu zituen bere ikastaroak, eta Alemani'koa asi aurretik sagaratu. Bere meza berrira etzan guraso ta aiderik azaldu. Emendik iges eginda joandako abertzale batzuk bazeuden. Baiña bazekiten gurasoak. Eskutitz baten bitartez jakiñaren gaiñean jarri zituen. Aiek, gizarajoak, sinismen berokoak izan arren, etzuten aren meza bat ere entzuteko egokierarik izan.

Bereala mixiolari joateko asmoak artu zituen. Laxter zetorren gudari iges egin nai zion. Ordurako, igertzen erreza baizan ikaragarria bazetorrela; eta lenbailen joatea erabaki zuen. Obe izango zuela, asi ta gero baiño, bestela itxas aietan etzala pasatzen erreza izango ta.

Andik bereala, bada, bere gurasoak deitu zituen: Ameriketara zijoala mixiolari ta, ikusi ta itzegin nai bazuten beiñepein, Ipar-Euskadi'ra joateko moduak egiteko. Berdin berari onera sartzen etziotela utziko. Emengoak bai ara, baiña angoa ez onuntza.

Bere gurasoak alegiñak egin zituzten baimen ori irixten, bitarteko onak billatuta. Baiña dena alperrik. Etzuten ara sartzeko baimenik iritxi. Ortan ere tratu txarra eman zioten fameli ari. Ura gorria bazan, etxe-koak ere ala izango zirala; etzitzaiela oiei ezeren erreztasunik eman bear. Oraindik etzan aztu, bost rekete aiek iltzen parte artu zuela egin zioten salaketa, gezurra zala geienak jakiñagatik.

Mugarako bakarrerako eman zieten baimena, baiña poliziakin. Ortaraiño zapalduak geunden berentarrak ez giñanok. Alare, etzuten atzera egin. Semea ikusi ta berarekin itzegin nai bizia zeukaten, agian etzutela geiago alako egokierarik izango ta. Agintariak aukeratu zieten nora ta noizko.

Eskutitz bat eginta abisatu zioten semeari. Gura-soei poliziakin joateko agindua eman ziela jakin zue-

nean, berak ere, ango bikarioaren aolkuz, bi xendar-me eskatu zituen, bada ez bada. Ango mugatik emengora indarrean sartuak bai-baiziran. Doktor Bago zeritzan sendagille ezkertiar amorratu bat, bere emaztearekin mugan izketan ari zala, artu ta indarrean sartuta espeteratu zuten. Emaztea, ordea, arjentinarra zan ta bereala gizona arjentinar bezela lerrokatu zuen, eta Perón'en bitartez askatu bear izan zuten. Olako geiago ere gertatuko ziran.

Muga erdian zutela aritu ziran izketan. Alare, eskerrak euskeraz utzi ziela, gurasoak etzekiten bes-terik eta. Etzuten ezer askorik itzegin. Gogoa bear zan ortarako. Eskua elkarri ematen, bai, utzi zieten. Bada ez bada, apaiza mugatik pixar bat atzeraxeago. Xendarmeak, berriz, aurrean. Zer esanak bukatu zituztenean, gogorkeri arekin amorruez zeuden denak: katuak xaguaren zai jarriak, angoa aurrera sartzera noiz deskuidatuko ote zan, arrapatu ta baitzeko.

– Agur, guraso ta anai-arrebak. Iñoiz askatasun geiagorekin etortzen bagera, zuzentasunik eza auek guziak aztuko al dira.

– Agur, Joakin. Urrun joaten baaiz ere, gure semetzat edukiko augu ta bizi aizela jakiteak poztuko dik gure biotza.

Amak negarrari eman zion. Etzioten bere seme apaiz berriari muxu bat ematen ere utzi, uraxe metro batera ikusi ta gero.

Bat batera ta besteak bestera berexi ziran. Aitak etzuen mundu ontan geiago ikusiko. Amak bai, baiña ezagutu ez. Benetan naigabetuak aldegin zuten. Beren iritzikoak etziralako, menpeko batzuk orrela ibiltzea geiegia zan.

Andik egun batzutara, Europa'ko gerra odoltsua asi baiño bost egun lenago, Ameriketara aldegin zuen.

ANTTON

Antton lasaitu zan, gizon iltzeko kontu ortan beiñepein. Guda bukatu zanean, bere ustez gorrotoan zeuzkanak biali zituen ankaz aurrera. Etzuen Joakin bizi zanik ikasi, bere etxeakoak jakingo zuten baiña. Etzeukan iñork arekin konfiantzik eta muzin egiten zioten.

Joxe bere anai zaarrenari zigor pixka bat ematea nai zuen, baiña etzuen iritxi. Bere bi anaiak ere etorri ziran, bada. Joxek, maiorazkoa zan aldetik, base-rrian zeukan naiko lana. Gazteenak, *excombatiente*, bereala billatu zuen lantegi egokia.

Antton berriro ere geratu zan zer egin etzekiela. Diru asko bear ta nola irabazi jakin ez. Ez baizegoen lanean oitua. Lenago, gudaren zabalkundea egitea-gatik, ematen zioten. Orain, ordea, etzuten bere serbitzuaren bearrik, guda irabazi ta gero. Deabruari serbitzen dionak, badaki ez duela saririk jasoko.

Lanik ezin du billatu, bere gogozkorik beiñepein. Etxetik mantentzen da, semea izaki ta errukiz. Baiña aiek ere asi dira nekatzen. Patrikarako ere bear, ordea, puska bat; eta nori eskatu? Etxekoak bada seme alper arekin zearo nazkatu ziran. Jan ta lotara besteetara etzan azaltzen etxean.

Len ere aitarekin eztabaida gogorak izaten ziotuen. Ia elkar lotzeraino. Ez noski semea zalako. Aita oraindik gordin ta indartsu baizegoen. Bi anaiak etxera etorri ziran ezkerre, bazebilken kontuz. Berriro ere aitarekin arrapatuko degu, amari diru eske, etxean arkitu zuen batean.

– Baserri oni izen gaiztoa jarri diok; eta emen bizi nai badek, egin zak lana.

– Ez al naiz, bada, ni emengoa?

– Bai, zoritxarrez. Orregatik saiatu bear uke geiago. Ori ez diagu ukatuko. Baiña emen gauzak etzetozek berez. Guk jo ta jo ateratzen ziogu zerbait lurrari. Bestek egiña jaten ari aiz i, berriz.

– Nik ere nonbait bizi bearko det, bada...

– Bai, motell, bai. Emen bazegok lekua. Jan da aterperik ez diagu ukatuko. Baiña jarraioke beste anai-arreben ejemploari. Denak txintxo egiten ditek lana.

– Nik, saiatuagatik, ezin, ordea, billatu.

– Asko saiaturako baintz, billaturako uke. Anai gazteak laxter billatu dik. Besteren bizkar bizitze ori goxoa baita, ordea.

– Nik, neretzat moduko lan bat nai nuke.

– Ez al daukak, bada, billatua?

– Ez nintzake emen luzaroan egongo.

– Len ere, jan-ordua eta arratsa besterik igarotzen al dek? Baiña ire lan berri ori ere laxter bukatuko dek.

– Nolakoa da, bada, nere lan berri ori?

– Amari gonetatik tirata erortzen diran xoxakin bizi aiz, ura ere, gaixoa, errukitsua dek eta. Baiña iturri ori laxter bukatuko zaik.

– Ni ez nago lan auetan oitua.

– Ondo zegok. Arrazoi ematen dit. Baiña bitarte ortan emen zegok baserria. Iretzako ere naiko lana

billatuko dek. Anaia laxter asarretuko zaik. Mairako lagun asko ta lanerako ez.

Sumindua kanpora zijoala, Joxerekin topo egin zuen Anttonek, eta oni eraso zion:

– Nere aurka denak bat egin dezute.

– Ez al intzan, bada, i ere denak galdu nairik ibilli? Badakik alako esaera ura: aizeak ereiten dituenak, ekaitzak biltzen dituela. Norbaitek zerbait esan al dik?

– Lan egiteko; bestela, joateko emendik. Orixe esan zidak aitak.

– Etzeukak arrazoi makala. Lenago esan bear zin. Onegiak dituk irekin.

– Erakutsiko ziot nik bateonbati...

– Ik zer erakutsi bear diok iñori? Besteren bizkar nola bizitzen dan; besterik ez. Len egindako gaiztakeriak ez al dituk aski edo berriro martxa berean asi bear al dek? Itzetik ortzera zemaia besterik ez dabilkik. Aitari ere desapio egiten baidiok. Lengo kontuak joan dituk gero. Ire arrokeri oiek nork zapalduaren paltik etzegok. Lanean asi adi ta irabaztak jaten dekana.

– Ezin dit nere aukerakorik billatu.

– Bitartean ar zak aitzurra. Etxean gaixo bat edukita, ura zaitzeko kupirik etzeukagu. Baiña ire sasoi ortan lanik egin nai ez duenarentzat emen etzegok lekurik.

– Eta nere ondarea?

– Zer ondare arraie ari aiz ojuka? Izan bauan ere, amar bider jan uan onuzkero. Zer egin dek ik etxe ontan? Amar urtetarako apaiztegian intzan. Gure izerditik ordaindu ziteken gurasoak ik egindako zorra. Gudazale oiek iruzurtuta utzi uan dena. Oiek sarituta bapo ibilli aiz, nai dekana egiñaz. Ez uan etxean jan, jantzi ta lo besterik egiten. Irabazten

uana iretzat. Asko eman al ion amari? Maiztarrak giñun ta orduan erosi genin. Etzekit ire ondare ori nola irabazi dekan.

– Nik kixkaliko dit oraindik etxe au!

– Iretzat ez danean, ezta besterentzat ere. Gaizki egiteko, ortarakoxe bakarrik balio dek –esanta, etxera sartu zan Joxe.

Etzegoen lan gogorretan oitua. Bere gogozkorik ezin billatu, berriz. Len saritzen zutenak, zertarako zuten orain, dena eskuratu ta gero?

Baiña alper guziak badute suertea. Oni ere lanik egin gabe bizitzeko modua tokatu zitzaion. Benetako loteria. Madritik bialitako gobernadore zapaltzaille batek eskeiñi zion bere gogozkoa: *secretario provincial del excombatiente* izendatu zuten. Etzeukan or nolanaiko pagotxa. Etzuen egokiera ori galduko.

Gipuzkoa'n asko ziran lana ezin billaturik zebil-tzanak. Ortarako, *excombatiente* izan bear. Baiña Franco'ren alde ibilliak bakarrak zeuden ezagutuak. Beste aldekoak ez, jakiña. Iñon lanik billatuko bazuten, buru-makur Anttonengana zetozen laguntza eske. *Excombatiente* ziran agiri bat egiteko mesedez. Onek, kontzientziko kezka gutxirekin:

– Ekaitzik onenbeste milla pezeta eta bereala egingo dit.

Zenbatean tratua egin ondoren, onek dirua esku-ra eman ta arek txartela. Lapurreta gaitzak egin zitu-tuen orrela. Jakiña, askori ogia irabazten lagundu ere bai. Bizkai aldean gudari ibillitako askok, etzuten begien puntan ikusi nai. Adarra jotzeko, topo egite-an ala esaten zioten ozenki:

– Agur!

– ¡A ver si de una puñetera vez desaparece ese maldito agur! –erantzungo zien.

Neskatx zintzo batekin ezkondu zan. Erdoiak ez

jatezkeroz, bazeukan olako baten bearra. Bere ez-taietara etzan mutillaren aldetik bat bakarrik agertu. Ezkondu ta andrearen gurasoen etxera joan zan. Orduan ondo irabazten baizuen. Bai pake ederra utzi ere jaio zan baserrian.

Baiña bei gizenen ondoren argalak ere azalduko zitzaizkion. Urrena etorri zan gobernadore zapal-tzailleak, lantegi ori kendu ta kale gorrian utzi zuen. Ez dakit zergatik. Lapurretak egiten zituala salatuta edo besteren bat naiago zuelako agian.

Bein nere lagun bati ala entzun nion, ura ere ez baizan *excombatiente*: txartela eskatu ziola, baiña ez dirurik eskeiñi.

– Txartela nai badek, dirua edo falanjean sartu –esan ziola.

– Ez bat eta ez bestea –erantzun.

Baiña ez txartelik ere eman. Bizi bear ta arrobi batean asi zala lanean. Andik illebeta batzuetara erdi negarrez etorri omen zitzaion Antton:

– Ain lantegi bikaiña neukana, gobernadore berri onek kale gorrian utzi niok.

– Zer egingo diagu, bada? Baagoke konten! Amaika diru atera dek lapurretatik.

– Bai amaikari on egin ere.

– Diruagatik, ordea. Ez intzan nitzaz asko oroi-tu. Ik lagundu izan baidan, ez niñun orain arrobi ontan ariko. Alare, nai badek beiñepein, zentimorik kobratu gabe, emen lana billatuko dit.

– Bai! Arrobian! Etzeudek nere esku ta bizkarrak ortarako!

– Ni ere, biziko banaiz, ementxe ari nauk. Langi-leak edozerri eltzen zio. Beste arin ta goxoagoko bat egiteko ez negoken gaizki preparatua. Baiña badakik zurubiak igo ta jexteko izaten dirala.

Alako purrustada bat egin omen zion, eta agurtu

ere gabe joan zan. Fabrika batean billatu zuen gero lana; ariña ta enkargatu bezela. An, ordea, lapurretarik ezin egin, eta gerrikoa zerbait estutu bearra. Senar-emazteak egundoko iskanbillak ibiltzen omen zituztela norbaitek esan zidan. Baiña ori ez det sinisten. Andreak, etxe-bizitzak garbituz ateratzen zuen, gizonak lantegitik eskax ekartzen zuena osatzeko. Goierriko erri batera joan ziran gero bizitzera. An ere, etorri berri zan zapaltzaille batek bertako alkate izendatu zuen. Arrotz jendea bete-betean orduantxe ari zan sartzen. Emen, berriz, aientzako etxea egin ta egin, alkateak kastuaren euneko bi kobratzen omen zuela. Amaika milloi eder sartu ziran aren sakelean. Egundoko etxe-pillak egin baizituzten. Gero, bizi izan zan arteraiño, naiko dirua egin.

Geldi-geldi urteak bazijoazen. Indarkeriz igo ziranak ustelduak zeuden. Agintea ta dirua zan aien ametsa. Antton dirutan igari zebillen, baiña jenio txarra jarri zitzaion, len ere etzuen oso ona ta. Etsai zituenak, bere artan jarrai zuten. Lagunakin ere etzeukan alako ar-emanik. Seme-alabak aldegin zioten. Emazte gaixoak pagatu bear larrutik.

Erria, berriz, asi zan ezin egonik. Noiznai ta no-nai baziran lan uzte ikaragarriak. Gogor erasotzen zuten agintarien borrarroak. Baiña erriak galdu zuen pazientzia. Bildurra ere bai. Franco'ren aginte-aulkia, beraz, daldaraka zegoen. Bere babesik maiteena an joan zan aidean.

Udara batean, gure borrarro nagusia, gaixo, larri eraman zuten Donosti'tik, gizonaren itxurik etzeukala. Erraldoi oietakoa ez bazan ere, itzal aundia egiten zuen eta asko ziran bere babespean bapo bizi ziranak. Betikorik ez da, ordea, ta bere egiñen kontuak ematera deitu zuen bein Jainkoak.

Bere lekuan errege jarrita, onek bereala ekarri zigun aldaketa. Franco'ren adiskide asko beñepein

atzeratu ziran, ez noski damututa, len bezelako sarraski gaiztoren baten zai. Gure Subegorria ere izutu zan orduan, norbaitek ordaiñak emango zizkion beldurrak. Seme-alaba bakar bat ere etzitzaion bere irizikorik atera.

– Ez genduke emendik joan nai, baiña beldurrak gabilta -esan zioten bein beren adiskide bati senar-emazteak.

– Beldurrak? Ez dakit zergatik. Aspaldi ontan jendea zuetaz aztua dago. Zaarrak ez dira etorriko ordaiñak ematera. Gazteak, berriz, etzaituzte ezagutzen. Bizi ziñezteke lasai. Ez baidezute orain ezertarako balio. Gazte jendea, berriz, eragozpen jartzen dieten oien atzetik dijoaz. Zuek ez bazerate naasten, oiek ez dira zuekin sartuko.

Bertan geratu ziran, baiña iñork etzien arrazoi txar bat eman.

Zaartu zan, ordea. Ura ere, beste askoren gisa, gauza askotarako eziña. Egiaren ordua ixil-ixilik urbiltzen ari zitzaion. Sasoi zeukan arte sinismenari atea itxi bazizkion ere, orain zaartzaroan zalantza gaiztoak asi ordea. Bere lan txarren oroipena ezin du burutik kendu. Au ere arindu. Larritasunez ito bearran zebillen. Amets biurriak egiten omen zituela. Gaberdi aldera askotan oiuka aritzen zala, beragatik eriotzara eramane zituztenen izenak ozenki aidatuz:

– Manueltxo, zer egin dit nik iri orrela begiratzeko? Joakin, zertan ator i ere ni naigabetzera?

Beste izenen batzuk ere esaten omen zituela. Bere emazte gaixoak bazeukan naiko lan. Bakarrik bizi baiziran. Aren ondoan etzegoela irauterik eta seme-alaba guziak aldegin zuten andik.

NOIZBAIT

Gure Joakin Ameriketara biali genduen. Ango erri txiki batean zegoen, bada, parroki bateko apaiz. Orain Don Joakin deitzen omen zioten. Guk emendik aurrera orain arte bezela deituko diogu. Nere iritzi apalean, iñori ez litzaioke otsegin bear bataioko izen soillean bestetan.

Esan bezela, azkeneko Europa'ko gudate odoltsu ura asi aurretik joan omen zan Ecuador alde ortara. An berrogei urte zeramazkien, bada, bizia salbatuko bazuen iges eginta, ango jendeari erakutsi ta on egiten. Emengo indarkeria bukatu arte etzala etorriko esanta aldegin zuen. Euskadi bere aberri zaarra, guraso, anai-arreba ta sortetxeak ainbeste maite zituen. Ara zijoazen guziei emengo berriak eskatzen zizkien. Izan ere, bizia eskeiñi zuen bere alde. Baita eman ere.

Tarteka-tarteka, bereei erantzunez artzen zituen eskutitzen batzuk, emengo gora-beerak emanez. Alako batean, naigabez jakin zuen bere aita bat-batean il zala. Ainbeste supritu erazi al zioten, izan ere. Negar egin zuen noski. Baiña mundu au olakoa zala ta geroago bestean ikusteko itxaropenik etzuen galdu.

Goiz batean, ango egunerokoetan jakin zuen Franco'ren azkena. España'ko jauntxoaren eriotzean askok txanpaña artu omen zutela, ez naiz batere arri-tzen. Berrogei urte luzeetan berak nai zuena eginta, amaika euskaldunen doai eder asko ondatzeraiño estutu baigiñun. Fameli asko nola zeuden ere badakizute. Batzuk, emen zeukaten guzia galduta, arrunt lur joak aldegin zuten. Beste batzuk, beren maiteengandik urrun, alderrai zebiltzan, bizibiderik ezin arkitu eta etortzerik ez, mugan lotuko zituzten beldur-rak. Oiek, orrenbeste kalte egindako etsaia galdu zala jakitean, txanpaña artzea etzaio iñori gaizki idur-ituko. Neri ez beiñepein. Orrek emengo atepak zabaltzen zizkien.

Gure Joakiñek etzuen artuko noski, etzeukalako. Izanta ere, etzion iñori gorrotorik. Baiña poztuko zala ez dago dudik. Ortik errugabeko askorentzat ona etorriko zala bai-baizekien. Idatzi zuen etxera emengo berriak eskatuz. An entzuten zuenarekin bakarrak ezin azaldu ziteken seguru.

Emendik, nai zuenean etortzeko albistea biali zioten. Txakurra il ta amorrua ere bukatzen zala. Ateak zabalik zeuzkala. Aldaketa pixar bat eginta, lasaitzen-lasaitzen zijoala. Iges egindako asko ere bazetozela berriro.

Bazeukan bada aretxek gogoia –ezin etsirik bizi zan–, mundu au utzi baiño len, bere aberri maite oni azken bisitatxo bat egin ta bere sortetxe ta maite zituenei ere ikustalditxo bat egiteko. Urte batzuk len esan zioten aita nola il zan. Baiña etzan orduan etortzera ausartu, mugan baituko zuten beldurrak. Ama bederenik bizirik arrapatuko balu...

Orain, bada, bere moldaketak egin zituen. Etzuen interes aundirik ekarriko, etzeukan ta. Ez ori bakarra: ango lagun batek eman zion dirua, onera etorri ta lotsagarri ez ibiltzekeroz.

Etzan emen geratzeko asmoan etorriko, oraingoan beñepein. Ardiak artzairik gabe etzituen utziko. Aberri xaarrean geratuko litzake pozik, baiña egin bearrak an zeuzkan. Ara biurtzeko erabakia artu zuen, bada. Oraindik, gaiñera, oso gaztea ez bazan ere, sasoi ona zeukan. Gero pentsatu bearko zuen, zaartzean, etorri edo ez.

Bidean jarri zan, bada, itxasontzi motel batean. Egun batzuk kaxkarrak igaro ta Burdeos'ko kaia artu zuten. Berari ainbeste lagundu zion bikario jauna illa zala esan zioten. Eliz artan bertan eman zuen meza, bera apaiz egiteko moduak egin zizkionaren alde. Bere aldetik dena merezia zeukan.

Sartu baiño len, Iparraldetik egin zuen onera begiratu bat. Emengo mendi ta baserri txuriak ikusi zitueanean, Iparragirre'ren bertso aiek oroitu zitzaizkion, eunen bat urtez lenagotik arek kantatu zizkionak. Etzan arritzekoa ura ere txoratua geratzea, berari ala gertatu zitzaion ta. Ainbeste urte urrun bizi ta etxerakoan, bai ederrak diruditela, orduan presaka utzi genituen puska maite guziak. Orduan aintzakotz artzen ez genituenak ere, begi-biotzen asegarri zaizkigu orain. Beste aberri asko ere zoragarriak dirala badakigu. Baiña txikia ta beartsua izan arren, au da gurea.

Mugan eskatu zizkieten bere agiriak. Baita bere maletatxoei astindu ederra eman ere. Baiña iñork etzion begiratu txarrik egin, an zeuden guziak oraindik Franco'ren umeak izan arren. Erljioso auen karnetan etzegoen, bada, au idatzita: «erlijioso ta espanar aizen ezkeru, ez daukak berdiñik munduan»? An ikusi zuen bere maiteei azken agurra emandako lekua. Orain ez ditu denak etxean arkituko. Batek betiko iges egin zuen.

Sartu zaneke, laztan luze bat eman zion Ego-Euskadi'ri. Malkoak zerizkiola ala esan ere:

«Olako lur-txoko ederrik etzegok lurbira osoan. Baiña oraindik, zoritxarrez, gure etsaiak agintzen ditek emen».

Gudaren iges joan ziran askok saldu zuten beren izkuntza, etsaiarena artuz. Baiña gure apaizak ez. Joan zanean bezin xamur ta errez itzegiten zuen euskeraz. Ortan pentsatu maite zuen edo ez.

Irun len zerbait ezagutzen zuen. Orain, ordea, nora ez dakiela geratu da. Etxea ta etxea besterik etzuen ikusten. Kosta zitzaion lengo tranbe txiki baldar ura billatzen.

Errenderi bere errira etorri zanean, izutua ta nairgabetua, malkoak asi zitzaizkion, ormigoizko kaja aundi aien aurrean.

«Gure Euskadi xaarra ondatu ditek betiko!».

Len alako lau bazala iruditu zitzaion orain, eta etzuen asko utsegin. Garai bateko erri ondoko baserri aiek, etxepean irentsiak. Gora-beera ibiltzen ziztuen bide-txigor ta laxter-bideak, berdin. Bazekien bere lengo lagun bat eliz nagusiaren ondoan bizi zala. Ara joan zan, benetan samindua, onera etorria ia damutzeraiño. Erdera besterik etzuen entzuten, garai batean euskaldun garbiak ziran karriketari. Bertsolari ta pelotarien erriak Andaluzia zirudien.

«Gure borreroa betiko joan dek, baiña gure erri xaarra illa utzi ta gero».

Aolku onak ematen zizkion lege-gizona zan bere lagun maite ori. Bizirik arkitu zuen. Xaarra, baiña oraindik buru argikoa. Ordu bete baiño geiago elkarizketan igaro zuten, ango ta emengo berriak bata besteari kontatuz. Ala esan omen zion lege-gizonak:

– Zure ibillerak ondo idatzi ezkeru, ele berri bat bikaiña egin liteke.

– Ez nizuke ezetzik esango. Baiña oraindik ez dira bukatu.

Ia gertakizunik onena etortzeko zegoen.

Lege-gizona ere, naiz eskubitarra izan euskaldun jatorra, atsekabetua zegoen, bere erriaren erailtze ura ezin jasanik.

– Ego aldeko jende orrek irentsi ziguk Euskadi.

An utzi zuen bere maletarik aundiena, urrengo egunean bere jaiotetxetik joaten zanak eramango zuela ta.

Nolabait billatu zuen etxerako bidea. Andik aurrera oraindik Euskadi zan. Bere maleta txikia eskuan, bear-bearrezkoa besterik etzekarren an.

Gazte sasoikoa joan zan, baiña xaartua, aguretua zetorren. Irurogei ta zazpi urte beteak zeuzkan. 36'a ezkerro, etzuen bere sortetxerik ikusi. Oraindik erren pixar bat egiten zuen, Bizkai'ko zauriaren lana. Ille txuria, arpegi ximurra, bizar-lege bat ere utzia zeukan. Aragi-izpirik gabeko gorputza, baiña oraindik gordin ta sasoikoa.

Bein karrikatik atera zanean, aurretik zijoan bat arrapatu zuen. Barea baiño nagiagoko gorputza zeukan. Lodi zegoen benetan. Nor izango ta Joxe, Anttonen anaia, ta berarekin batera Prantzi'tik Bilbao'ra joan zana. Elkar ezagutu zutenean, besarkada batean lotu ziran bi gudari zaarrak.

– Kaixo, Joakin, aspaldiko! Baneukaken il baiño len irekin itzegiteko gogoia. Emen gutxik zekitek bizi aizenik ere. Gure etxean, batez ere otorduetan, iñoizka aipatzen diagu. Ire anaiak esanta, bagenekiken laxter etortzekoa intzala.

– Berrogei urte joan dituk aldegin nuela.

– Nik baiño aragi gutxiago daukak, alajainkia! Lanean itotzen nauk, ezer ez dit jaten, alare beti gizentzen.

– Egi osoa ote da gero ori, Joxe? Alare, ore oneko zatia aiz. Ire ama mardula dek. Oraindik bizi al zaizkik?

– Ez. Joan itun biak. Ama lenengo.

- Goian beude! Eta bizi zeratenak zer moduz?
- Gure etxeko martxarekin ezin nindekek keja-tu. Ire arreba zaarrena artu nin emazte. Ni baldartu xamarra nabillek, baiña arek bazirudik ez dala zaar-tzen. Sei seme-alaba izan dizkiagu. Zaarrena etxera ezkondua. Arek ere bost badizkik.
- Orduan Iñaxi daukazute etxekoandre?
- Eta, ezeren okerrik ez badu, bazegok puska baterako.
- Orduan gu biok kuñadoak gaituk?
- Ori dek.
- Bizkai'tik erten arte ain batuak bizi giñanok, senide arteko egin gaituk.
- Egia diok. Anttonen deabruzko lanak zerbait berexiko giñun beldur gaitza zeukateken nere gura-soak. Baiña ireak ondo ulertu ziteken ero gaizto ba-ten lana zala ori. Edozein famelitatik atera liteken aker ezikaitza.
- Alaba onera ezkondu zanean, batuago geratu-ko ziñaten?
- Beti ere bai. Baiña i bizi intzala jakin zutenean, asko lasaitu itun.
- Eta gureak zer moduz zebiltzak? Etxera joan baiño len jakin nai nitek. Bat-bateko uste gabekoak min ematen zigutek.
- Jakingo dek noski aita il zala?
- Bai. Eskutitzez abisua biali zidateken. Ez nin etortzerik izan; beldurrak, jakiña. Sartzen utziko zi-dateken noski, baiña ateratzen ez. Ondo ikasi gabe ez nin andik oneraiñoko txangorik alperrik egin nai.
- Ama bizi zaik. Nik ere ala deitzen ziot. Baiña etzekit ezagutu aun. Lengo aiton, guraso, senar, zaar-rak eta gazteak, denak zebilzkik buruan naastuan; eta ustez ezagutu aulakoan, beste norbaiten izenez deituko au. Baiña oraindik txutik zebilek. Emakume bikaiña uan, baiña ederki urtu dek, gaixoa.

– Urteak arek ere: larogei ta amar, ortxe. Bete dik bere munduko eginkizuna. Beste gaiñerakoan, baserrian zer martxa zeukatek?

– Badizkitek zazpi seme-alaba. Zaarrena, etxera ezkondua. Beste bat baiño geiago egatu nairik zebiltzak. Bat frantziskotar ditek. Apaiztarako ikasten ari dana, aurreratu xamarra.

– Etzegok gaizki, Manueltxoren atzetik ere ibilli itun ta. Nere anaia ezkonduko uan etxera noski.

– Bai. Beste arrebak ere ondo bizi dituk. Gazteena aukera xamarrean gaiñera.

– Oiei denei ikertxo bana egiteko naiko denbora bazeukat.

Ondoren, aspaldiko gora-beerak kontatzen asi ziran. Joakiñek Ameriketara igarotako poz ta atsegiñak, atsekabe batzuekin naastuak, jaulki zizkionean, bat-batean au galdetu zion Joxek:

– Aizak: galderatxo bat egingo nitek. Ospitaletik nola arraie iges egin uan?

Milla bider kontatutako gertakariak esan zizkion. San Rafael asko izan zituela bidean. Bein mendira ezker, baserriarren lana guzia.

– Alajainkia! Bidean gorriak ikusiko itun orduan? Oso gutxik zekitek bizi aizela. Neri emazteak esan zidaken. Subegorria, beiñepein, zalantzik gabe ziur zegok guardizibillak il iñutela.

– Neretzat obe arek ez jakitea, orduan beiñepein. Gorriak diok? Bai txuriak, beltzak eta denak. Baiña bizirik iritxi niñun. Eta i zergatik ez intzan etorri, agindu ta gero, neri laguntzera?

– Etziguteken utzi atzera begiratzen ere. Jarraitzeko aurrera. Bestela, Bilbao barruan bertan sarean arrapatuko giñuztela.

– Eta zer moduz zegok Euskadi?

– Gal-gal irakiten.

– Ez ditek orduan, berak nai zuten bezela, il?

– Beirok: alare, atzerritar asko sartu dek. Euskerari sekulako jipoia eman ziotek. Baiña oraindik prakak bete lan eman bear ziegu.

– Eta Antton bizi al dek?

– Subegorria alegia? Azkenean aitak etxetik bializ in, eta andik laxter ezkondu uan. Geroztik ez diagu artu-emanik. Entzun detanez, bakallua baiño igarrago ta kezka bete, Oñati'ko errian bizi dala uste dit.

– Orain ni bere aurrean ikusiko baniño, zer pentsatuko ote luke?

– Ondatu xamarra egon bear dik. Gure sasoi lan txar oiek errex egiten dizkiagu. Baiña gero, zaartzaroan, ondoren kaxkarrak ekartzen zizkigutek.

– Itzegin nai nitek, bada, nik berarekin. Azkena par egiten duenak bi aldiz egiten duela, zenbat bider ez ote dit esan? Eta España guzia artuagatik etzutela gudik irabaziko esan nionean, arek jarri zidan muturra!

– Utziok pakean, lengo deabruak ere nazkatu zizkin azkeneraiño ta.

Izketan-izketan iritxi ziran Joxeren etxera. Bitartean, Joakiñek ikasi zuen berak jakin nai zuen guzia.

– Lenengo sarrera emen egin bearko dek –esan zion Joxek.

– Bai, motell. Arreba ikusi gabe ezin joango gaituk.

– Illobak bazekitek, bai, bizi aizela. Baiña ez aute ezagutzen.

– Ez natorrek presaka. Denetarako naiko beta izango diagu.

– Iñaxi! –oiu egin zuen senarrak sarreran–. Aspaldi ikusi gabeko zure maite bat dator zu ikusi naian.

– Nor da, bada, ori?

– Atoz ta ikus.

– Apaiza gaiñera? A bai! Auxe uste gabekoa! Joakin zera zu? -besarkatzeko besoak zabalduz atsegiñez, ikusi zueneko.

– Erdiz-erdi asmatu dezu. Bista ona daukazu oraindik.

– Anaia ez ezagutzezkeroz... Baiña banekien bazentozela. Ongi etorria, bada. Berrogei urteren buruan bederenik azaldu al zera?

Biak besarkatu ziran.

– Etsita nengoen. Oroitzen al zera, muga itzegiten bestetan etzigutela utzi?

– Parregarria zan ura benetan. Baiña bai samiña ere. Jauntxo oien lana izaki. Aldegin zuten eta ez al dira berriz itzuliko.

– Emen bazkalduko dezu noski?

– Ez, Iñaxi. Lenengo bisita zuri egin dizut, baiña sortetxera joan bear det. Ama ikusi arte ez nago lasai.

– Zoritxarrez, etzaitu ezagutuko. Gu ere ez gaitu egiten. Bere bizitza luzean inguruan ibillitako guziak naastuko ditu, baiña nor zeran ez dio antzik emango.

– Nik, beiñepein, ikusi, itzezin ta musu bat emateko aukera izango det. Iñaxi, itzegiteko betarik etzaigu paltako. Illobak ere ezagutu nai nituzke. Illebete pare batean emen ibilliko bainaiz.

– Orduan etzera emen geratzeko asmoan etorri?

– Ez nuke nai, nik fameli berria an daukat eta.

Etxekoak agurtu zituen eta txuxenean bere jaiotetxera joan zan. Atariko petrillan eserita arkitu zuen bere ama, bakarrik, eguzkia artzen. Argala –etzan lengo erdia ere–, ximur-ximurra, baiña ondo orraztu ta txukun jantzia. Bere erraiñak edo illobak, baiña ondo zaindua zeukaten bere ama. Ixil-ixilik joan ta bere ondoan eseriz, arpegi ximur artan muxu bat emanik:

– Jainkoak egun on dizula, ama.

Amak, arrituta, begira-begira, apaiza gaiñera, bere ondoan ikusirik, izutu xamarra, ala esan zion:

– Nor zera zu, neri arpegian musu eman ta ama deitzeko?

– Esan ez dizut, bada? Zure seme Joakin.

Pentsatzen-pentsatzen egon ondoren:

– Nik ez det apaiza dan semerik.

– Joakin, zure semerik zaarrena.

– A, bai! Olako, orduan?

– Ez, ama. Ori nere aitona zan.

– Joakin, Joakin... Orduan, olako!

– Ori nere aita zan, zure gizona. Ni, berriz, Prantzi'ra iges egin ta orain Ameriketatik zu ikustera etorria.

– Iñaxio, orduan. Ez aiz berealakoan azaldu!

– Ori nere osaba zan; zure anaia. Baiña ni, zure seme Joakin, apaiza naiz.

– Apaiza, apaiza? A, bai! Bixente!

– Ori zure billoba da. Ni zure semea naiz.

– A, bai! Manueltxo!

– Ez. Ori nere anaia zan.

Alako txinparta bat igaro ote zitzaion, baiña besterik ez. Arek aipatu zituen izen aiek guziak, bere inguruan bizitakoak ziran. An zeuzkan buruan idatzia. Baiña nor nor zan ezagutu ez.

Ama-semeak izketan ari zirala, mutil gazte bat azaldu zan zelaitik; bere illoba. Onek aitari esan zion, lenengo ura arrapatu zuen ta:

– Aita, apaiz bat ari da amonarekin izketan.

– Nor ote da ori? Ea Joakin anaia dan!

Ikustera etorri zan aita. Ikusi zueneko, zutitu ta eskua luzatuz, Joakiñek ala agurtu zuen:

– Jainkoak egun on, Permin!

– Baita zuri ere!

Lenengo begiratuan arrotz estrañu bat iruditu zitzaion. Baiña anaia izango zan, izen ta guzi deitu zuen ta.

– Barkatu. Baiña ni ez banaiz deskuidatzen, zu nere anai Joakin zera.

– Bai. Uraxe bera. Ez dezu gutxi egin ezagutzea. Berrogei urte badira mugan agurtu giñala, ta zu oraindik gaztea ziñan.

– Baiña izenez deitu nauzunean, nor besterik izan ziteken?

Lenbizi etorri zan mutil koskor arek, laxter zabaldu zuen Ameriketan bizi zan osaba apaiza atarian aitarekin izketan ari zala. Etxean ta kanpoan ziran guziak itxumustuan etorri ziran, eta denak maitasunez ongi etorria eman zioten:

– Bazenduen ordu! –esanez.

– Bai. Luze joan da. Baiña beldurrak zaitzen omen du baratza. Emengo aldaketa egin arte, ni ezin ninteken etorri.

– Jakizu zure etxean sartzen zerala –esan zion, berriz, koñatak.

– Eskerrik asko. Ez dago gaizki esana.

Ongi etorri guzien artean, arantz zorrotz bat sartu zitzaion biotzean: amak etzuela ezagutu.

ARANTZAZU'RA

Arantzazu beti buruan ta biotzean edukitzen zuen Joakin apaizak. Bera mixiolari zegoen lekuan, bazeukan aldaretxo bat Arantzazu'ko Amaren irudiarekin eta bere izenean jaso. Bere eguna zanean, an ematen zuen beti meza. Bataiorakoan, aur askori jarri zien Maria Arantzazu izen ori. Andik onera zetozen etorkiñei, aolku au ematen zien:

- Gipuzkoa'n sartzen bazerate, ez itzuli Arantzazu'ri ikertxo bat egin gabe.

Besteak orrera bialtzen bazituen, bera onera azaldu ta nola geratuko zan bere biotzeko Amari bixitaxo bat egin gabe? Bere eraspén ori aspaldikoa zan. Urtean bein baiño geiagotan, bi edo iru lagunekin, oiñez igoko zan, an aitortu ta Jauna artuz. Etzan bada ara joan gabe geratuko.

Etxeko ta beste aideekin egin bearrak bukatu zituenan, Amari ikertxo bat egiteko asmoak artu zituen. Bilbao'tik igo zanean bezela, bakarrik lasaia-go ibilliko zala, ta bere biotzaren eskaria obeto bete ere. Orduan oraindik, Euskadi'n beñepein, sotanarekin ibiltzen ziran apaiz asko. Joakin ere alaxe joan zan, ixilka, Arantzazu'ra.

Joaterako, bazekien, etxeako esanta, bera emen

zala eske ibiltzen zan praile ura etzala il oraindik. Xaartua, baiña burua argi. Arixe eskerrak eman ta izketalditxo bat egiteko bazeukan gogoa. Bere iritzian, arek salbatu ez bazuen ere, on aundia egin zion. Bilbao'tik etorrita zegoen bezela, beste aldera igarotzen naiko lanak izango zituen. Gaiztotzen asi baizitzaion zauria.

Konbentura igo zanean, arrituta geratu zan. Sekulako aldaketak egin zituzten. Bein baiño geiagotan entzuna zeukan, bera apaiz zegoen lekuan, berritu ta aunditzen ari zirala. Baiña etzuen ainbesterañokoa izango zanik uste. Lengo eliz xaarraren gaiñetik, beretzat oroitzez betea, berria zeukaten egiña. Orrazea ziruditen egundoko dorreak arri landuz. Elizasarrerako arresiak berdin. Ate ta aldare-aurrea oraingo era berrira margotuak. Norbaitek bota zuen dirua. An egindako lana etzan auntzaren gaberdiko eztula. Egia begiratu batean elizak basatia dirudiela, ta ala dala gaiñera. Baiña bai bere inguruak ere; etxeak eta bere aldamenak ez dutela aundirik. Ederki ezkontzen dirala.

Arrituta denei ikusi-mukusi bat eman ondoren, billatu zuen sakristirako bidea ta txuxenean an sartu zan. Sakristauari ala eskatu zion: mixioetatik zetorrela ta berrogei urte aietan Amari etziola bisitarik egin; ea mesedez meza emateko modurik izango zuen.

Baietz, baietz. Jarri zizkion bear zituenak. Gero Anai xaar bat deitu, meza laguntzeko beti prest zegoena.

Apaizak bereala ezagutu ere ura zala eskale xaarra ta igesan etxean zaindu zuena. Baiña onek ez meza-emaillea. Alare, orduan etzion ezer esan.

Meza eman ondoren, gogora etorri zitzaion bere gaztetan Errenderi'ko sakristauak egiten zuena. Au, izengoitiz *Mami*. Ezkondu ziranean, senar-emazte biak ez omen ziran larogei kilo. Nik ezagutu nituene-

an, senarrak bakarrak izango zituen ainbeste, txikia bazan ere. Kristau sutsua ta euskaldun garbia. Au zan orduko dantzarietarako ziena ere. Oitura eder bat bai omen zeukan, nere iritzirako beñepein, -sinismen berokoa izaki ura-, beste askorentzat txorakeri bikaina izango da baiña.

Errenderi'k eliza bakarra zeukan orduan. Ama Birjiñaren Jasokunde-bezperan, eliza zaararen Zaindaria ala baita, illunabarrean ate guziak itxiko zituen eta egundoko dantza-saioa egiten zuela, izerditzeraño, aldare nagusian, Ama Birjiñaren aurrean. Bukaeran, auresku bat bere omenez.

«Erriari ainbeste gustatzen zaizkion dantza auek, zergatik ez Ama Birjiñari?».

Gauza zan arte, orixe egiten omen zuen.

Joakiñek ere, Gipuzkoa'ko Zaindariaren aurrean, meza eman ta sakristira zijoala, aldarean txut-txutik jarririk, mezako jantziak oraindik soñean zeuzkala, meza-laguntzaillea aldamenean arrituta, ondoren datozen bertso auek kantatu zituen, abots ederrean, meza entzuten ziran guztien aurrean. Etzan berezko bertsolaria, baiña bazekien txukun xamarrak egiten. Irakurtzen dituenak epaituko ditu. Zergatik etzuten izan bear Amaren atsegingarri?

Makilla eskuan, zauri egiña,
gorputz guzia minbera,
Bilbao aldetik etorri nintzan
Arantzazu'ko gaiñera,
il nai niñutenengandik iges
ixil zure babesera;
berrogei urte joan diran arren,
Ama, oroitzen al zera?

Larritasunez aldegin nairik
Bidaso'z beste aldera,

aberri xar au oinpean utziz
erbestean bizitzera,
urrundu baiño len Zu agurtuz
zure oiñetan jartzera;
berrogei urte joan diran arren,
Ama, oroitzen al zera?

Menderatua, lagunak galdu,
etsaiak nere eizera,
gaizkilleren bat banintz bezela
izkillupean iltzera,
Zuregan neukan itxaropena,
zuri laguntz eskatzera;
berrogei urte joan diran arren,
Ama, oroitzen al zera?

Zure aurrean apal makurtuz
maitasunez otoitzera,
zauri gaizto bat oiñaze miñez
ibillian gaiztotzera,
praile bat nola etorri zaidan
zauri txar ura lotzera;
berrogei urte joan diran arren,
Ama, oroitzen al zera?

Azken agurra samin emanta
emendik nai ez atera,
malko garratzak zetozkidala
umetxo baten antzera,
ordu artan zer eskatu nizun
jetxi baiño len gainbera,
berrogei urte joan diran arren,
Ama, oroitzen al zera?

Beti alderrai ibillia naiz
urrun batetik bestera,

andikan ere zure laguntza
eske, Ama biotzbera;
zure oiñetan emen naukazu
berriz nere zaartzera,
berrogei urte oitan bezela
Zu oroituko al zera?

Eskerrik asko, Ama maitea,
banoa urrun atzera,
artzairik gabe utzi ditudan
nere ardien artera;
Zutzaz aztuko banintza ere
utzi baiño len galtzera,
berrogei urte oitan bezela
Zu oroituko al zera?

Agur, banoa, aldegin bear,
naigabea biotzera,
gaur urrun joanagatik berriro
igo nai nuke onera;
Ama-semeak geran ezkerro
etorriko naiz atzera,
berrogei urte oitan bezela
Zu oroituko baizera.

Bukatu ta aldare aurrean belaunikatuz, txuxenean sakristira joan zan, meza-laguntzaillea oiñak arrastaka aurrean zuela. Bein bere jantziak erantzi zituenean, orduko oitura zanez, apaizak bedeinkatu ta eskua luzatu zion musu emateko. Baiña meza-laguntzaillea txunditua geratu zan. Begira-begira jarrita, ala esan zion:

- Zuk noren bertsoak kantatu dituzu or?
- Neronek jarriak.
- Eta egia al da or diozuna?

- Egi-egia. Neri gertatua dena.
- Orduan zu Florida'ko Joakin zera?
- Uraxe berbera, berrogei urteren buruan mixio-etatik etorria.
- Eta ni ezagutzen al nauzu?
- Ikusi zaitudaneko, Frai Joxe. Limosna eske ibiltzen ziñana ta sendatu arte etxe ontan ezkutuan eduki ninduzuna. Zuk urte asko dauzkazu, baiña oraindik buru ori argi; ezaguera bikaiña.
- Bai. Ori egia da. Baiña oiñak arrastaka. Bai urte gaiztoak zirala aiek! Emendik Bidaso'z aruntza iritxi ziñan, bada, zu!
- Bai, arraixku estuak igaro ta gero. Eskerrak zure laguntzari. Bestela ez dakit.
- Zuen etxean egindako zorrak ordaintzezkeroz, zerbait egin bear nuen.
- Baiña zuk orain ere Florida'ko loretegitik ekarri dezu landare eder bat.
- Bai. Lengoa Jainkoak eraman zigun eta aren lana izango da noski berri onen sarrera. Au izan da nere azkenekoa. Orrekin amalau baditut ekarriak. Baldartu ta geroztik erretiratua, konbentuko lanetan bizi naiz.
- Urte gaizto aiek ere joan ziran. Oraingo aldaketa berri onek zerbait ohea ekarriko baligu...
- Nai al zenduke gurekin bazkaldu? -eskatu zion frai Joxek.
- Baiña besteak ezetz; etzuela iñoren aotan ibiltzerik nai. Bera joaten zanean, nai bazuen esateko.
- Gosaldu ere ez?
- Ortara zeran ezkeru, bai, ta pozik. Benetan eskertuko nizuke. Bart amabiak ezkeru, baraurik bainago.
- Berekin sukaldera eraman zuen, eta an egin zuten elkar-izketa luze bat. Agurtu baiño len, ala eskatu zion Anaiak:

– Aizazu: gaizki iruditzen ez bazaizu, bertso oiek eman bear dizkidazu, gaur bazkaltzean kantatzeko, orduko nagusia oraindik bizi da ta.

– Bai, nai badezu. Nerekin daramazkit –eta bertan eman zizkion.

– Zoraturik entzungo dituzte, geienak beiñepein. Tartean ez dakitenak badira. Baiña pazientzia artuko al dute, ainbeste urtean ixilik egon gera ta.

Mezetan zan gudari xaar batek entzun zituen bertso aiek eta zarratara bizia egin zioten. Nor ote ziteken apaiz ura? Ez ote zan gero Joakin, bere batalloian ibillia ta azken egunetan zauri gaizto bat egin ta ospitalera eraman zutena, ta igesan bere etxean apaldu ta argazki ura utzi zuena? Baiña bere gurasoak esan ziotenez, ura Arantzazu'ko ondoan il zuten.

Joakin konbentutik atera zaneko, an zuen aurrean, berak uste etzuela. Begira-begira egon zitzaion. Bai aren antza artu ere. Galderatxo bat barkatuko al zion.

– Barkatu, apaiz jauna. Zu iñondik ere gudari izana zera.

– Bai, gizona, bai. Amaika istillu igaroa gaiñera.

– Bai; bertso oiek diotenez, bai. Ta batalloi batean ibilliak noski. Il omen ziñala, baiña nik ez det sinisten. Zu iñondik ere Joakin zera.

– Asmatu dezu. Zu, berriz, lautatik bakarrik geratu ziñan ura.

– Egia ori ere.

Berrogei urteren buruan bi gudari xaarrak besarkatu ziran.

– Igesan etzenduen zuk gure etxean apaldu?

– Bai; ta argazki batekin ordaindu nuen.

– An dago oraindik ura. Gaur, berriz, elkarrekin bazkalduko degu.

– Utzidazu pakean, lan asko daukat egin bearra ta.

– Ori gero, baiña lenengo bazkaldu. Alkarren berri ikasteko, zer oberik?

Alaxe, elkarrekin bazkaldu zuten. Arekikoa bukatu ta Amatxori agur egiñez, etxera bidean jarri zan.

ETXERA BIDEAN

Goizean erromes joandako autobus aietako batean lekua billatu zion gudari xaarrak. Baiña ara joan zaneko, beste batek aurrea artu ta apaiz gizarajoa txutik geratu zan. Amonatxo batek bere ondoan eskeiñi zion aulkia. Asko ibilli zan eta etzuen izan bere eguneroko otoitzak egiteko denborik. Izketarako, berriz, etzuen ezagunik. Otoitz-liburua artu ta errezatzen asi zan, bada. Aldamenean zeraman emakumetxoa, berari begira jarria, ain goibel ta triste iruditu zitzaion Joakiñi, arixe galderatxo bat egin arte etzan lasaitu.

– Erromes etorria zu ere?

Poztu zan, apaiza galderaka asi zitzaionean.

– Bai, jauna, bai. Alaxe etorria naiz.

– Ezbearren bat edo? Triste ikusten baizaitut.

– Ezbearra ezin nezake esan. Baiña etxeko negarra bai –erantzun zion, bere malkoei ezin eutsirik.

Zenbat olako negar ixil ez ote dago mundu ontan? Eta agian, lasaitu lezaken lagun on bat ezin arkitu.

– Zu apaiza zera noski?

- Bai. Bestela ez nintzake orrela jantzia ibilliko.
- Zu etzera emengoa izango?
- Bai. Emengoa naiz ni, euskeraz ari gera beiñe-pein ta.
- Barkatu. Oñati'n bizi zerana esan nai nizun.
- Euskalerrian ere ez. Ameriketan berrogei urte igaro ta etorria. España'ko indarkeriak bukatu ta aldaketa pixar bat egin baita, Euskalerrian sartzeko baimena iritxi detanean, nere maiteak ikustera azaldua naiz. Denbora berean erri xaar oni bisitatxo bat egin. Ez dakizu urrutiak eta luzaroan ez ikustek nola edertzen duen jaio giñan lurra.
- Nik ez dakit, baiña ala izan bear du. Askori entzun baidiet.
- Aspaldian biotza irrikan neukan. Neri beiñe-pein egundoko zarrara egin dit.
- Mundu asko ikusia zera orduan?
- Ez. Ango eliz bateko bikario egon naiz. Zu, berriz, Arantzazu'ko Amaren oiñetara mesederen bat eskatzera igoko ziñan noski?
- Bai, jauna. Ez det au lenengoa.
- Sinismen bero batek badaki gure naigabeak arintzen.
- Bai. Ori ala da. Baiña zu apaiza zeran ezkeron, ondo ulertuko dituzula uste det nere atsekabeak.
- Emakumeak zerbait kontatu nai zion, baiña etzan ausartzen. Ala erantzun zion:
 - Guk egitekoa bada... Zer gertatzen zaizu? Maiteren bat gaixo ta Elizatik aparte agian?
 - Ori da. Senarra daukat gaixo edo kezka betea. Gau ta egun ez du atsedetik artzen, eta aren ondoan nik ere ez.
 - Kezka oietan lotua bazabiltza, ez daramazu bizimodu goxoa. Ortarako, mediku on bat obe zenduke.

– Ez, jauna. Aren kezkak sendatzeko ez dute balio.

Txunditua zegoen apaiza, emakumetxo aren itzegiteko moduarekin. Zer ezkutu zeukan, bada? Zergatik ote zetozkion ezin lasaitu aiek?

– Eta kezka gaizto oiek zerk sortzen dizkio, bada?

– Len ere esan dizut: oiera orduko esna edo lotan larri geratzen da. Beti oiuka igaroko du arrats guzia. Jeiki, oieratu, ezin lasaiturik ibilliko da. Erriko apaizei esan diet, eta deabruak artua ote dagoen. Berak, berriz, ez du oietako inorekin ere itzegin nai.

– Arritzekoa da ori. Jainkoak badaki makillik gabe jotzen. Ez dakizu oiuka zer esaten duen?

– Iru edo lau izen esaten ditu. Denak etzaizkit oroitzen, baiña bat bai, askotan aipatzen duena, ta oiuka ikaragarriak egiten ditu: «Joakin, zertan begiratzten didak orrela? Aldegin zak nere aurretik!». Arrats santu guzian berdin ariko da. Ezin bizitzera ino etorriak gaude. Jakiña, nik maite det ta il arte zaitzera beartua nago. Arek, jauna, nere iritzian, apaiza bear du, ta ez sendagillea.

– Lengo gudatean ibillia izango da?

– Bai; ta lan txar asko egiña salatuta, entzun detanez.

Apaizak ala zion berekiko:

«Ea Antton dan ori!».

Eta ondoren amonari:

– Zure iritzian zer bear du?

– Apaiza. Len ere esan dizut. Eta aitortza on bat egin. Besterik ez. Berak ezagutzen ez duena, ordea. Askotan eskatzen dit: «Deitu zazu apaiz bat». Baiña bereala damutzen zaio: «Utziozu. Ez ekarri». Orrela gabiltza bi urte auetan. Ura ez dago deabruak artua. Arek kontzientzia dauka zikiña. Ori garbitu arte, ez daukagu pakerik.

– Bai. Gaztetan, arrokeriak eraginda, iñoiz il be-
ar ez bagendu bezela, astakeriak egiten ditugu. Ge-
ro, egiaren ordua urbiltzean, larria biotzean.

– Eta zu joango al ziñake?

– Apaiza naizen aldetik, nola ukatuko dizut ori?
Bai; joango naiz. Baiña naiago nuke zuk aurretik
esango bazenio zerbait. Nai badu beiñepein, ni sartu-
ko naiz eta, susmur txarrik ez dezan artu, erderaz
itzegingo diot.

Gaixoaren etxera iritxi ziranean, alabak artu zi-
tuen eta ama txuxenean gelara joan zan.

– Antton –esan zion–, apaiz arrotz bat badago
emen, bere lagun bat bisitatzera etorria. Zure berri
jakin duenean, onera igo da.

– Eta nola ikasi du ni orrela nabillela?

– Arantzazu'tik etxerakoan elkarren ondoan exe-
ri gera, ta izketan-izketan neronek esan diot.

– Euskalduna al da? –galdetu zion.

– Bai, baiña ez det uste ondo dakienik. Berrogei
urte auetan Ameriketa aldean mixiolari ibilli ta dato-
rrena.

– Esaiozu, esaiozu sartzeko.

Emazteak atera zanean:

– Barrura deitzen zaitu –esan zion.

– Bide erdia igaro degu –apaizak.

– Ala uste al dezu? –siniskaitz erantzun zioten
ama-alabak.

– Bai. Ortik aurrera konponduko gerala uste det.

– Jainkoak ala nai dezala.

URRIKALPENA

Sartu zaneko ezagutu ere. Urtua benetan. Zertaraiño eroria zegoen! Zigarroa erretzen arrapatu zuen. Baiña larritasunez gorputz guzia daldaraka. Bere txino begi tiratu aiek ezin egonik, izutu baten begiratua egin zion. Urtua zegoen. Burua, illargi be-tea bezela soildu ta txuria. Garai bateko ille ugari ta arroak aldegin zion. Etzan berrogei ta amar kilo izango. Etzegoen oatzean; karakola bezela bil-bil egiña ta ixil-ixilik aulki batean eseria baizik. Garbi ta txukun jantzia, ondo zaintzen zuen emazteak. Alaba etzan an bizi. Ama norabait joan bear zuenean etortzen zan bere ordeko. Urtebete izango zan etzuela beste bixitik artzen.

Gaixoak etzuen noski apaiz ura nor zan ezagutuko. Bizar-lege pixar bat ere bazekarren, mixiolari askok bezela. Ezta iltzea baiño geiago uste ere, Joakin Bilbao'n illa etzanik. Onek bai aguro bestea. Bere eskaxian bazeukan aren itxura.

Bere etsairik gaixtoena, Subegorria alajainkia! Antton berbera! Uraxe bai zala uste gabekoa! Munduan iñoren bearrik etzeukala ta arro mintzatzen zan ura! Sinismenari betiko ateak itxi zizkiola, zenbat

aldiz etzion entzun? Egia da, bai, Jainkoak makillik gabe jotzen badakiela. Baiña ez al zan ori beretzat Jainkoaren grazi bat izango? Ez bazituen amets gaizto oiek izan, oroituko al zan egindako lan txarrez? Jaunaren bideak ezkutuak baidira.

«Or zegok ire naigabe guzien borrheroa, ezer ezin lezaken aurtxo bat bezela, ire eskuetara eroria. Egin zak irri bere bizkar. Esaiok azkena par egiten duenak bi aldiz egiten duela. Supri erazi ondoren, ito ta aldegin zak emendik Ameriketa alde ortara, ta iñork ez dik jakingo nork egin duen. Ez al diok beiñepein orri barkatuko! Ez al aiz ain eroa izango!».

Bazirudien norbaitek belarrira ori esaten ziola. Zenbaitek etzuen egokiera ori galduko. Baiña aren asmoak etziran olakoak. Len ere ortarako egokierak izan zituen. Alare, beti barkatu zion. Urrikalpena jaio zan biotzean; ez gorrotoa.

Bere adiñerako xaartuegia, bai, benetan Antton zan ura. Joan zitzaizkion gaztetako arrokeriak. Azkena par egiten zuenak bi aldiz egiten zuela esateko algo aundirik etzeukan gaixoak. Itxura galdua, lauso xamarra, zorrotz begiratzen bazion ere, etzeukan ezagutuko zuen beldurrik. Apaiza zala bai, igertzen zion. Bazirudien kezka txar aiek kentzeko laguntza eskatzen ziola. Bere ondora urbilduz ta esku emanez:

– Jainkoak arratsalde on. Badakizu gaixoa bixitaztea ebanjelioaren aolku on bat dala. Zure emazteak esan didanez, zu ala zaude noski.

Etzion berealakoan erantzun. Begira-begira zegokion, al zuen aiñean burua zuzenduz, gizon estrañu baten aurrean izututako ume bat bezela.

«Ezagutu ote nau? –zion berekiko Joakiñek–. Ori txarra izango litzake nere asmoetarako».

Zenbaitek itoko luke. Asmo obeak zeuzkan Joakiñen apaiz-biotzak. Anttonek, beraz, etzion antzik eman ere. Erderaz itzegiten ziola-ta, lasaitu zan.

– Bai, jauna, bai. Gaixo nago –noizbait erantzun zion, bere etsairik amorratuenaren aurrean benetan umildua.

– Nere atsegiña, berriz, gaixoak bisitatzea da. Aien oiñazeak arindu, zerbait lasaitu, beren kezkek entzun, biotzeko ikarak uxatu ta –zergatik ez?–, gaixoak nai badu, aitortu ere bai. Gorputzeko oiñazeak sendatzeko or daude sendagilleak. Gu barrurago sartzzen gera. Naigaberik txarrenak kontzientzikoak baidira. Nik, zure gorputz aul ortan, Jesukristo berbera ikusten det oiñazetan. Nai badezu, izketa aspertu bat egingo degu, zure kezka oiek nondikakoak diran jakiteko.

Gela-bazter batean bazegoen aulkia. Gaixoaren ondora eraman ta asi zuten beren elkar-izketa.

– Kontzientziko gaitza diozu? –erantzun zion gaixoak–. Orixe da, bada, nerea. Ori kendu ezkeru, gorputz au oraindik zerbait xuxpertuko litzakela uste det.

Maleziz esan zion ori apaizak, eta gaixoak emandako erantzunean garbi igerri ere zer nai zuen: bere biotza ustu. Aitortu alegia.

– Bai; gorputzeko gaitz asko kontzientzitik asten dira.

– Ez badatorkizu gaizki, orixe garbitu nai nuke.

Apaizak seminariotik ezagutzen zuen, eta berrogei urte aietan etzala ura aitortu dudik etzeukan. Ortarako, galdera batzuk egin nai zizkion.

– Ondo edo gaizki etorri, apaiza naizen aldetik, nere eginkizunik nagusienetako bat ori da. Baiña sinisten al dezu?

– Bai, jauna. Ez det egundo galdu, ta zaartzaroan ta beroagoa. Ortatik datoz nere kezka auek guziak.

– Ori bearrezkoa da. Baiña sinisten al dezu aitor-

tzeak balio duela eta badaukala indarra pekaturik gaiztoenak barkatzeko?

– Bai, jauna, bai. Ez nintzake ni bestela orrenbesteraiño umilduko.

– Aitortza bearrezkoa da pekatuak barkatzeko. Baiña bai damutasuna ere. Eta egin dituzun guztietaz benetan damutua al zaude?

– Pekatuak aiña bizi baneuzka ere, denak eman-go nituzke.

Apaizak berekiko ala zion:

«Amaika bizi bearko itukek orduan!».

Ta gero:

– Dezun bakarra eskeiñita ere, ez da gutxi.

– Baiña barkatuko al dizkit Jaungoikoak?

– Arestian ez didazu esan sinisten dezula?

– Len ere esan dizut, bestela ez nintzakela aitortza au egitera makurtuko.

– Jainkoaren errukia zalantzan jartzea arrokeri bat besterik ez da. Geron buruari garrantzi aundiegia ematea. Nor gera gu Jainkoa gure buruarekin neurtzeko? Guk agian ez genduke barkatuko. Baiña ura neurri gabea da, ordea.

– Ainbeste naigabe eman ondoren?

– Jainkoari ez dio iñork oiñaze ta naigaberik ematen; ez supri erazi ere. Guk ezin genezaioke Jainkoari ezer eman. Gu izan edo ez, ura beti bezin zorienttua izango da. Ez dabil gure atzetik, bear gaituelako; gure ona nai duelako baizik. Orregatik da errukibera Jainkoa. Jesus gurutzean il zan ezkerro, gure pekatuen ordaiña korrituan jarria dago.

– Eta nola artu nezake interes ortatik?

– Damutu ta biotz-berrituz, aitortza on bat egin ondoren. Ez daukazu beste biderik. Ori, zedorrek nai dezunarekin.

– Mesedez, gera zaite. Askotan ibilli naiz emen-

go apaizak deitzeko asmoan. Baiña ezagunak ditut eta lotsatu egiten naiz. Ez al ninteke zurekin aitortu?

– Bai. Baiña preparatua al zaude? Alare, nai badezu, nik lagunduko nizuke. Baiña bearren-bearrez-koenak sinismena ta damutasuna dira.

– Illebeteko azterketa egin ondoren, gogoratzen zaizkidan pekatu guziak memoriz dakizkit. Ortan beiñepein ondo preparatua nago.

– Ortaraiño ez du agintzen Jainkoak, baiña ez dago gaizki egiña. Egun gaizto askoak ikusi dituzu. Orrekin, benetan aurreratua daukagu lana. Jainkoaren lenengo agindutik asiko gera.

Banaka-banaka bostgarreneraíño joan zan. Baiña au utzi ta seigarrenera salta zuen. Bukatu arte, etzion Joakiñek ezer ere esan. Orduan:

– Oraindik zauli zaude zu.

– Zergatik diozu ori?

– Bostgarren langa, gaiztoena noski, aidean igaro dezu ta... Zenbat dira Jaungoikoaren aginduak?

– Amar. Neri ala erakutsi zidaten –erantzun zion.

– Zuk bederatzi bakarrak erabilli dituzu, bostgarrena utzita. Zuri kezka gaizto oiek ematen dizkizutenak, baliteke agindu ortan sartzea. Ni engañatzen errex da; baiña ez Jainkoa. Ez badituzu dakizkizunak aitortzen eta damutzen, barkatu bearrean, pekatu berri bat egingo zenduke. Utzi lotsa ta txorakeriak, eta bota dena, zuk kontzientzian daukazun bezela.

– Bai, jauna, bai. Langa ortatik igarotzea zail egiten zait. Baiña ez det egundo egokiera oberik arkituko, ta or dijoa nere biotzeko eden guzia.

Alare, etzuen dena gertatu bezela ixuri apaizaren aurrean. Onek, ordea, bazekien bere pekatu batzuen berri ta etzituela aitortu, eta ala erantzun zion:

– Sube txiki asko ikusi ditut zure aotik ateratzen.

Aundi batek ere burua azaldu du. Baiña berriro barrura sartu da. Txiki guziak ere bai aren atzetik.

– Orrekin zer esan nai zenduke, jauna?

– Ez dituzula pekatu guziak aitortu. Aundienak gorde dituzu.

– Orduan, zuk nere pekatuen berri badakizu?

– Ametsetan ikusten dituzun aiek zergatik agertzen zaizkizu: on egin zenielako?

– Ez, jauna, ez.

– Ez dituzu, bada, aitortu.

Noizbait, lotsa guziak botata, dena zeukan bezela ustu zion.

– Bejondeizula! Ez naiz batere arritzen, olako bat baiño geiago aitortu ditut lenago ere ta. Orain damutu zait. «Jesukristo nere jauna» jakingo dezu noski.

– Oierakoan beti errezatzen det nik ori.

– Benetan damutuz esazu bada.

Apaizak, unetxo batean bere baitara bildua egon ondoren, serio-serio ta biotz-biotzez asoluzio edo as-kespena eman zion. Zorionarekin batean eskua emanez, besteak apal-apal muxu eman ere. Alako arnas lasai bat egin zuen aitortu zanak:

– Jaunari eskerrak, ez det ezertxo ere gorde.

Apaizak ala galdetu zion:

– Lasaitasun ederra artu dezu noski.

– Itzez agertu ezin litekena.

– Ez dezu amets gaiztorik egingo geiago.

– Ez ote? Ori egia balitz...

– Zalantzik gabe, nerekin ez beñepein. Badakizu atsegin ori nork eman dizun?

– Zure bitartez, Jainkoak.

– Egi borobilla. Baiña ni nor naizen badakizu?

– Ez badidazu esaten, zer dakit nik?

- Jakiten dezunean, ez izutu gero, Antton.
- Nere izena nola dakizu: emazteak esanta-edo?
- Ez. Aspalditik dakit nik izen ori.

Begiraten zion bazter guzietara, antz pixar bat artu ere bai, baiña ezin ziteken ura izan, Bilbao'n pusillatu zuten ta.

- Ez badidazu esaten, ez antzik eman ere.
- Bilbao'ko ospital batean zauritua zegoen batek ez al zizun zuri esan : «apaiz egin ta nik agian oraindik pekatuak barkatuz paketu bearko dit ire biotz ori»?

- Egia da ori. Nork kontatu dizu?
- Neroni nintzan, ori esan nizuna.
- E? Zu Joakin zerala? Ezin litekena da ori! Ura Bilbao'n il zan!

- Ez, Antton, ez. Arek iges egin zuen -erantzun zion euskeraz.

- Egitan ari al zera? Orra ildakoak egunez ere nere begien aurrean. Emengo aitortza au ametsa da orduan? Len bezela geratzen naiz. Olako ametsak maiz egiten baiditut. Gero, esnatzean, alako tristura bat geratzen zait, gezurra zala oroitzean.

- Ez, Antton, ez. Egia da. Ez da iruzurra. Nik iges egin nuen.

Kontatu zion nola ibilli zan Prantzi'ra joan bitartean, eta nolako laguntzailleak eduki zituen bide luze ortan guzian. Sinistu zion, baiña erremindua geratu zan, aren aurrean eskuan musu emateraiño makurtu zalako. Ta, zapuztua bezela, serio.

- Dirudienez, zuk badiozu oraindik Joakiñi gorroto edo ezin ikusi pixar bat, eta ori txarra da gero...

Buru-makur serio-serio pentsatzen egon ondoren, erantzun zion:

- Egia diozu. Baneukan nere arrokeria. Ez da oraindik bear bezela il.

– Etzaiozu bada lekuri eman. Nere lekuan beste apaiz bat izan bazan, etzenduen zuk aitortza onik egingo. Nik, nekielako esan erazi dizkizut.

– Bai. Arrazoi dezu, Joakin. Olako gizon baten aurrean makurtu bearra dago. Neregatik orrenbeste suprituta, nola ez nauzu oraintxe bertan itotzen?

Joakiñek, berriro bere eskua luzatuz, ala erantzun zion:

– Au da neretzat egun atsegiñenetako bat. Nere bitartez Jainkoak barkatu dizulako, zeruan sartu zera zu. Ni ere bai, barkatu dizudalako. Iñor itotzeko asmo txarrik ez da nere biotzean jaio.

– Orduan zuk dena barkatzen didazu?

– Ez nizun bestela asoluziorik emango. Etzaitut egundo gorrotoan eduki. Berrogei urte auetan eman ditudan meza guzietan, beti zure alde otoitz egin det. Bizi zerala esan dit zure anai Joxek. Arantzazu'n izan naiz; or ere etzaitut aztu. Onuntzean, berriz, ala bear ta zure emaztea nere ondoan exerita, arek eman dit denaren berri. Baiña ez daki oraindik nor naizen.

– Arrigarria zera, Joakin. Zure lekuan ni egon banintz eta zu nerean, nik ez nizun barkatuko. Astakeriren bat egingo nuen.

– Zu lasai ta zoriontsu ikusita, benetan pozten naiz. Ori da nere atsegiñik aundiena. Zalantzik gabe geratu ziñezke nik barkatu dizudana Jainkoak ere askesten dizula. Damutua baizaude. Zorionak bada, Antton.

Oraindik ere uste zuen onek ametsetan ari zala. Alako gizonik izaten zanik ere... Etzekien zer erantzun. Ustez berak gorrotoz il erazia zuen batek, neurri gabeko pake ta zoriona sortu zizkion biotzean. Sinisten dutenak bakarrak dakite orren berri.

– Ni ez bezelakoa izan zera.

– Ondo bukatzean dago dena. Gizon-emakume

guziok ditugu gure mixeriak. Nik ere bai, ta ez gutxi. Baiña gazte-gaztetatik nere belarrietan durundan ibilli ziran eta gero biotz-muiñetaraiño sartuak alako ebanjelioko itz aiek: «Maite itzazute etsaiak; ez gorrota. Otoi gaizki egin edo erasotzen dizutenen alde». Nere bizieraren zuzenbidea ori izan da: ez artu gorrotorik iñori. Len ere esan dizut: amets gaizto oiek guziak bukatuko zaizkizula uste det betiko.

– Nai nuke orixe asmatuko bazenu!

– Zergatik ez, barkatuak daukazu ta?

– Amar urte auetan ordu onen billa ibilli naiz, baiña beti atzera.

– Ibiltzeko gauza zera noski? Nai dezunean joan ziñezke Jauna artzera. Penitentzi bezela orixe ematen dizut.

– Bai, bai. Joateko gauza naiz eta igandean egingo det. Baiña zaila da dotrin ori: zuk bezela etsaiari barkatzea.

– Zedorrek pentsatu, nere lekuan zu egon baziña, barkatuko al zidazun.

– Ez det uste. Olako biotzik ez daukat nik.

– Agur, bada; ta len etsai giñanak, orain lagunak egin gera. Jainko-graziaren lanak olakoak dira. Agur, bada, berriro, Antton. Jainkoak entzun ditu nere otoitzak.

Begira-begira egon zitzaion atzetik, txundituta, pozaren pozez malkoak zerizkiola.

– Ori dek gizona, ori! Ez ni! Gorrotoak guda zekarrek; maitasunak, berriz, pakea.

Etzutela bisita motxa ta zai zeuden ama-alabak. Atera zanean, alai ta irripartsu ikusi zuten Joakin.

– Zer moduz? Zer dio gure Anttonek? –galdetu zioten.

– Ustu-aldi ederra eman diola bere kontzientziari.

- Aitortu da orduan?
- Bai; ta nere iritzian oso ondo preparatua zegoen. Ez det uste amets oiek geiago etorriko zaizkionik.
- Orixe egi biurtuko balitz...
- Nere iritzia beiñepein ala da. Uste gabeko arri-garria izan da gu biok berriz emen elkartzea. Berak nai badu, dena kontatuko dizue.
- Eta zuk zergatik ez?
- Ixillean aitortuak beude ezkutuan. Lasaitasun ederra artu du beiñepein.
- Ori egia bada, pakea izango degu.
- Nere iritzian bai. Esan didanez, igandean elizara Jauna artzera jexteko asmoak omen ditu.
- Guk lagunduko diogu.
- Agur, bada, ta ondo bizi.
- Eskerrik asko berriro ere, ta agur.

Antton kontentu geratu zan, baiña Joakiñen zorionak ere etzeukan neurririk. Arantzazu'ko Amak etzion nolanaiko saria eman. Aberatsa benetan egingdako txangoa.

* * *

Oraindik egun batzuk geiago igaro zituen Joakiñek etxean; eta bere lagun ta adiskide guziei agur egiñez, joan zan utzi zuen artaldera. Oraindik an bizi da nonbait. Sagar-ale eldu bat bezela, eskuetara erori zitzaion Antton ere.

Alare, bazeraman arantz zorrotz bat muiñetaraiño sartua: ama poztu gabe zijoala. Ez baizuen onek semea ezagutu.

ARKIBIDEA

Sarrera	7
Aparia	13
Antton eta Joakin	23
Erasoa	29
Larri	33
Joakiñen igesa	37
Manueltxo	43
Joakin	49
Gudara	55
Bilbao'ra	63
Gudan	67
Begia luze	83
Deabruaren ibilliak	95
Otso-jantzian, baiña ardia	99
Norabait	103
Gordeleku billa	107
Euskadi kezketan	125
Il edo bizi ote da?	129
Joakiñen odisea	135
Subegorria	151
Illa piztua	157
Adiskide zaarrakin	167
Gurasoak	171


Mixiolari	175
Antton	179
Noizbait	187
Arantzazu'ra	199
Etxera bidean	207
Urrikalpena	211



1008170

B0-377

AZKUE BIBLIOTEKA EUSKALZAINDIA BILBO
67632
1990 URR. 5
1008170



AUSPOA
LIBURUTEGIA